ITXARO BORDA

# Bizi nizano munduan

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1996 Itxaro Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1996ko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

# –1–

Larunbata iratzarri zen. Eguerdiko jadanik, ebiakoitz - ibiakoitz - iakoitza zen eta arratsaldeko lauretan, Peko Arrüaren errautsetan, eguna engoitik, neskenegünez apaindurik zen. Zapatua baizik ez zela ments pentsatzen ari nintzenean, ikusten nuen zeruaren urdintasun krudelak irensten zuela Mauleko karrika nagusiaren Harlem itxura: aldi oroz Peko Arrüa gaixoa aztalkatzen nuelarik, Amerika desira pizten zitzaidan bihotzaren zokoan, bakardade errearen lur eremu gorrien mugetan, amodio-gabekeriaren errai biribilkatuetan lerratzen. Martxo hastapeneko oihanak eta xarak denbora berean ote-liliz beztitzen ziren, urrez janzten eta Amerikak orduan are beharrezkoagoak nituen... ondikotz.

Udaberria indarrez zetorren, gutariko bakoitza zaplastatzeko kemenez nola. Kanta zahar bat neukan gogoan, aspaldian ez gurutzatu adiskide bat eta manifestatzera joaiteko xede xoila.

Norbaiten urrats ozena entzun nuen, gazodükaren branxamenduen egiteko, besteak beste, zilatzen zuten arrüan gora hurbiltzen.

– Amaia!

Ahotsa heldu zen gunera itzulikatu nintzen, eta martxoaren sei horail hartako eki beroak begiak itsutu zizkidan. Nekez baina, Pette ezagutu nuen, eta karrika hegian zutik egon nintzen, eskuak sakeletan, lagun haren haiduru.

– Pette! Nola zira? –agurra eman nion.

– Ez zü bezain hardit ez! –ihardetsi zidan alegrantziarik gabe.

– Alabadere... –dudaz beterik jarraitu nuen hizketan.

– Eta zü?

– Ni? Ontsan, menaje egiten ebili nüzü...

– Emazte-lan.

– Prefosta!

Karrika nahasiaren parte bat elkarrekin bidezkatu genuen, bazterretan zeuden harri, zikin, koloretako hodi metetan behaztopatzeko belduerrez, oinak non ezarten genituen kasu-eginez. Ele soberakinik ez genuen trukatu, ekiaren leinuru eztiak hitzaren oihartzuna menperatzen zue-

lako menturaz, eta nihauk, gainera, menajeetan iragan nituen hilabeteetan zehar arrunt ezabaturik nuelako normalki mintzatzeko ahalmena. Hitzen lerrokatzea zail zitzaidan eta, iduriz, Pettek ere ez zuen solasean bermatzeko gutiziarik.

Aroaren samurtasuna aipa genezakeen, nere lantokiko andereek zegiten eran, gazodükari buruzko azken berriak edo apailatzen ari zen hauteskunde kanpaina harozua... Baina eguzkipean nagitasunak gaina hartzen zigun. Lantokiko andereen ele-sailak jin zitzaizkidan kaskoaren kilikatzera: gogaitzen ninduten, aspertzen, enoatzen, nazkatzen, muinetan Amerika desira labankatzeraino. Beti nonbait min, beti gaizki lo egin, beti senarrek zerbait pena, beti hau, beti hura, eta hondarrean, baitzekiten doi bat herresta irresponsablea nintzela, nerekiko betiko oharpenak:

– Zü zira irusena! –zioen batek eta besteak segitzen zuen:

– Ez ziteala ezkont, Jinkoaren amoreagatik!

Segur nintzen ordea, ez zuela bihi batek bere bizimolde aiseta nerearekilan alderatuko. Halatan, muturik nirauen, errautsez estali zolak tai-

gabe erraztatzen, xahatzea bezalako gauza garrantzitsuagorik munduan ez bailitzan. Xahatzen, xahatzen, Ameriketako basabortuak xahatzen, otea lili zatekeen urtaroetan, xahatzen. Bakarretan, lurreko miseriak oro langela hertsian hedatzen zirelarik, erraiten nakoten airos:

– Xahartzea zer den bestenaz!

Nere ausartziaz harritzen ziren, eta taldeko mihi-gaitzenak gehienetan xiberotarren kanpotiarren kontrako defentsarik egokiena botatzen zidan:

– Manexerik aize eta jente honik ez!

Andereak irriz karkailaka lehertzen ziren, eta bederazka egin beharretara makurtzen, menopausiaren edo menoplayaren gorabeherak baztertuz. Bakean uzten ninduten, Amerika amestuetako desertuen bidaiatzen, otarre xumeetako ote-liliak asmatzen, galtzen.

Neskenegün hartan Peko Arrüan nintzen Petteren sahetsean, eta Pette sahetsean edukitzeaz arrotz.

– Manifalat joan mentüraz?

– Bai, ene üzinan ere plan soziala abiarazten dizüe!

– Plan soziala? Baia?

– Nausiak sozialaz ardüratzen direnean...

– ...seinale txarra!

Pette ttattit so geratu zitzaidan, eta Petteren behako herabean irakurri nuenak ez ninduen biziki boztu.

– Zer dakizü zük lanaz? –zioten begiek, eta Petteren begiak, hain zuzen, gure ertzeratu komunista batek papoan pausatu zion eratxekin horia ikustean, dirdiran agertu ziren.

Ez adiorik gabe urrundu zen Pette, eta Bidegain lantegiaren aintzinean, mila jenderen artean, bakarrik gelditu nintzen, alderdi politiko edo sindikato bilduek beren partaideengan sortzen zuten komunitate sentimenduaz pentsaketan. Legarretxe pareko murru apalaren gainean jarri nintzen, ekitoltzean.

Elurra jastatu genuen. Urteko lehen eguzkiaren erasoak ziren, beraz, martxoaren sei hartan, Mauleko –orozbat Xiberoko– indar-xotilenek deitu Bidegain SAren sustengatzeko burragertaldiaren kide. Ekiaren balaka eztiek jabaltzen ninduten, eta bortxatik ihes, lanik gabeko mundu librea itxuratzen hasi nintzen. Uste nuen oraino

lanaren inguruan eraikitzen ziren salbateoria sozio-politikoak desbideratzen zirela, lanari premia gehiegi emaiten zitzaiola, eta jendarte-ardatz arinago baten bilatzeko ordua zela, guzien onerako.

Karkaza zehargi bat nabaritu nuen.

– Eta amodioa?

– Zer amodioa? –ahoskatu nuen, azken hilabeteetako etxekanderea mintzo zitzaidala ohartuz. Maddiren manatzeko manerari ohiturik nintzen engoitik, eta lantoki hitsetik kanpoko gure harremanak adiskidekorrak ziren.

– Eta bai, amodioa –errepikatu zuen Maddik.

– Hortan dizügü bai lanik handiena! – gaineratu nion arraileriant

Gogo hutsez narraikan solasa segitu zuen Maddik, kurios:

– Zeren izenean horra zira?

– Ni?, be, basic-abertzale gisa nüzü.

– A bon? Abertzale zü?

– Te!

Dardara itsuak katestatu ninduen. Zigarreta biltzen nuelarik, behatzen ikara zaintsutik kondu-errendatu nintzen amiñi bat gaitziturik

nindagola, baina Maddi karkula kezkatietan mirestean, aitorpen neke eta zintzoaz ez nuen damutzeko arrazoinik. Nere «abertzaletasunaren» justifikatzeko tentaldia ukan nuen. Lotsatu nintzen zer gerta ere, ez bainuen behar bezalako pedigrerik.

– Ez düzü mereximentürik –jarraitzen zuen irriz Maddik.

– Eiki... –ihardestear nintzelarik, ohartu nintzen Maddi aldetik eskapatu zitzaidala, eta eztabaida horretan baratu zen.

Ametsaren altzoan luzatu nintzen. Galerietako Zübüak mugatzen zuen Peko Arrüaren puntari beha egon nintzen. Hamar bat gizon bat-bestearen ondotik heldu zirela begiztatu nuen. Herrokaren lehen lerroan Jaun Mera ezagutu nuen bere xingola trikolorea papoan tilingo, eta gibeletik susmatu herri-kontseilu osoa zetorrela, lekuko zapatagintzaren egoera latzaren aurkako protesta, ofizialtasun malgoz inguratzeko bezala. Hautetsi zenbaiten, bon ez erraiteko auxienen, ardo txarrak ubeldu ahorpegiak aztertzean, ixtanpatez Mauleko kontseilari saldoa eta Peko Arrüako arroilak izpirituan juntatu zitzaizkidan:

– Gazistak!

Ekiak baizik ez zituen nere hitzak ulertzen. Ekiak baizik ez baitzekien arroilaz arroila nolako bidegabekeriak plantatu ziren Xibero Gain honetan. Arroiletan arroilena, krudelena, Peko Arrüa zela nioelarik, jendaldea igitzen sumatu nuen, larsen soinuz nahasirik zen megafoniaren itzulian. Sohako batez zenbatu nituen hautetsiak, eta hauteskunde garaia zenez gero, hautagaiak, partikulazki alderdi sozialistekoek, politikaz bazkatzen hasirik irabazi kiloak: animaleko «profeitüak» egiten zituzten haiek, eskuinekoek bezain gottorrak, herrialdeak oro gosez eta menpez atxikiz. Oihu batzuren oihartzuna eskaini zigun megafoniak, eta perrexakeria antzuen xendra abandonatu nuen.

– Bat, bi, bat, bi, bon...

Bidegain SAko langileak beren izerdiz erroraino sosez hanpatu lantegiaren horma grisetan bizkartzen ziren, banderola ttumea eskuetan. Gehienek gaztaroko indar zati handia hor higatu zuen, zuzendaritza tiraniko baten peko. Egungo burragertaldiak ez zukeen mendekatuko makina

zaratatsuen artean jasan gorputzen urteetako xurgatze urria.

Egi horren agerpena beti harrigarri zitzaidan, nihauren kasua ere baitzen nolabait: jendeak umiliatze larrien gatik lana maite zuen, eta lanaren galtzea izigarrikeria bat zen, lanak jende bilakarazten gintuen sozietate batetan bizi ginelako. Horrela zen funtsean: armadak, gizona gizon hezten zuen; ezkontzak eta haurdunaldiek emaztea emazte,eta lanak jendea jende.

Eki leinuru goiztiarrek bihotza berazten zidaten eta, Bidegain SAko langileen gisa, triste aire nintzen: alabaina, eskubiderik ez zegoen jendearen mode horretan tratatzeko, ontsa martxan omen zen üzina baten zerratzeko, eta osagarrian ziren langile suharren karrikaratzeko.

CGTko ordezkariaren mintzaldiaren suak iraganera eraman ninduen: meategi erraldoietako greba-huelga-lanuzteak, euripe gordinetan asmatzen nituen, eta Zola-ren hitzen mamia berriz guretzen hasi nintzen. *Germinal* hitsegia baldin bazen, martxoaren seia Maulen eguzkiz itorik zabilan, eta miseria iragarria are latzago egiten zuen. Sindikatoen ordezkariek, gaurkoan, XIX.

mendeko langileak bil zitzazketen eleak deiadarkatzen zituzten, baina, lanaren mundua itxuraldaturik zegoenez, egungo egunean oihartzunik ez zutenak. Ezintasun dorpeaz jabetu nintzen, eta sindikatoek plan sozialen negoziatzeko eta baiesteko balio zutela erantsi nuen nerener. Hatsartzea zail zitzaidan: langabetu kronikoa nintzen ni ere.

Megafoniak karrika-üngürüaren has seinalea eman zuen: «Abia dadila manifestazionea, ixiltasunean, Xiberoak bizi behar duela aldarrikatzen duen banderolaren gibelean; hor diren beste elkarteer galdatzen diegu beren lemarik ez dezaten plazara, manifestazione honen xedeen ez desbideratzeko, eta segurtatzen ditugu behar orduetan borrokatzeko haien sahetsean giratekeela...».

Irriño bat marraztu nuen. Irriño berdina ikusi nuen hainbat jenderen ezpainetan, aurretik galdu ilusio baten antzera hegaldatzen. Ikastolen partetik, Bidegain SAren aldeko deia zabaldu zutenekin joan nintzen, nere ekitoltzeko murrutxoa kitatu ondoan.

– Alabadere...

– Zük erran...

– Hitza hitz! Jinen direa gero ikastolen süstengatzerat?

– Nola jakin?

Ekia. Irriñoa. Mauleko karriketan saldoan ibiltzeko plazer bekaitza. Hunkigarritasun zerbait. Ekia. Erran hitzerdien marruma.

– Zoinen goxo den!

– Hor zirea zü ere?

– Botzik niz zure kürütxatzeaz.

– Ontsa zira?

Ekia. Marruma. Makilaz bermatzen ziren langile xaharrak. Erretretatuak. Kazetalariak langileen ordezkariak elkarrizketatzen eta manifestalariak argazkitan hartzen. Ekia. Egarria. Zeren egarria zuzen? Garagardoaren ala Justiziarena? Zertan oinarritzen zen elkartasunaren ideia? Egarrian? Gosean? Langabezian ala lanean? Noiz? Begitartea ekiari oparitzen nion, galdeak jautzika buru zokoan zabilzkidalarik. Maddi aurkitu nuen, bisean-bisean, Gambetta karrikaren izkinan eta eskatu nion:

– Nola entelegatzen dün alkartarzüna hik?

– Orano pentsamentükan!

– Ba, gü gütün beti alkartarzün erakusle.

– Ago ixilik otoi!

Maddi urrundu zen, ezkerreko eskuaz agurra luzatuz:

– Sarri arte Amaia!

Bakar baino bakarrago sentitu nintzen. Dudaz betetzen zitzaidan gogoa. Elkartasuna biziki gaizki partekatua zela niolarik, aspaldiko lagun-min baten botza ezagutu nuen:

– Horra zira eneki, edan dezagün behin!

– Prefosta.

# –2–

Melkiorreneko aterbe epelaren ate idekitik begiztatzen genituen manifestalditik etxeratzen ziren jende multzoak. Jeff, eki-arrasean, sekulan baino ederrago kausitzen nuen; haren soaren orlegitasunak nerea kurutzatzen zuenero, ximiko baten laban-pikoa jasaiten nuen bihotzaren zolan. Ximikoarekin batera, elkartzearen airostasun arinaren oihartzuna bazebilen airean. Heinbat zoriontsu nintzen, eta Jeffen ezpainetarik ixurten ziren ele guziak xoraturik edaten edo behintzat hurrupatzen nituen.

Bizkitartean, murruan txintxetaturik zen «Euskaldunak eta Amerikak» saileko iragarkinari beha nindagon, amets batetan bezala: noiz bada, Jim Chee navajoar detektibearekilan ahalko nuen garagardoño bat partekatzen Arizonako zein Koloradoko ostatuetan? Galdeak galde zeuden, baina banekien, bestaldetik, nere keinka herrestan banuela halako barne-indar izigarria, ametsak egi bilakarazteko. Ez nintzen nehoiz

etsitzen. Jeff mintzo zitzaidan aspertu ezinean, irri xehea hitzekilan artekatuz:

– Ba dakizüa zer agitzen den heben gainti?

– Nola jakinen düt nik?

– Ba, Xiberoko espartingile handi batek, gisala, espartinak Asiatik jinarazten ditizü, eta kostalde hortan, nonbait, bere izena ezarten deiezü...

– Erran nahi düzü Xardoi markako espartina famatüak ez direla Maulen ekoiztürik?

– Ez etxit. Haboroxienak bai, bena...

– Bena zer?

– Bena merkatüaren asetzeko gaineratiko oskiak Bengladeshen josirik dütüzü.

– Zonbat pare?

– Hanitx. Zü detektibe beit zira, behar zünüke misterio hori argiztatü!

– Nik? Aski lan badüt aharratzen diren senaremazteen akamodarazten!

– Egizü enegatik, otoi, enegatik baizik.

– Gizunak, nolakoak zireen!

– Burrat bat pakatüko deizüt.

– Bai. Badakizü bihotza hunkitzen Jeff, biba zü.

Jeffen eskaerari zer moldez plantatuko nintzen gogazkatzen nuen jadanik. Ordea, misterio baten zilatzeko bidea ez zen hain erraza. Kostalde hartara joaitea komeniko zitzaidakeen, eta asmoz bederen hiriarekilako juntak ez ninduen batere bozkariatzen. Norbait ezagutzen nuen aduanetan lanean ari zena, eskolako adiskide ohi bat, eta zerbaitetara hel nindaikeen haren urratsetik. Asteburuetan Arbotira erretiratzen zen, eta tipus-tapasean erabaki nuen larunbat honetan Mailuxen bisitatzea, Donapauleko ikastolaren aldeko kontzertura abiatu baino lehen. Anartean, Melkiorrenea mugimenduz burzoratzen zen, eta Jeffek bere proletar esperientziak kondatzen zizkidan:

– Gazteago nintzalarik üzinan ari izan nüzü...

– Zü langile? Zortzi oren egünean? Nausi baten peko?

– Eta bai, oski-zola hurtzen.

– Bengladesh hürrün züzün orduan!

Irriz hasi nintzen. Jeffen begitarte tematsua ikustean, haatik, bortxaturik nintzen egia zenaren sinestera. Jeffen begi-izkinetako zimurrak kondatzean, lanaren higamenaren ondorioak ira-

kurri nituen. Mauleko jende frangok bazituzten gorputzean itzatuak, «egunean zortzi oren SMIcean» zelakoaren minen seinaleak: zenbait mainguka zabiltzan, zenbaitek bizkarra makur zuten, zenbaitek oraino behatzak ments zituzten, mekanika gosetiek irentsi haragi puskak. Nagusien aberastasunaren emendatzen iragan zituzten mendeak eta, zauritzean, sekuritate sozialak purruskak emaiten zizkieten, jendetasun apurra gal ez zezatentzat. Jeffen sohakoa bapatean alaitu zen, eta ez zidan beldurtzeko astirik utzi.

– Beste bat?

– Bai. Jeff, zerbait aitortü behar deizüt.

– A?

Jeffek Pasteur karrikaren luzea behakoaz izartu zuen, kezkaz beterik, azalpen bitxi eta lanjerosaren haiduruan bailitzan. Ausartu nintzen:

– Jeff, gogapena Amerikaz azten zitazüt...

– Amerikaz azten?

– Bai, hanko desertuetako errauts gorriz hantürik dütüt gaüak...

– Holako amentsik egiten ez düan eüskaldünik ez düzü!

Jeff so zegokidan tente, kaderan paralisiaturik bezala, eta nik gizona geroago hurbilago sentitzen nuen: amodio-deia bihurdikatuz Amerikak askatu zitzaizkidan, buru-muinetako zinegela zurbailak udalatuz.

Eki-sartzea ederra zen, Mauleko arrabotean Gazteluaren itzala hedatzen zelarik. Apirilean, menturaz, Aberri Egunaren karietara, hiriko langileek –helburu ezberdinaz bistan dena!– ikurrina jarriko zioten gainean. Maite nuen goizetan jeikitzean leihotik hiru koloreetako oihal zatiaren mirestea, haize ugarien menpeko. Gutariko bederarengan ihardokitzeko kemena sortzen zuela ziruditan. Ikurrina eta Jeff. Aspaldiko partez Jeff neukan parean.

– Non zinen azken denbora hotan?

– Lanean oizü. Zerentako?

– Ez zütüt ihon kürütxatü...

– Lotsa zinen ala?

– Ba, herri «jator, goxo eta puta» honetan zer nahi agitzen düzü.

– Lanean nintzala!

Jeffek alegeraki errepikatu zuena golkoan tematu zitzaidan. Erantzunak baketzen ninduen,

baina oroitzen nintzen Jeffen gisako hainbat lagun-minetaz. Gorderik zirela, ihesean nonbait, eta arratsetako irratietako berrietan hara, edo erahilik edo preso edo Hendaiako zein Koliurreko fronteretan estraditatuak, herri honetan jakin gabean; jakin gabeaz damutzen gero. Jeffi begira geratu nintzaion: Corto Maltese itxuratzen nuen, XX. mendeko local-heroe baten antzera. Jabaldu nintzen osoki. Ekiak bere eguneko balaken hondarrak eskaintzen zizkigun, eta laster ilunari oparituko zizkion laztanik eztienak. Garagardo godaletak hustu genituen. Solas antzuak iruten ari ginen.

– Zer plan düzü sarriko?

– Ba, Donapaleurat banoazü Su ta Garren entzüterat. Jiten zirea eneki?

– Ez, ni etxen egoiten nüzü haur-zain. Pentsa ezazü ene manüari!

– Baietz, ez düdala ahatzeko!

Melkiorrene aintzineko karrikaren kantoinean begi keinu batez agurtu ginen elkar, usaian bezala, noizbait nonbait berriz «topatuko» ginelako esperantzaz segur.

Mauleko herriko etxearen sahetsetik pasatu nintzen, bakarrik again. Ekia desagertzen ez zenez, baratze-publikoko jargia baten lasaitasunean, *Egunkaria* irakurtzea erabakirik nuen, eta ttoko-ttoko hara bideratu nintzen.

Gozo zitzaidan *Egunkaria*-ren euskaraz leitzea, herri aske batetako bizitzale arrunta nintzelako sentimenduak loditzen baitzidan itxaropena: lehenik eta behin horoskopa irensten nuen, gero zutabeak eta, finitzeko, gure lurrak emaiten bazekien informazio sail gottorra; adibidez: «Idigorasek korbata eta jaka jantzi zituen jauregiko atean bertan, eta berak kazetarien aurrean aitortu zuenez, 1970ean ezkondu zenean jantzi zuen azkenengo aldiz korbata». Horrelako berrien maitez nintzen egunkari euskaldunen irakurtzale amorratua.

Euskarazko «izparringi» baten on-gaitzetaz pentsatzen ari nintzelarik, tratur burrunba elkor bat nabaritu nuen. Harriturik nindagon, hirietan bekan baizik ez baitziren tratur herotsak hautemaiten. Itzulikatu nintzen azantza zetorren gunera: girofara argitan zeukan Zetor herbaildu eztulkariak. Meriaren ondoan zutik nindagolarik,

igitu ezinik, ohartu nintzen tratur xumea neri buruz heldu zela.

Parean gelditu zitzaidan. Tratur-gidariak lauetan hogeita zenbait urte zituzkeen. Neri so zegoen ttattit eta mutu. Zangoak giduñaren gainetik zalhuki altxatuz errondan, emeki-emeki jautsi zen burdinazko monturatik. Zetorrak oraino putar batzu eskaini zituen arrats apalean autoen asotsek betetzen zuten aireari. Gizonak zaku-zapiz inguratu mato bat hartu zuen ttottogiaren azpitik. Adinekoa txainkuka, matoan bermatuz, hurbildu zitzaidan. Goibel zirudien.

– Zer basarta!

– Manifestazionea ba züzün arrestirian.

– Beti bazter nahasten gazte horik! Amaia Ezpeldoi zirea?

– Bai, hura ta bera, zure zerbützüko!

– Lagüntü behar naüzü.

– Atx!

Gizonaren behakoa gogortu zen. Argi zegoen hitzak xekatzen zituela, bere «arazoa» ahal bezain laburki azaltzearren. Dudan zen, eta nik «atx!» ahoskatzean, gizon mainguaren trebezia

ez nuen biziki berotu. Halarik ere, segitu zuen ele bederaren artean ixiltasuna zamalkatuz:

– Ba dakizü, atzo bete dütüt lauetan hogeita bi bedats, eta orai bizitzea beno segürrago düt hiltzea.

– Otoi!

– Ütz nezazü mintzatzerat. Hogei urtetan izan nündüzün ezkontürik, eta ezkont-gaüan ezkapi zitazün andrea.

– Ezkapi? Eman düzü denbora haren txerka-ran hasteko!

– Ez düzü deüs entelegatzen...

Zainetan urtzen ari zen gizona. Geldialdi astun batetarik landa, gizona atrebitu zen:

– Ameztoi jauna nüzü. Amodiorik gabe ezkon-tzerat bortxatürik izan güntüzün.

– Ez düzü badezpada amodio beharrik ezkon-tzeko!

– Trüfa zite, trüfa, ikasiren düzü bai zük ere.

– Zer da ene egitekoa beraz?

– Emaztea atzaman indazüt.

Ameztoiek nere irri zozoa zinez poxolu zuen. Begitarte tzarrez janzten ari zen, eta bihotzean urrikia bezalako zerbait piztu zitzaidan:

– Parka jauna! Tzai burrat baten edaterat!

Matoaren punta ahurraz tinkatuz, neke bulta baten ondotik, gizonak nere urratsaren izaria hartu zuen, Europa ostatuan kokatu arte.

– Zer plazer zünüke?

– Ardu inkaü bat.

Godalet bana manatu nituen. Gizonaren besoak juntaturik ziren, eta haren esku maikatuer so egon nintzen. Behatz zainarten plegu bakoitzean bizitza baten penak sumatu nituzkeen. Bapatean Ameztoi elestan hasi zen:

– Erran neiozün Maienari ez züala axolarik, nik indarñi bat eginen nüala, hark ere aski zükeala, alkar maitatzeko, ba dakizü, ez ginela bakarrak, gure üdüriko senar-emazte hanitx ba zela üngürünetan, bortxaz, bena...

– Ezkont-gaüan joan zaizü. Ezkontürik ala ezkont-gabeak zineen?

– Ezkontürik bai prefosta! Apairütik landa, orotan txerkatü nizün, ez nizün ihon kausitzen, ertzo baten gisa nündüzün, ene bürüaz beste egiteko plantan. Apeza ordüz jin zitazün harmaren elkitzeko, Erromalat letera igorriko züala, ezkontzaren hausteko, eta emazte bat... Bena nik,

Maienaren maitatzeko xedea baizik ez nizün, geroztik gizon-bakotx nüzü, laborantxan, Sarrikota Pean, eta orai...

– Orai?

– Nahi nikezü jakin Maiena bizirik denez, non bizi izan den eta haurrik üken düanez, ene lürren eta etxauen hari üzteko, sos amiñi bat ere ba düt bazterturik...

– Ejerki! Zure ustez norat joan zen Maiena?

– Ba zizün küsüna bat manexean. Donapaleu kantüan.

– Xuberakoa? Donapaleun?

Eskualde hartakoa nintzen. Han Züberoari Xubera deitzen zioten eta ardura aurkitzen ziren xiberotarrak Amikuzen kolokatuak. Arratsean, gainera, hara bideratzeko lehia nuen, Su ta Garren konzertura, eta Ameztoiren lana «erraz» eraman nezakeen, aldi berean «etxean» izanez. Ameztoi galanta zen, eta urrikiaren ildotik sortu zitzaidan giza-gaizoaren laguntzeko tiria gorria.

– Akort! Maiena atzamanen deizüt, bizirik edo...

– ...hilik! Erradazu pürü non den ehortzirik.

– Bai.

– Pakatuko zütüt ausarki.

– Eiki –ahoskatu nueneko, gizona matoaren gainean zutiturik, trinkili-trankalaka karrikan trebes abiatua zen.

– Ba düzüa telefonarik? –gibeletik oihukatu nion.

– Ez! Ez deitazüet ezarri nahi, herriko plazarik hürrünegi nizalakoz, karioxe dela, eta...

– Bon, aste bat emadazü.

– Agian.

– Baietz gizon! Dagün neskenegünean! Ostatü honetan!

Inguru-mingururik gabe joan zen Meriaren aintzineko geldi-tokian zegoen bere Zetor daldarakariaren aldera. Ostatuko eguteran besoak balantzan geratu nintzen, bi «aferetaz» arduratzeko gomendioarekin. Mundu hau tristea zen: zenbaitetan pilik ez nuen eta noiztenka lanez gainezka. Egitekoer uztartuko nintzen ahal bezain bertan. Jeffenganako adiskidantzaz eta Ameztoi zaharraren urrikiz.

Zazpiak et’erdiak ziren. Ekia kukutua zen arras. Eginbeharrak zerrendatu nituen. Kontzertura joanen nintzen beraz, aspaldiko partez ez

bainintzen musika gogorra entzunez deplauki horditu. Kontzertua gaueko hameketan iragarria zenez, behialako eskolako adiskide ohia, Mailux, bisita nezakeen, hark agian espartin trafikoaz argituren ninduelako. Bidenabar, gozalabatzat neukan Xenkiri oparitxo baten erosteko denborarik banuenez galdezka nindagon.

Bai.

# –3–

Munduaren erdia irentsi zuen ilunaren ikarak, eta pozik nintzen adiskidemin nuen Jeffen arrakausitzeaz, sano eta salbo, eta erran-hitzen nostalgiaz hantzen ari nintzen jadanik. Hasperena artekatuz, etxetik pasaturik eta Peko Arrüako 76. zenbakiko nere bulegoan begirada agudo bat eginik, aspaldian hitzemana nuen bezala, bena sekulan jendetasunerako astirik ez hartzen, «beharra nuelako» hein batetan, Arbotin bizi ziren prima ejerren bisitatzera abiatu nintzen. Bulta hartan geldirik egonik, 4L-aren piztea neke zitzaidan. Hainbestenarekin, starterraren lagungoaz, ttuku-ttuku, Bildozeko zubira heldua nintzen kasik ohartu gabean.

Peko Arrüa maikatuaz pentsamendukan narraikan: gas «energiarik merkeena eta xahiena» iraganarazteko estakuruaz, Beirut itxura zeukan karrikak, zilaturik, harri metak denetan eta sustut errautsa, lohi bilakatzen zena euri erauntsi etengabeko egunetan. Itorrotzeko bide kurutzean nintzen, eta Peko Arrüa Xibero minartua-

ren ikurra zela iduritzen zitzaidan. Lantoki ohiko emazteen solasetaz oroitzen nintzen:

– Honartü ezina düzü! Herotsa! Lohia!

– Bai, oro zikintzen diküzüe.

Molde errenbes horretan jarraikitzen zuten elearen harilkatzen: amañi bat trabukatu zela, zangondoa bihurdikatu zuela, komertsantak kexu zirela, enfin, pleñi. Auherritzek aski aspertzen nindutenean, irri-airez eransten nakoten SIC erakundeak, jendeen harrapatzeko, aintzinatu arrazoinik baliosena:

– Bena, gasik xahiena, preziorik apalenean ükenen düzüe!

– Gasa? Ni oro eletrikan nüzü.

– Ageri düzü bai! –bukatzen nuen alegeraki, ikusiz gazodüka besteen lurretan sakatzearen alde ziren horien aurpegi haserretuak. Erratzaren giderra tinkatzen nuen behinekoz kontent, mendeku ttipia baldin bazen ere, halamoduzko mendekua zela nihauk errepikatuz.

Peko Arrüaren sarraskiak abandonatu nituen, autoko leihotik, argipe zurbailean, Amikuzeko soroetan nindabilala kontu-errendatu orduko. Martxo hastapen honetan urruneko munhoak

ote-liliz apainduak ziren, eta elgeetan hirotzen ari larrazkenean saskitraka artoski bildu artadiak.

Domintxine eta Behaxkane artean, Arbotirainoko bide zeharra hartu nuen Arberatzen gaindi. Lurraren usain beltza etortzen zitzaidan pentze malkarretarik, izpirituan halako zihikadura sentimendutsua landatuz. Udaberria zen. Eta konzertura joan aurretik Mailuxen bisitatzera nindoan botzik. Behialakoan nerran moldean, Mailuxekin hitzegitekoa nintzen, Mailuxen alaba nere goxalaba izaiteaz gain adiskidea, Hendaiako aduanetan ari zen lanean, eta Jeffen manuari atxikiz, harekin zeozer jakiten ahalko nukeen Xardoien asiatar espartin trafikoari buruz. Agian ez zidan sobera xehetasunik emango, esperantza ahula baldin banuen ere, hargatik.

Erregebide hertsia utzirik, xendra lurtatuan sartu nintzen. Autoa mokorretan punpe eta jautzika ari zitzaidan. Mailuxen etxeraino segitu nuen ordea. Gaua zen. Loiroan autoko moturra hil nuenerako, hauteman nituen zakur zaunka ozenak. Ez nintzen autotik jautsi. Bortatxeko argizaiola piztu zenean, urrats bat kanpora ausar-

tu nuen. Ezkaratzeko atea ideki zen emekiño-emekiño, eta Mailuxen ahotsa ezagutu nuen:

– Pintto! Mentsa hiza! Auxilik! Amaiuk!

Pinttoren haroa jabaldu zen. Ba ote zen Pintto baino xakur izen egokiagorik Euskal Herrian? Haur guziek kantu berdina lau haizeetara ikasten zutela konturatzean, Euskadik sortzen zuen batasunaren ametsetan urtu nintzen, eta Pinttoren balizko ausikiak ahantzirik, Mailuxen sahetsean nindagon agur eta pott-ka.

– Aspaldikoa! Nola hiz Mailux?

– Untsa nun ta hi?

– Ezinago ejerki, denbora eztia, bedatsa hor bertan, otea lili...

Mailuxek, elkartzearen zorionetik landa, agertu zuen begitarte xifrituaz jabetu nintzen. Mailux zur eta lur zegoen. Jaukitu zitzaidan:

– Behauna hortik hik?, heen ehiz Xuberan ddio!

– Bena?, zer derasan?

Sesitua nintzen. Xiberotar oraino «plaña» ez izan arren, harritzen nintzen, tipus-tapasean, nola hango hitzak ezpainetarik ihes zabilzkidan.

Mailuxen gandik beste erasia zarrasta bat jasan nuen:

– Mintza hadi gu bezela!

– Bo, bon, ehadila sutan iar, han nun uai, holaun no...

– Bena ehiz hangua!

– Nungua niz ordian?

Mututurik gelditu nintzen. «Gelditu» ahoskatzen nuen «eküratü» gogazkatzean. Beti horrela zen. Herri eta nortasun finkorik ez nuen: zenbaitentzat nere euskara «española» zen, besteentzat manexina nintzen, eta gaineratikoendako auhaitera joaiten nintzelako, mexprexu poxiño batekin, amikuztarra. Ahosabaian mintzairak nahastikatzen zitzaizkidan, eta haurtzarokoa galtzear nindagon. Mailuxek nere trenpu txarra susmatu eta jokoaren anpletzeko eran, goxoki segitu zuen:

– Eztiportaik, hizan lekukua hiz, haui, sar hadi...

Pinttok zaunka buluzi bat luzatu zuen, eta sukaldetik neskato baten deia nabaritu nuen:

– Ama! Xaui!

Mailuxen hatzetarik sukaldean aurkitu nintzen. Xenki, goxalaba, ikusi nuen alkian ttottoturik, biloak bustirik. Xenki ttattit zegoen. Hurbildu nintzaion, eta besapean harendako neraman oparia eskaini nion. Xenki irriz ari zen. Mailuxi galdegin nion arraileriant:

– Nun hatzeman hien hik izen drole hoi?

– Ba, baakin, ikastolako egutegian, eskualdun izena nahi ginakonan eman...

– Biba hi no! Aldi berian eskualdunaun ta pollita funtsian!

Mailux Xenkiren parean jarri zen. Buruan hazkan ari zen Xenki. Mailuxek orratz xehea eskuratu zuen eta bere alabaren kaskotik partzak eta zorriak ilkitzen zituen, lehenagoko amama pazientziaz beteen maneran. Xenki itzulikatu zitzaidan:

– Zorriketan ai ga...

– ...hun txu zorri zumeiten ukaitia!

– Auxilik otoi! Holako zikinkeriaik!

Mailuxen sohako motza mirestean, Xenki bozkariatzen zen. Haurra lapurtarrez elekatzen zela burutzen zitzaidalarik, oroitzen nintzen amamak ixtorio zaharrak kondatzen zizkigun

arratsaldeetaz. Mailuxen gisa, zorri bat katestatzen zuelarik, bi erhi lodien artean zartarazten zuen «mamua» txlist! arin bat eraginaraziz. Zorri gaixoaren zapartatze soinuaz gogoratzenago eta bihotza amodioz hantzenagotzen zitzaidan. Iduriz, Xenkik frango maite zuen «zorriketa» ekintza hori, baina mugitzeko paradarik ez zuen galtzen.

– Ago geldik haurra!

Ametsetarik jalgi ninduen Mailuxen botzak. Zorriak zorritegian utziz, golkoa trebesatu zidan egin behar nuen galderak:

– Bauna hik espartin trafik batetaz intzutia?

– Nun?

– Ba, heen geindi, Xiberoko Xardoi jaunak umen, Asiatik jinaazten tin, ta...

– Heenguak balire bezela saltzeko?

– Ba, hoi no, justo!

Mailuxek ez zion solasari segidarik eman eta hitza desbideratu zuen, Xenkiren biloak kasik banaka mirazkatuz.

– Soikon! Partzak! Animaliak tun! Harran zeit eateko!

Hits nintzen. Jakiteko nere lehen saioak hutsegin zuen. Hozkailuraturik bebi-jü fresko bat

apailatu nuen Mailuxen eta biendako. Anartean, Xenki kaderatik jautsia zen. Sukaldeko izkin orotara punpeka hasirik oihukatzen zuen:

– Dragoibolaren ikusteat gaki naiz ama!

– Bakiaman haurra!

Egongelara abiatu ziren ama-alabak, eta handik telebistaren burrunba sumatu nuen euskaraz. Eskuan natxikan edaria balantzatuz dudan nindagon. Nere durduzaren berria hedatu nion gelatik jin zen Mailuxi:

– Bena? Euskal Telebista errezebitzen bitun hik?

– Ba, ez untsa klaar bena. Haur emankizun hunak batine.

– Dragoibola...

Asiatar marrazki bizidunen arrakesta eta espartinak juntatu nituen pentsuan, eta telebistaren azantzer xerrent beha egoiten nintzelarik, arratseko bederatziak markatu zituen ordulariak. Pintto bere loeriatik xanpaka iratzarri zen. Parean jarri zitzaidan Mailux.

– Bihar Xenkiren aita heldu zaukun, iandia guekilan iaiterat!

– Xenkiren aita? Zien ezteietan nintunan! Etziztea elgarrekin bizi?

– Ba, ian urtiaz gioz behexiak gitun.

– Hummm... Ta aise ai hiza, hihaur, hola. alabaikin?

Mailuxek ez zidan ihardetsi. Hitza libratu zuen ordea:

– Jeanekin nun uai, ta Xenkik biziki maitein Jean.

– Hobe.

– Ta hi zertan hiz?

– Ba, ni, no, beti gabe!

– Gabe gabe? Ala nuizian behin?

– Gabe gabe.

Zintzurra larrantzi nuen. Aitorpen bortxatuaz doi bat gaitziturik nintzen. Egia zaila zen gehienetan. Irriño bat marratu zuten nere ezpainek.

– Holaun no!

– Hookio hiz ba hola, ehadila sekulan ezkunt.

– Orok bardin erraiten datane.

Ixilunea hedatu zen. Mailuxek aho-mihiak zalhu zituen:

– Enekin auhalduko hiz araiz?

Labera joan zen Mailux. Dupin bat atera zuen ilunpe epel hartarik.

– Eguerdiko undarrak jain tiun no!

Mahaina arraposki plantatu zuen Mailuxek. Telebistaren arramantzak airatzen ziren egongelatik. Zutitu nintzen eta harantz abiatu. Xenki lo zegoen kanapearen gainean, behatza ezpainetan eta ñuñu bat lepo-inguruan. Pott bat luzatu nion eta sukalderatu nintzen.

– Haurra loun...

– Haata-hunaat iiliaun eun guzian, akitiauken ba engoitik!

– Haurra no...

– Tia zan.

Dupinatik atun-saltsa gizkeitra bat hustu nuen azietara. Gosea zorrozten zidan jakiaren usainak. Denborarik galdu gabe, ogi puska baten laguntzaz, marmitako estimatuegiaren lehen ahotra irentsi nuen. Mailuxek basoa ardoz bete zidan bezain laster edan nuen egarriaren hiltzeko. Xardoi espartingilearen «afera» atsulutuki sartzekoa neukan solasean. Zerbait ikasi. Basoa arrunt idortu nuen.

– Oxtian, aipatuaunat, Xardoi ta espartinak, baakina zeit hortaz hik?

– Ba, bixtan dun!

– Ze?

– Eztinat dretxoik nihuri deusen salatzeko: secret professionnel!

– Baakinat ba hoi...

– Hi hizalakuan. Diila hilaatia, tren bat deskargatia izan dun, espartinez betia zunan...

– Kotxinos! untsaun ba, ddio?

– Ddio? Aturri errekak nik beno gehiau baakiela...

– Aturri errekak!

– Ta ba alo, iatzar hadi.

Aski kontent nintzen, aldi berean, heinean ordea, jakinahia eta gosea, biak aserik. Gasnari tiraka ari nintzen, naka-naka. Mailux oharturik bere etxeko mozkin karioa –Onetik ala Etorki?– ttipitzen ari zitzaiola, mahainetik brauki kendu zuèn gasnatxoa eta kafea ekarri. Gauari so nindagon leihotik.

– Aizuak e batun, hurran, etxe hutsa zunan hoi lehenau ez?

– Baha, justo, donostiar zumeitek eosia ine.

– Donostiarrek? Eskualdunek beaz?

– Pentsa! Usteuna donostiar guziak eskuaradunak diela?

Irriz karkailaka hasi zen Mailux, ametsetako lukainketan dilingo nintzela oraino errepikatuz, ez nintzela sekulan kanbiatuko eta horrek galduko ninduela betiko. Gure harrabotsekilan iratzartu zen Xenki, eta sukaldera jin, biloak nahas, matelak gorri, erhia murtxatuz, negar-zorian. Mailuxek altzoan hartu zuen.

– Xaui, Xenki...

Mailuxek haurra papo-ondoan tinki-tinkirik zeukan, kulunkan, sehaska kanta amoltsua abesten ziolarik:

*Buba buba ñiñaño*
*haurra duxu ñimiño...*

Bihotza uxkailtzear nuen, eta bihotzaren lekuratzeeko arkuxa pare gottorra beharrezkoa nukeela ohartzean, punpean, aulkitik altxatu nintzen.

– Banian, Mailux. Mertzi biziki!

– Eztun zerik. Haui ddio nahiunalaik...

– Jein nun ba.

Bihotza uxkailtzear eta begiak bustirik. Sentimentalegia nintzen. Ama-haurrak elkarren kontra mirestean adibidez, blanp! Bapatean, Iruñeko San Ferminetako goiz zurbail batez Bilbo ostatuan askariten ari ginela ikusiaz oroitu nintzen: atzerritarra zen ama, atzerritarra sei-zazpi urteko mutikoa. Ez nuen beren mintzaira konprenitzen: portugesa?, gailegoa?, arabiarra? Segur nintzen, halarik ere, ulertzen nuen exilioaren hizkuntza hura zela. Soa haietan itzaturik neukan, beraztasuna bihotzaren zolatik zintzur hegiraino igaiten zitzaidalarik. Zertarako ziren Iruñean goiztiri hartan? Lan bila ote ama? Senarrarengana hurbiltzen? Ez nekien. Iruñeatik eremu gris batetara bideratu zitzaidan gogoaren indarra, eta beste behin, jasanak bete zidan kaskoa: Baionako –Euskal Herrikoa ala Galizakoa? Zein?– geltokia utzi zuen hamalau hilabeteko neskatoko ttipiaren itxura arropa xuritan jaukitu zitzaidan, uholdearen gisa memoriaren itotzeko.

Amets gaiztotik ilki nintzen. Mailuxi galde motza egin nion:

– Heldu hiza sarri Su ta Garren intzuteat?

– Ba seurki, amak Xenki zaintzen datan ta...

Arropa xuritan apaindu hamalau hilabeteko neskatoaren behakoan, haren amarenean berdintsu, beldurraren dantza irakurtzen nuen, arropa xuria argiago eta ni, kaiertzean, ikaratiago. Mailuxen etxetik golkoa koropilaturik jalgi nintzen, tarrapataka.

– Sarridio beaz! –xoila ahoskatu nuen.

Ama-haur bakartiak oro nituen izpirituan biribilketa ankerrean: Iruñekoak, Baionakoak eta Auzterlitz geltokikoak; batez ere Baionakoa, hamalau hilabete, arropa xuritan, exilioaren bestaberrien karietara.

– Sarridio Mailux...

# –4–

Igandera iragan zen larunbata - ibiakoitza - neskenegüna eta, zergatik ez, zapatua deitu egun dudatsua, kasik nihaur ohartzeke. Donapauleko Airetik kiroldegitik soinu gogorrek aztoraturik brinbili-branbalaka ilki nintzen eta burdina zurizko eskaileretan jarri.

Ohitura genuen Donapauleko Ikastolak antolatzen zituen ekitaldietara hurbiltzeko, aldi berean, behinekoz, mundu nahasiaren herots zapaltzaleen ahanzteko eta euskarazko irakaskuntza bideratzen zutener lagungo etilikoaren eskaintzeko ilunpeko kontuarretan. Su ta Garren entzunari balio kultural handia emaiten nion une hartan, eta nerener erraiten nuen Donapauleko «plaza» zinezko katedrala zela rockarendako.

Kanpoan nindagon. Euria amoroski hasi zen goizeko bostak et’erdietan. Jende frangoren artean, garagardo botila xumea eskuetan, Mailux ikusi nuen pasatzen, heinbat ederra zen gizon baten gibeletik. Mailux ohartu zen, hor, ttottoturik nintzela. Bierra ttatta bat luzatu zidan.

– No. . .

– Asia nun gaixua! Ean ahala ean dinat.

Ez zuen nere ezetz harrigarriak mikorik ere Mailux gaitzitu, eta lehen hurrupa bailitzan, botila orlegia tutunetik behera hustu zukeen. Heinbat ederra zen gizona deitu zuen Mailuxek eskuahurraz, ezpainetako haguna kenduz:

– Jean! Haui! Heen diuk Amaia.

Jean zelakoak amiñi bat kexu iduri zuen, edo egiazki asperturik. Hitz enoatuz mintzatu zitzaidan:

– Gau hun. Eun hun! –eta Mailuxi zuzenduz, segitu zuen:– Ale! guazen etxeat!

Orduan, gehiagokorik gabe, Mailuxek bi pott pausatu zizkidan mateletan, eta agurka urrundu zen, haize hotz bustia eta kiroldegi barneko aire tepoa nahastekatzen ziren ate metalikoaren ondotik. Trenpua orekatu arte leku berean egoitea erabakia nuen. Bakardadearen ziztek ez nindezaten sobera zauri, pentsamenduketan urtu nintzen eta oroitu Su ta Garretik landako taldearen musika ez zela terriblea, baina dantza eginarazi zigula bederen, larunbata igande bihurtarazteraino.

Gaxu kausitu nuen tauladaren aintzinean, hits, soinularier so, hain hits. «Burrat» baten hartzera gomitatu nuen, eta aitortu zidan poxi bat trixte zela. Bitxi zen.

– Trixte? Zendako trixte?

– Eztainat.

– Eztun normal trixte izaitia gaur bezelako pestaatian!

– Hi aise bizi hiz.

– Baia? Haui dantzatzeat!

Baltsa bat zen. Aspalditik ez nuen baltsarik jastatu, eta plazer handiarekilan sartu ginen biak jendeen artean. Eskualde orotarik heltzen zitzaizkigun kuskakoak, tuñakoak, zango-punttak lehertzen zizkiguten, baina zenbait urratsen buruan Gaxuk irri bat marraztu zuen:

– Laket zatan dantza.

– Ageriun ba!

Inguratzen ari ginen, itzulikan, eta mundu hastirela biribil bilakatzen ari zitzaigun, hitzaren kraxturuak libratuz.

– Dila sei aste, eninan dantza bezik golkoan, Pettanekin!

– Pettanekin? ta nun dun Pettan hua uaikuan?

– Juan dun! Juan zatan no...

– Beste batekilan?

– Hoi ta bera...

Karkazailka hautsi zen Gaxu. Maite zukeen gizonaz abandonaturik begiak azkenean dirdiran zituen. Noiztenka mintzatzeak amodioak baino on haboro egiten zuela erraiten zidan. Banekien nik horrela zela, baina bihotza nekez askatzen zitzaidala ere bai. Ixiltzera hezirik izan nintzen.

Taldeak fandango xotil bat jo zuen. Dantzan ari ginenak errondan jarri ginen, eta Gaxuren sahetsean nindagon. Buruan bat-bi-hiru-lau kondatzen nuen bitartean, fandangoa benetako amorosen dantza zela neritzon, fandangoa, dantza mistikoa, otoitzaren eta eresiaren parekoa, zorion-oparia, irri lainoa edo gogo minartuen kontsolagarria. Fandangoa bururatzean, etenduraz nere sorbaldan pausatu zen Gaxu, eta ametsetarik jalgi gabe «arin-arin!» oihukatu genuen.

Egiaren erraiteko, arras dantzari traketsa nintzen; ordea, aurrera segitzen nuen, mundu madarikatuaren kontrako herra guziaz, nere gogoa-

ren husteko lehiaz. Hori baitzen dantzaren erromina: bizitzea zitaltzen ziguten jaidura txarren ezabatzeko saiakera. Arin-arina bukatu zen, eta besondoa kopetan izerdiaren lehortzeko iragaiten ari nintzelarik, Gaxu nere aldetik joana zela ikusirik, trixtura sakon bat sentitu nuen.

– ...berriz nihaur.

Zena zela, axolarik ez zuen. Slowaren ordua zen, eta mutikoek saldoka uzten zuten kontuarra, fandango-arin-arinetik landa hatsanga ziren nesken gomitatzeko. Paretik, gelditu gabe, ainitz lerratu zitzaizkidan, baina ez zuen garrantziarik, usaturik bainintzen: mutikoek, mozkor izanagatik, dantzarako neskarik «pollitenak» behar zituzten, eta nere trakako itsusiak bazterrean egoiten ziren. Bapatean kolpetxo bat nabaritu nuen bizkarrean, eta azterketaren idorra ukatuz itzulikatu nintzenean, Gaxu miretsi.

– Haui! Dantza dezaun ohono!

– Guk? Slow bat? Mentsa hiza?

– Zendako ez?

– Ba, funtsian...

Hastapenean bata bestetik aski urrun ginauden, hunkimen landerosen beldurrez. Gero...

hurbilago... hurranago... lotsa hiltzeko gunean... zola hezean biribilkatzen ziren hainbat bikoteren moldean. Gaxuren gorputza nerearen kontra sumatzean irus nintzen, beroa zen, eztia zen, tinki atxikitzen ninduen Gaxuk, baina ahalge kotsia hazten zitzaidan buruan. Neukan gaizkialdiaz ohartu zen Gaxu:

– Haui... araiz...

– Eheeemmm...

Gaxuren begier –urdinak...– itzaturik nituen nereak, eta musu baten haren ezpain eskainietan hegaldarazteko tiriaren aurkako borrokan higatu nintzen. Hasperenez hanpatu zen gaua, eta bezperan arra-itxuratu hamalau hilabeteko arropa xuritan jauntzi neskato ttipiaren argazkiak bete zidan kasko-zokoa. Musika hurria ixildu zen. Gaxu mintzatu zitzaidan, kaiertze zurbailen antsia apurtuz:

– Etxeat banian. Laneko nun sarri!

– Iandez laneko?

– Ba, no, eriak, iandez eo asteunez, beti eri tun!

– ...jein hiza Baionaat, E.H. Sukarra-ren intzuteat?

– Beharba.

– Korrika 8. kari!

– Bardin ba.

Jendartean urtu zen Gaxu. Piztu zidan amodio-desira aitortu gabean nindagon. Ordea, banekien, amodio nahikundea edo maitasun buluzia, norbaiten norberaren aldamenean begiratzeko ez zela aski estakuru ona. Hori baino grina handiagoak premiatzen zuela niolarik, ate ondoko eskaileretan jarririk nintzela, gizon bat behaztopatu zen nere zango desplegatuetan.

– Mozkor hoik beti poxulian!

Burua altxaturik Santxo ezagutu nuen. Haraintzineko Santxo. Eskolan elkarrekin ibiliak ginen. Santxok, Gaxuk eta hirurok BEPC etsamina hutsegin ginuen bakarrak izan ginen urte hartan. Santxo arras alegera zen gaurkoan.

– Ze aiz hor Amaia?

– Purgatzen! Freskatzen to!

– Laneat abian nun. Gixuneat, kamiunaakin!

– Sableka?

– Ez Mauleko üzina baten kundu...

Eskutik hartu ninduen Santxok, eta kiroldegiko zelaia zeharkatuz, kantonamenduko haur-

zaindegitako erabiltzen ziren EDFaren bulego ohietarik, plaza nagusira heldu ginen. Lantzurda ari zen. Euriaren hotzak hezurrak daldarazten zizkidan. Txortolen eroriari so nindagolarik, argiaren eta uraren batasuna eder zitzaidan unean besarkatu egin ninduen Santxok. Urrats bat egin nuen.

– Eztiat horren beharrik.

Bitxiki behatu zidan, mamu izigarri baten bisean-bisean bailitzan. Ausartu nintzen lehentxeago aipatuaren haria irutera, ez bainuen loegiteko gutiziarik, eta Aturri-hegiak ezagutzeko lehiaz nintzelako.

– Jiten ahal niza hiekin Gixuneat?

– Ez.

Are gogorrago bilakatu zen Santxoren aurpegia. Nabari zen gaiak arduratzen ninduela, baina nere helburuak ilun zegozkion, martxoko goiz garaiz hau bezain ilunak. Nik ere top-secret eremuak banituen. Gaitziturik utzi ninduen Santxoren ezetzak eta Gambetta karrikaren izkinan desagertu zen. Lantzer pean hiriko argiek zehargitzen zituzten euri ttanttak zenbatzen narraikan.

Donapaleun nintzen. Lantzurdaren adiskidego xoilean. Bestan barna kurutzatu jendeak oro beren zereginetara plantatuak bide ziren jadanik. Segurtasun izpi bat neukan: iraganaren aztaparretarik nehork ez zezakeen ihesegin, iraganak musu baten mikatzaz edo fandangoaren joriaz beti harrapatzen gintuen, «edozein herritako jaixetan».

Hobeko nuen, menturaz, iraganarekilako bake-agiriaren sinatzea, adibidez, Xardoien espartinen aferaren zilatzeko, baina exilioak eta ahanzmenak irresponsable moldatu ninduten. Konturatu gabe ordea, hiritik ilkitzen ari nintzen. Aiziritze aldeko Erreitiaren zubirantz bideratzen..., desbideratzen ote..., Maulera itzultzeko asmorik ez... zubi gainetik, ibai beltzari so geldi-tu nintzaion, ixiltasunak balakatzen zuen lantzurda eztiaren tenorean. Ura lohizu zetorren mendi-magal etsituetarik. Gauaren mututasunak, bizitzailez hustu herrialde hau hormaz kateastuko zuen laster.

Mintzatzen hasi nintzen. Nihaur. Nere buruarekin. Galdeak eta arrapostuak. Batez ere galdeak. Ele ments garratzak estekatu ninduen:

non ziren Gaxu?, Mailux?, Santxo?, Jeff? eta gaineratikoak? Non aditzak?, atzizkiak?, aurrizkiak? Zertarako ikasi nuen eleketan bada? Erabil nekezia bortitzegia zen..., basamortu erre ametsetan galdu nintzen. Bakardadea bederen kontatzekoa neukan. Jendeen aintzinean hitz bat ere ez zitzaidan ateratzen. Eta bakardadea metatzen zen, zikina karrika hegietan bezala. Egunkarian behin irakurri Euskal Herria 2010 taldearen aurriritziak bete zidan burua, gutarik bakoitzaren bakardadea eta ixiltasuna iragartzen zuela, desolazione eremua zen barnekalde honetan.

Nihaur mintzo nintzen, ama-hizkuntzaren soinu mikatz kasik ezabatuak berriz mihiperatzen saiatuz, Erreitiaren xuxurla etsitua lagun. Amikuzeko euskara bekan izan zen idatzia, ez zen gutitan baizik kantatzeko ibili, eta hatzik gabe zentzera zihoan, hatzik gabeko hemengo bizidunen gisa. Papoa lehertzen zidan mintzatzeko desirak. Aspaldiko partez. Txinako auzunean egunak eta egunak iraigaiten nituen hitzegin beharretik urrun. Oroitzen nintzen magasinetan sartzean, nere ahotsaren elkorraz harriturik nindagola frangotan. Ordea, sor-lekuan ez zen ber-

din, ez zuen hala izaiteko arrazoinik, ez nuen behintzat nik horrelakorik imajinatu... Gogapenetan leporaino itorik, ekialdetik zerumugan argi-hari bat agertu zen. Esperantza zena? Ala hatsaren hilurran usaina? Nola jakin?

Euriaren samurrak jabaldu ninduen. Petik gorako tranxiduraren mende nintzen. Hezur-muina zirikatzen zidan hotzak. Erreitiaren zubitik, Herriko Etxe aintzinetik, Joyeuse zubiraino banindoan. Zein zen Joyeuse errekaren euskarazko izena? Ez nekien, eta ainitzetan legez gauzen izenaz desjabeturik nindagon. Karrika hauetan arras analfabetoa nintzela onhartzekoa nukeen.

Zigarreta baten pizteko gutizia larria nuen Donapaleu zen ugarte ikaratian.

– Kotxinos... Nun dut taakua?

Galtzetako gibeleko sakeletan papera eta sua aurkitu nituen, tabako pilik ez haatik. Koloegioko ostatua arrunt idekiko zen, eta artean Krediagrikolaren atzeko aparkalekuko jargietan luzaturik pausatzea deliberatu nuen. Jendehasa nintzen berriz ere, lo egiteko tokirik ez zuen haietarik. Bustitasunetik aldentzeko aterberik ez

zen. Gerokoak geroko utziz, bilo ureztatuak kopetan zintzilik, begiak hertsi nituen.

Handik laster, jargietarik hurbil ziren sasietarik hasperenak aditu nituen. Hasperenak baino zurrunga arinak zirela aitortzekoa nuen. Norbait zegoen sasietan gaua higatzen. Gizon ala emazte? Zena zela, atsedenaldi laburraren ondotik, taberna zabaldu bezain agudo haratuko nintzen jakimina asetzeke. Ordea, sasiak igitu ziren. Bazterrak argi zeuden ordukoz. Eztul latzaren oihartzuna jin zitzaidan belarrietara. Trapuz beztitu amama xahar bat jalgi zen saparretarik. Nere jargi gogorrean bermatu nintzen. Amatxiak agurtu ninduen:

– Eun hun!

– Bai zurie parte hun! –ihardetsi nion jendetasuna zaintzen nuen altxor bakarra bailitzan.

Andreak zaku trastu bat zeraman besapean, eta ebasle bat iduri ihesari eman zen. Haren urratsari lotu nintzaion, eta Krediagrikolaren parean kausitu nuen.

– Zaude amiñaat emaztekia... Noat zu holako presa?

– Bakiamatan.

– Bauzia taakoik?

– Enun Maiena Pipero io ni...

– Etzitela kexa...

– Bakiamatan!

– Zaui kafeaten eateat enekin...

Karrikan trebes andrea nerekilan ostatura bideratzen susmatu nuen. Kolegioko ostatuaren jabea aixolbe desiratuaren bortak altxatzen ari zen une hartan. Doi bat mesfidant, «eskipaia ertzoa» sartzera utzi zuen.

Zazpietara heltzeko zenbait minutu eskas genituen. Lo gogoz nintzen. Ohe on batetan etzateko minez. Emazte xaharra ondoan neukan, ixilik, Erreitiaren zubigainean, itxuratu herria bezain ixil.

# –5–

Zerbitzariak denbora eman zuen gure aldera jiten. Hitzegin beharra neukan –fisiologikoki prefosta– eta horretarako ostatura nerekin etorri zen andereak ez zuen kemen handirik erakusten. Emazte xaharrak begitartea xifritua zukeen, eta nik besta-biharamonetakoa, hits bezain akitua. Taberna-jabeak irrati erdalduna piztu zuen, eta gu gabe zirauen munduarekilan kontaktuan jarri ginen: Jugoslavia ohiko gerla etnikoa, estadoko politika ustelkeria, bezperako futbol txapelgoaren emaitzak... Funtsezko deusik ez.

Emazteari so geratu nintzaion. Nere behako bermatsuaz arranguratzen hasi zen emaztea:

– Ze un eni so?

– Ze ai zinen sapar hoitan?

– Lo no!

– Nola?

– Ba, aspaldi huntan eztinat aterbeik nik!

– Kanpuan bizi zira? Uda ala negu?

– Ba... a... ha. Senarra hilez gioztik, iilki, hola un...

– Eske?

– Eske ez, xahartasuna hunkitzen dinat...

– Jesus!

– Senarra galdu nielaik, nausiak etxia saldu zinan. Ta ni...

– Bihotz-gabia!

– Hala un ba...

Emaztearen gorputzari lur eta hosto eihar usaina zarion. Bakardadearen usaina ote? Griñak baztertuz, irriari lekua utzi zion emazteak. Solasean ari zen gozoki amama hura: norbaiten alaba-ama-amona-ahizpa-arreba bide zenari amoltsuki begiratu nion.

– Nungua zira?

– Suhastin sortuik nun.

– Kartierrekoa zira ordian?

– Eiki.

Amamaren ezpainak alegeratu ziren brauki eta deblauki, lehen aldikoz igande goiz hartan, eta destinuaren ateri bultak airostu ninduen. Suhastikoa zen, nere gisako amikuztarra, ixiltasunari usatua, guti edukiagatik urgulutsu –batek erran lezake duin... baina askok ez– zela pentsatzen nuelarik, zerbitzaria hurbildu zitzaigun:

oihal zapia besogainean plegaturik, gure aldean pausatu zen, erraldoi.

– Bi kafe azkar otoi.

Zerbitzariak, herri auzokoa izan arren, ez konprenituarena egin zuen. Manu xehea errepikatu nuen:

– Bi kafe plazer bauzu.

Oraino ere ilun zitzaion galdea. Eta beti berak zirela irabazle niolarik nerener, erdarara makurtu nintzen gogoz kontra:

– De kafe siu ple.

Begiak dirdiran zituen zerbitzari mozkotak. Buruan min nuen, ahosabaia zuko, galtzale nintzen eta bapatean amamaren sohako tematsua kurutzatu nukeen:

– Ikusi un... bildu hu!

– Bai, ta nola! Bortxaz. Etziniena kafeik nahi zuke?

– Hai...

Karkazail eztiaz lehertu zen amama. Bizkitartean, banekien zerbitzariak nere mintzaira ulertzen zuela, bere aitamena zen hizkuntza, baina Donapaleun lanean ari zenez, ardietsi zuen ozka sozial handiaren marka sentiarazi behar zidan.

Kanpainetarik hirietara joaiten ziren «menperatu» guzien konportamendu normala zela ziruditan. Ordea kexu nintzen, euskaldunen artean erdaraz elestatzea, umiliazione baten moldean bizitzen bainuen. Jakinean, euskaldun baten erdaraz bortxaraztea mendeku zerbaiten seinalea zitekeen: gauza frangorendako frantsezko munduaren premia bagenuen, medikuetara edo administrazioetara bideratuz geroz. «Je suis...» ahoskatu bezain laster, gure borondatearen aurka errendarazten gintuzten, amor emanarazten ziguten.

Burutazione minberak ebakiz, zerbitzariak arrunt ekarri zizkigun kafeak kirets kausitu nituen. Sinominoka ari nintzen. Amamak ziminokeriak nabaritu zituen.

– Ze... eztea huna?

– Ba... bo...

– Gaitzituik bihiz... no... ago... zeit errain daunat...

Menpekotasunaren urrin basa zekarren kafe kikera djanpez hustu zuen emazteak. Hitzak bata-bestearen ondotik arraposki lerratzen zi-

tzaizkion. Harriturik aditzen nindagokion, herensugearen egiazko ipuina entzutean bezala.

– Soizan... bain hamar urte senarra hilez gioztik xuxen, enizala noitekin mintzatu... Botza nolakua niene ahatziik ninan eun artio... Frantsesik eztainat... ta heen, Donapaleun, futro, besteik eztaine! Ddestuka konpreiazten dinat behautana.

– Ezpitakizu frantsesik zuk?

– Eskolan enun iili ni! Apeentziake! Nun ikasiko nien? Eninan beharrik haurra, senarrak bazakinan... ta...

– Me nola iraun zu hameste urtez?

– Herrixketan, dendarigoan aizanez no!

Suhastiko amañia bastatzen, azpiltzen, josten, brodatzen itxuratzen nuen, eta Txinako auzunean nintzen garaietan ardura irakurri Odysseako Penelopak gogoa zeharkatu zidan. Behatz arrosadun argi-urrakoa ez zen egungo. Itakara itzultzeko zorion iragarriaz hantzen ari nintzelarik ordea, amamak segitu zuen:

– Heinbatetaat helduta, baakin no! Atxik bezate! Enun uai eskarniatuko.

– Ez, seurki, uai ez.

Ixiltasuna balakatu zuten mare nostrumeko uhin imajinatuek, kanpoa euriak tinkatzen zuela.

– Ta hik? –emazteak zarraikan–, nun ikasiun eskuara hoi?

– Ba, etxen, oizu...

– Xarmanki aiz! Bena eztun gue eskuara?

– Eskuara uzu!

Haserrea barneratzen saiatu nintzen:

– Baakizu, ahal denauzu! Etziu meheximendu handiik...

– Erran no, ta... nookin mintzo hiz hi?

– Be... xaharrekin, ta ikastoletaik ilkitzen dien illobekin... Ta, ene buriakin auxienetan, laun zumaitekine...

– Launak batun eskualdunak?

Gaxuri pentsatzen nuen –begi urdinak...–, Mailux eta Xenki bere alabari, Jeff eta Petteri, hegoaldeko adixkide zenbaiteri. Zenbaketa antzua moztu zidan amamak.

– Gañatikoekin?

– Ba, ebe, edo ixilik eoiten nuzu, edo frantsesez! Bena nahiau zit ixilik eon...

– Nik bezela ordian! Nahuna beste kafeat?

– Zendako ez?

– Manazan hik! Planttan aiz frantsesez!

Zerbitzaria helatu nuen. Kafearen arra-ekarteko keinua luzatu nion urrunetik, ele madarikatuak marmarikatzeko auherreziaz beterik. Ostalertsa hurrantu zitzaigun, eta kikerak aldatu zituen hitzik ezpainetaratu gabe. Hitzaren basamortuan lau kafeak pagatu nituen. Edari beltza hurrupatu zuen amamak. Zutitu zen. Ukondua hersatu nion.

– Errazu, nola uzu izena?

– Felixi.

Tabernako bortara zuzendu zen, engoitik Felixi Suhasti deit nezakeena. Goiza emetu zidan anderea kolegioko karrikaren kantuñean desagertzen segitu nuen ixtant batez. Bazen beraz hamar urte Suhastiko alabak muturik zirauela, eta euri zeharkalari pean, nixtan ziren bideetan oinez ibiltzen asmatzen nuenak golkoa udalatu zidala aitortzekoa nuen. Hamar urte hauetan gosez hamikaturik bazabilan dendari xotila. Urteak kasu honetan mendeak ziren. Zapalkuntza buluziaren mendeak. Denbora hobeagoen mentura hunkigarri eta helezin zitzaidan. Herriko as-

koren gisa, Felixi Suhastik erdarazko ehortzmeza jasaitekoa zukeen. Azken umiliazionea.

Buruhandi nintzen. Ostatuko moleskinezko jargietarik altxatzeko ez nuen indarrik higatu. Hor bertan loak hartuko ninduen. Euskaldun zaharren zorteaz gogapenetan urtu nintzen: idazle ezagun baten ahotik entzuna nuen, utzi behar zirela eskualdun zaharrak duinki hiltzera... Eta gero? Euskaldun berri askirik izanen zena, gorpuzten zen euskaldun zahar bakoitzaren ordezkatzeko? Hotzikarak bahitu ninduen: ordezkatze eta biderkatze saila nekeza zen, sustut euskarak haizea heinbat aurka zuen garaiotan.

Ostatuko leihoan kolpetxo bat aditu nuen bapatean. Kopeta goratu eta Gaxu miretsi nuen. Airoski sartu zen tabernaren barne beroan.

– Pariatzen dinat eztunala oono loik in?

– Xuxen hiz!

– Ageriun, ba...

– Ta hik? Lana fini?

– Bai, haui etxeat. Ala Mauleat behaun?

– Ago... Eztakinat... Horra nun hiekin no!

Aulkian bermatu nintzen. Bezperako dantzen ondorioz arranpa gogorrak sentitzen nituen gor-

putz osoan. Kanpoan euria jautsahala ari zen. Estalgirik ez nuen. Gaxuk parasola ideki zuen. Larderiazu bere sahetsera bilarazi ninduen, eta Aiziritze aldean zeukan apartamendura abiatu ginen. Karrikako ur zipoetan bustitzen nituen oskiak, baina hondarrean axolarik ez nuen, laster ohe batetan etzanik pausatuko bainintzen.

Gaxuren apartamendua ttipia zen, hargatik ongi nintzen hararatu orduko. Leihotik so geraturik, bitxikeria batek trebeskatu zidan kaskoa:

– Xiberoa ments düt.

Solas arraroak errepikatu nituen mentalki. Bihotzaldea mila puñalen maneran larrantzitzen zidaten: Xiberoa ments düt... Zer ments nuen xuxen Xiberoan? Galdeak galdetegi, euriak inguruko munho apalak, ahanzmenaren aintziraren hegi minartuaren pare, nola laztantzen zituen amiratzen nuen, pentsuaren lasaigarri.

Gibelean urrats arin bat nabaritu nuen. Beso kurutzatuak gerriondoan, eta Gaxuren ahotsa:

– Baakin, pentsatuinat... –Erraien sakonetik loa deika ari zitzaidan, baina Gaxuk segitzen zuen–: Pentsatuinat...

– Ehiza akitia hi?

– Entseladaat einen daunat.

Ez nekien zertaz pentsatzen ibili zen igande hastapena lanean iragan zuen Gaxu. Taulierraintzinekoaz apaindurik, armairuko ateak zabaldu zituen. Hozkailutik gasna atera zuen eta barazkiak.

– Izan oliominarria hik!

– Ozpinzu inen dinat!

– Baia? amoros hiza?

Irriz hasi zen Gaxu, entsalada pegartegi modernoan hostokatzen eta garbitzen zebilen artean. Bizia loratu zen kanpoko euri zaparrada eztiaren eta uraren ixuri gozoaren herotsak biltzen ziren sukaldean. Une horiek laket zitzaizkidan. Hurritasuna. Felixi Suhasti nuen gogoan.

– Ezautzen duna Felixi Suhasti hik?

– Zertaz ai hata?

– Ostatian hatzeman dinat Felixi, senarra hilez gioztik ixilik dauna.

– Erdiments hua! Bainat intzutia ba. Heen dea berriz?

– Ba, doaikezin.

Gaxuk esplikatu zidan, noiztenka Felixi deitzen nuena Donapaleuko karriketan batere ezti-

tasunik gabe «biltzen» zutela txakurrek eta eramaiten, ahal bezain urrun, nehork ez zekiela nora.

Loa tiraka ari zitzaidan. Gaxuren presentzia bero nabaritzen nuen. Galdegin zidan:

– Egia dea detektibe bilakatia hizala?

– Ta bai.

– Eakutsatan harma!

– Gaixua, eztinat harmaik eta holako tresnaik: enun amikanoa ni!

Pentsamenduka galdu zen neska. Ixtant baten buruan erran zidan:

– Laguntzale beharrik bauna?

– Normalki ez.

– Bainat astia. Bakantzetan nun uaitik haat.

Ixilik egon nintzen. Leihoan euriari beha nindagolarik, Gaxuren hurbiltasunak lotsarazten ninduen, eta dantzaroko trinkotasunaz oroitzean, sua piztu zitzaidan. Gehiegi eztabadatzeko gutizia ahulaz, ahoa ideki nuen:

– Ba, akort, haui enekin...

Entsalada prest zegoen. Sardeska bina ilki zituen Gaxuk eta biak ari ginen ontzitik freskura pusken hartzen. Neska kuriosari esplikatu nion

nola bi afera banituen argitzeko, usu ordea lanik gabe nintzela, baina kabaleak eta ahaide afruntatuak, denbora emanagatik beti harrapatzen nituela. Inkesten arteko epean sehi ibiltzen nintzela ere azaldu nion. Gaxu harritua zen. Noizean behin Gaxuren begien lurrertz urdinak kartzelatzen ninduen. Donapauleko herriko zeinuek eguerdi jo zuten, eta etendura latzak errerik bezala, erran nuen:

– Banian etzateat.

Gaxuk kafea beroarazi zuen eta ekaldean zeukan logelaraino zuzendu nintzen, ohe-gainean luzatzeko, beztiturik, zangoak balantzan. Laster jin zen Gaxu.

– Ehiza buluztene? –Gaxuren botz kexatu eztiak iratzarrarazi ninduen.

– Kuraiek eztinat!

– Jende moldian etzan hadi.

– Alaiina.

Zutitu nintzen. Alkoholaren urrin zitala zarioten tee-shirt eta galtzak mustupilkan metatu nituen lurrean, ohetik ahal bezain urrun, eta mihise artean kokatu nintzen, plazerrezko auhenka.

Doidoia sentitu nuen Gaxuren soina nerearen sahetsean plantatzen.

Lo seko erori nintzen.

# –6–

Amodio-minaren ziztak nabaritzen nituen oraindik astelehen goiz hartan, etengabeko atsedenaren besoetan iragan gauaren ondotik. Amodio-mina eta aho-sabaian eratxekirik kalzio gustua, hortzak banan-bana tuan itotzen bailitzaizkidan.

Gaxuren gibeletik sartu nintzen Donapauleko Herriko Etxeko paper zaharren gelan. Gaxuk han ezagutzen zuen Geraxinaren eske.

Alabaina, gosaltzean Gaxuk ukan zuen ideia azaldu zidan:

– Gauaz gauzaati pentsatuinat: Maiena Ameztoi hua Donapaleurat jin balinbazen, artxibetan nonbait agertuko zaukula.

– Eztun xede txarra.

– Geraxina elaireinat Herriko Etxean. Finizan kafea ta guazen.

Gizon gaizki iratzarri moskota baten erranen arabera, Geraxina aurkitu genuen, eta hark 1900tik 1930era arteko jende mugimenduen paperak eskaini zizkigun gogo onez. Formika xuriz-

ko mahain batetan jarri ginen, errauts idor ustelduzko zoko urrina zarioten inguraztien hostoak itzulikatzeko.

Pentsua ez nuen batere denborak horaildu eta higatu paperetan. Goizean amodio-minez eta umore txarrez jeiki nintzen. Amets batean, alabaina, amaren attatta jin zitzaidan bisitaz, hormatze garaietako jende mehakoil moldean: hark, omen, egunero ogixerra tipulaz eta baratxuriz torratzen eta irensten zuen gosaltzeko. Gaurkoan jaki ausarki ahoratzen genituen, eta amodio-minarekin batera buluztasun ohiaren lehia pizturik neukan. Baruraldi lehorra desir nukeen. Gaxuk kornflakesekilako askaria apailatzen zuen. Laserrezko irakurgailuan la solitude... la solitude errepikatzen zuen abeslariaren KDa ezarririk. Irririk gabe, koskan, dutxapetik ilkitzean jaukitu nintzaion:

– Ze un kantari meskil hoi? Baakia beden zer den solitude hura?

– Auxilik... Leo Ferre un! Frantses poeta haundia!

– Azkarrak tun! Ze balentriak! Ze espantiak!

– Bakiaman! Kanbiazan nahi baun!

KDak metaturik ziren izkinera joan nintzen, eta Su ta Gar taldearen lehena kausitu nuen, irakurgailuan sakatzeko:

– Hoi! Hoi! Musika! Poesia!

Kitarra eletrikoen orro metalikoek Donapauleko argitze euritsua urratzen zuten.

– Eztitun aski entzun heneun ala? –Gaxu so zegokidan.

– Barka zatan.

Nola esplikatuko nion bada neska gaizoari, Txinako auzunetik etxeratuz geroztik ez nuela erdarazko irrati, egunkari, musika izpirik jastatzeko ahalmen sikologikorik, halako «koloka» bat banuela erdara aditu orduko, trenen altzairuzko erroten azantz zizkolatsuak itzatzen zidala gogapena, zapaldua, exiliatua, menperatua, umiliatua, galdua sentitzen nintzela, ingelesa edo munduko ezein hizkuntza nahiago nuela iparraldeko latinkiaren ordez. Gaxu asaldatzear zegoen:

– Ta kultura unibertsala?

– Erdararen izenean, fitexko itzalak bezik ez gituzken!

– Mesten aiz undarra, askal hadi juan giten...

– Ogixerra, tipula, baratxuria...

– Zer derasan?

Ez zuen deus konprenitzen Gaxuk. Elasturi nahasia neukan. Kafe hutsez bete nuen kikera ezpainetaratuz, oroitu nintzen gure arbasoek guk baino ainitzez gutiagorekilan ihardun zutela, eta tipularen edo baratxuriaren garaien karatsera bihurtu beharko genukeela.

Pobreziaren usaina zuten Donapauleko Herriko Etxean zokoraturik ziren paperetan zerrendatu gizon-emazteek. Gaxuk 1915erainoko inguraztiak mirazkatzen zituen. Nik aldiz 1930erainokoak. Noizean behin biek buruak altxatzen genituen eta elkarri begira geratzen ginen. Lagunak hitza trenkatzen zuen:

– Bitxia hiz hale.

– Holaun no! Otea lili denian bezela: xaal eta xixtakor.

– Justo!

Irakurketan itotzen ginen gero, hurrengo ekaitzeraino. Bakoitzak bere herritik ezagunak zituen jendeen seinaleak karnet ttipi batetan finkatzen zituen: Beñat Bizkaigoiti, Xalbat Trouilh, eta mundu hau jadanik –beti goizegi!– utzia

zuten frango. Zenbaitekin, haur ginelarik oraino, erdara zer zen ez genekien denboretan, arto-xuriketan arizanak ginen. Justina Mentaberri ikusia genuen mesturaren kozinatzen, eta Graxiño huxtuka edo mimenezko zare xirikordatzen. Adindu haiek, «mundua abandonatu ziguten» haiek baino kuraia gehiagorekin moldatuko ginelako esperantzarekin. Baina zaila zen, batez ere astelehenetan, Munduak lehertzen gintuelakoan: ekiari hurbil gogoz hormatzen gindoazen. Hitza hartu nuen, Gaxuren arta amoltsua ebakiz:

– Nola hiltzen dien jendiak! Hoik oro biziik izanak tun! Ta juan!

– Guke goiz edo beant seituko tiun ba...

– Eiki, bena bihotz-kaañ hoi iziarri zatan!

– Bi dantza in ta hatsa emaiten diun!

– Fandango, arin-arin, zazpi jautziak, larrain... ta aio!

– Zahartzeko ideia un hik no!

– Ba, ba. Biake hiatuko itun ba nunbeit!

Irriaren oihartzun arinak trabatu zuen herriko etxeko gelako aire tepoa. Leihoetarik ageri zen euria, jautsahala, trebeska, bitretan kolpeka. Felixi Suhastik, agian, goiz busti honetan aterbe

bat atzeman zukeen, bestela, iduritzen zitzaidan haren gaixo hezur ahulek debruarenak eta asto beltzarenak pairatuko zituzketela. Amodioaz hanpatzen ari zen nere bihotza, bihotz-punpekarien kateko bihotz malgoa.

– Gaxu... ederra hiz.

Eleak ihes joan zitzaizkidan, eta zainetan jarri gabe, Gaxuk eleak hauteman eta onhartu zituen:

– Bitxia hiz hale, eztinat sekulan entzun ederra nintzala!

– Hummm...

Uhar bortitzagoak zaflastatu zuen Herriko Etxeko teilatua.

– Zeun?

– Barda arratsean, Santxok besarkatu nin.

– Harrigarriaun ala?

Gaxuren galdeari ihardesteko lotsaz nindagon. Ausartu nintzen ordea:

– Ian zaztan zazpi urte azken mosutik...

– Zazpi urte?

– Bai, ta drole zatan.

Paperek jan zuten Gaxuren aurpegia eta nihauren aitormenaren ahalgea. Hostoak itzulikatzen ziren, ebatsi ziguten historiaren abiadura

itxuratuz. Arbolak ginen, hegaztiak ginen, eta urteak zalu joan arau, nehori amodioaren erraiteko astirik gabe, hostoak eta lumak erortzen zitzaizkigun, higamena baizik ez baitzen bizitzea. Laster, hain laster idortzen ginen, saparen indarra ahultzen zen eta hondar arrabokarekin batean, gure balentriak hurrantzen ziren. Gaxuk ixiltasuna nahasi zuen:

– Hiltziain beldur hiza?

– Ba, amiñaat ba. Ta hi?

– Ez, bena hire uaiko beldurrak iziazten nin...

– Baia?

Ingurazti purruskatuetan kukutu nuen ikara.

1925 urtera heldu nintzen. Urtarrila. Otsaila. Martxoa. Urte hartan ere Amikuzeko oihaneko xarak iratze amilduz eta ote-liliz estaliak bide ziren. Nere aittitte orduan zendu zen, tipulaz eta baratxuriz torratu ogixerraz asetzen zen hura prezeski. Gisala, Caporal tabakoa erretzen zuen; mezatik landa emazteak erosten zion paketa bat astekal. Omen.

Apirila... primaberaren eztitasuna. Maiatza. Ekaina. 1925eko uztailaren 4an Maiena Ameztoiren lehen aipamena irakurri nuen, antzera luma

dudakorrez idatzi izkirioneaz. Barnea pilpilka ari zitzaidan.

– Haui Gaxu! Heen diun, Maiena Ameztoi.

Hor zegoen bai, Maiena Ameztoi, uztailaren 4an, Donapaleuko arropa-magasin batetan sehi, De Saint Martintarren kondu sartu zen egunean paperean etzana. Agiriak erakustera emaiten zigun Maiena Ameztoi 1902an sorturik zela Undureinen, 1925eko martxoaren 6an ezkontzeko, Aipazarro zen bere gazteko deitura galduz.

Aipazarrotarrak baziren oraino Bildozen eta haiekilan solastatzekoa genukeen, argi ziezaguten non egon zen Maiena martxoaren 6tik uztailaren 4a arteko epean. Agian Aipazarrotarretan Maienaren ahizpa edo anaia bat kausi genezakeen. Agiantzak agiantz, nere sorbaldan astunki pausatzen zen Gaxuk denda baten izena erakatsi zidan:

– «Oihal-xokua»: hoi Epaitegiaren Karrikan dun. Nola deitzen da uai?

– Badea beti maasin hoi?

– Ba, baun ba: nagon eztenez «Fripagogo»!

– Juain gitzain ikusteat; eztiun deuse hirriskatzen araiz!

– Ez duaikezin ez.

Elkarri so geratu ginen. Eguerdi laurden guti zen. Euria uharka ari zela ohartu ginen berriz, eta iduritu zitzaigun hargatik basamortu desolatuak zeharkatu genituela, errautsez gainditu inguraztiz ingurazti. Geraxine gure sahetsera jin zen.

– Hatzeman duzieia xekatzen zinutena?

– Ba... aantxü ba.

Gaxuren arrapostua airosa zen, eta Gaxu behatzean gogoratu nintzen Amikuzeko zenbait guneetan xiberotarren erako Ü zelakoa ahoskatzen zela. Gaxu Arrutarra zen eta ez nintzen soberarik harritu. Txinako auzunetan higatu memoria arra-pizten ari zitzaidan. Flashka, etxeratuz geroztik, memoriaren eskuratzeari ekiten nion emekiño-emekiño. Nere burutapenak moztu zituen Gaxuk, aitagureak, ote-sailak dalluz, epeiten zituzkeen bezain agudo.

– Guazen «Fripagogo»rat.

Geraxineri zuzendu zion ondotik:

– Iekia dea Epaitegiko Karrikako maasin hua eun?

– Ba... doaike.

Artxiboen zaindaria bihotzez eskertuz, gelaren hitsetik jalgi ginen. Herriko Etxeko eskailerak huts ziren, eta Gaxuk pott ahalgekor arina pausatu zidan hotzak kiribilkatu ezpainetan.

– Mentsaiza? Nok ikuse!

– Ta ze? Maite nun, maite hut, ta kito!

– Ba... funtsian.

Erdi etsitu, erdi zoriontsua askatuz aitzinatu nintzaion. Martxoko airea jastatzeko keinkan ginen jadanik. Ibiakoitz –beno, igande goizeko– dantza samurretan neukan izpiritua, eta karrikan tinki-tinki ibiltzen ginen, trebes jausten zen euriaren oldarrer ihardokitzeko bezala. Gorputzen daldarak nabariak ziren.

Errepublika Plazaren minean ohiko kamioneta urdiniluna begiztatu genuen, eta «txakurrak kanpora» oihukatzea debekatu genien gure ahoer. Frantses zerratu batetan mintzo ziren bi jandarma hurbildu zitzaizkigun.

– Vos papiers! Contrôle d’identité.

– Ana pa mizie!

– Jame ana di papie sür nu! –erantsi zien Gaxuk, debaldezko desafioan.

1986ko irailako Pasqua-ren Lege Basatien aurka protestatzeko nortasun agiriak erre genituela egia zen.

– Nom? Prénom? –jandarmetarik batek eske zarraikan–. Adresse? Nationalité?

– Pekotx. Gaxu –Gaxuk erantzun zuen–. Nafarroa Karrika 3. Apatrida.

– Ezpeldoi. Amaia –nik–. Peko Arrua 76. Apatrida.

– Apatrides? –jandarma kexatzen ari zen–. Vous vous moquez de moi?

Ixtorioa nola bukatuko zen xerrent beha ginauden. Erabakior nintzen:

– Mua ja süi pa franze. Ja plü di papie.

– Mua ozi non...

Azken hitzak xuxurlatu zituen Gaxuk, irriño eztiak begitartea edertzen ziolarik. Alabaina, frantses purrak izan bagina nonbait ageriko zen, eta ez genuen neholako alderantzizko seinalerik. Ordea, jandarmaren haserrearen jabaltzeko, heinbat presan ginelako gainera, konzezione bat egin genien:

– Ane franze danekzion!

– Danekzion? –gorritu zen gizona–. C’est quoi ça?

– Taka xerxe dan li diko!

– Dégagez!

Errepublika Plazatik kasik lasterka aldegin genuen. Epaitegiko Karrikaren puntan, puntaren puntan, gelditu ginen hatsaren hartzeko.

– Alabadere! –eskapatu zitzaidan.

– Putxas! –gehitu zuen Gaxuk.

Eta eguerdiko hamabi zeinukaldiak entzutean «kaxketadunekin» denborarik ez zela galdu behar geniolarik, «Fripagogo» dendaren bisean-bisean aurkitu ginen. Molde zaharreko magasin mutzutuaren itxura zeukan etxeak, modako jantziak saltzen zituen arren.

– Eztikene jendeik heen, zoko huntan!

– Gauza kariuak tine...

Dendako atea bulkatu nuen. Emazte panpox bat ari zen gona gris klasiko baten enseatzen, beste batek inguri-mingurinaka jujamendua emaiten ziolarik.

– Ja pran züila!

– Bian... maam.

Larruzko esku-zaku handi batetarik txekero luze eta horia ilki zuen gona grisa erosi zuenak. Eroslea zoriontsu ageri zen, ardura erosketaren ekintza berezian finkatzen baitzen XX. mendeko izakiaren nortasunaren egiazkotasuna. Gonaren jabe berria atera zen.

– Merzi Joset, banjur a kontez San Martin!

– Mankerre pa maaam...

Bapatean saltzalea –Joset alegia– gutaratu zen. Magasinaren herstea berantetsia zuela nabari zitzaion. Bortizki mintzatu zitzaigun, ikusiz ez ginela ez turixtak ez eta herriko burges sosez okituak. Gure moldeak arruntagoak ziren. Zakurren haiatzeko hizkuntza erabili zuen gurekilan:

– Ze nahuzie?

– De Saint Martin anderea zirea?

Begi zabalduegiekin so egon zitzaigun. Beldurrez urtzen hasi zen, jende-perexer mintzatzeko harrotasuna irentsiz.

– Ze nahuzie?

– De Saint Martin anderearekin solastatu.

– Uai?

– Ba, uai.

Emazteak dendako borta giltzatu zuen, eta hitzartea tinkatuz erran:

– Baniazu xeka, iuka!

Zangoek eman ahala joan zen Joset. Ez genuen ulertzen zerk sortzen zion horrelako lotsa: guk segurki, ez genukeen ulu bat ere izitaraziko...

# –7–

Ahoak idekirik ginaudelarik, gelaren gibelaldean tilingo ziren balusezko oihal pizuen atzealdean desagertu zen emaztea. Handik bospasei minutaren buruan andere lerden zainart bat agertu zitzaigun, irria zeken eta begiak hotz. Frantses aieru hertsi batez mintzo zen:

– Vous vouliez me rencontrer?

– Bai. Maam De Saint Martin zira?

– Ui...

Karkazail arin bat eskapatu zitzaion. Segitu zuen:

– Je ne parle en basque qu'à mes dobermans!

– Gu ere txakurrekin bezik ez gira frantsesez ari! –kikizaikatu zuen alegeraki Gaxuk.

De Saint Martin anderearen soak ez gintuen ikusten, so zehargiaz ezdeusak sentiarazteraino. Behakoaren uhargiak tristetzeko partez, desafiatzen gintukeen. Larriki hitzegin zion sehiari:

– Laissez-nous Joset!

Burua makurtuz joan zen Joset, obeditzearen hogenez arrunt konkortua. De Saint Martin ande-

rearen begiradan aberatsen «dignitatea» irakur genezakeen, baina ez genuen «dignitate» mota horren gutiziarik, baigenekien handitasun molde hori ttipiak zapalduz, mespretxatuz eta lehertuz ardietsia zela. Andereak sohakoaz nahi gintuen umiliatu.

Oroitu nintzen, eta zin negien geroxeago Gaxuri burutazio horren berri emanen niola, Rimbaud Jauna –frantses idazleetan maite nuen bakarra!– Harar-en nehork ez zuela ikusi, frangotan kurutzatua izan arren. Begiek egiaren erraiteko gogo zutena baino ez zuten «ikusten» eta Txinako auzuneko metroko arroiletako ñiñika hutsek trebesatu zidaten golkoa. Zenbaitetan Xiberoko karrika urratuetan bilatzen nituen begikliskak ihes zabilzkidan, bihotzean arroztasuna bermaraziz, papondoa larrutu arte. De Saint Martin anderearen parean ordea, ez nuen minik nabaritzen. Elea harilkatu zuen:

– Ze nahuzie?

Zintzurra karrakatu nuen:

– Maiena Ameztoi. Haren ondotik iilki gitzu. Ezautu uzia?

Ohartu nintzen Maiena Ameztoiren izena aipatzeak De Saint Martin anderearen urgulua maikatu zuela. Orduan hasi ziren anderearen begiak gure «ikusten».

– Maiena Ameztoi? Nor zizte ziek? Ze nahuzie?

Apalik ari zen haserrearen iruten. Euskaraz hitzegiteagatik dobermanen parekoak baldin baginen, oraingoan, ustegabetarik jende bihurtu gintuen De Saint Martin anderearen arrangura bipilak.

– Zendako? Maiena Ameztoi? Utzazie bakian trixte-paket hua!

– Ze pasatu da? –galdegin nuen.

– Bakiamakuzie! –kexuaz berotzen eta plegatzen ari zen anderearen behialako kalipua.

Gaxu eta biok, harriturik bezala, elkarri so ginauden, eta elestan segitzeko kemena nigan kausitzeko, Gaxuren ezpainen eztitasunaz amets labur bat egin nuen. Pariatzekoa zen Gaxuren gogoetaldiak ildo beretik zihoatzila.

– Haan ondotik iilki giela; behaiziu hatzeman, biziik edo hilik.

– Ailitza hilik!

– Nola?

– Hilik balitz ahalgeizungarri hua!

Une hartan Maiena Ameztoirenganako gorroto bereziaz gain, De Saint Martin andere tindatuegiaren aurpegia jende xehearekilako herra orokorrez hantzen zen. Matelako plegu eta ximurrak zilatzen ari zitzaizkion. Halarik ere, De Saint Martin anderea kontu-errendatu zen, hirabidean urrunegi bazoala «kanpotarren aintzinean».

– Barka, jmenport!

– Lasai –artekatu zuen Gaxuk–. Nahiziu jakin, heen lanin onduan noat juan den!

– Be senarrak xekatzen bitu –argitu nuen, Gaxuren hitz pausatuetarik landa.

De Saint Martin andereak aulki bat hurbildu zuen, eta zango-sagar fin luzeak agertuz, guri beha jarri zen. Akitua iduri zuen.

– Gue txian ahalgia sartu zien.

Ixiltasunaren eremua ez genuen trabatu. Oihal berri usainak kilikatzen zizkigun sudur mazelak, eta usainak hogeita bost urte lehenagoko Mari dendari xaharraren itzalpera eraman ninduen. Maiena Suhastiren gisa, mekanika urinez-tatuarekin josten zituen, mahainpean zegoen

burdinatxoa aztalaz emekiño zamalkatuz, etxezetxe, behar ziren apaindurak oro. Orratzetik harira, oroitzapenaren ixuria idortuz, andereaz ohartu nintzen. Arraposki segitzen zuen:

– Ba, ahalgia, baakizie duaike.

– Ez...

– Ba, aita ta hua, Maiena Ameztoi zirtzil hua, buhamesa zorritsua!

– Otoi!

– Jendehasa, ezdeusa, aitain inganiua.

– Noat juan da gio?

– Amak errain dautzie. Zaite sarri zazpietako gue jaurreirat!

– Ba jein gitzu.

– Uai, unezazie, zuazte heentik!

Nigarrez hipaka urtu zen De Saint Martin anderea. Hipa bakoitzaren artean konprenitzen ez genituen hitzak tartekatzen zituen:

– Anei erdi bat, nunbeit, bautala, anei bat, zikina!

Braustan jali ginen magasinetik, handikiaren penaren partekatzeko indar mikorik egiten saiatu gabe. Alabaina, zorigaitz hori ez zen gurea, eta bestelako ahalgeak jasan genituzkeen ttipi-

ttipitik: euskaraz baizik ez jakitean, erdaraz jadanik barra-barra ari ziren haurrenganik; geroxeago, gure bihotzak euskalduntzat jotzen hasi ginelarik –eta ez ginen oraino egunkariek agertzen zizkiguten «euskaltzale abertzale suharrak»–, Aresti eta Axularren ordez, estimu auxeago C. Jerome edo François Valeryri emaiten zuten gazteengandik; berantago ere, euskal munduan lanerdiak aurkitzen genituelarik, apartamenduak lortzeko nekeziak zerrendatzean: De Saint Martin anderearen trakako jabeek ihardesten ziguten:

– Ez, ezin dut.

– Zendako? Paga dezaket!

– Bai, baina, badakizu, sotoetan bonbak gordetzen dituztelako fama dute eskualdunek, eta nik ez dut ixtoriorik nahi he!

– Tanpi, ze nahuzu, hola bita.

Lapurtar guziak edozein estakuruz lapurrak zirela pentsatuz, kostaldeko hiri handietako zubipe majikoetan aterbea bilatzeko apailatzen ginen sikologikoki, squatt bat kausitu artean. Azkenean, hilabete sariaren hiru laurdenak irensten zituen etxebizitza harrapatzen genuen, eta

prezio horretan, noski, jabeek ez ziguten gehiagokorik eskatzen.

Gaxuren ukondoa hunki nuen:

– Debria un ba hale...

– Ze?

– Ba, gue lurrian gitun, ta demendreneko dretxoik eztiun. Lanain hatzemaitia eztun aise. Apartamendiak: pentsa! Eskuaraz mintzo gielaik begi tzarrez so zauzkun. Beharre larria eztiun beltx!

– Laket ninduken ni, larria beltx...

– Seur nun ba!

– Ta zer dion De Saint Martin anderiaz.

– Eztainat bate.

De Saint Martin «Fripagogo»ko jabearen arabera, ahalgea etxean sartu zuen Maiena Ameztoiek, haren aitarekilan amodiotan ibili zelako. Baina dudan nindagon: ordu haietan nagusia, sustut, mediku ospetsua baldin bazen, nagusi zen, horrek erran nahi baitzuen «etxeko» gauzen eta gauza bezala konsideratuak ziren mutilsehien jaun-eta-jabe zela. Harremana, menturaz, Maienarentzat bortxazkoa izan zen. Banuen gisa bereko ixtorio frangoren entzutea, eta ez

nintzen aperentziarik ere harritzen, hargatik haundi-maundien joko likitsa higuingarri zitzaidan.

Maienak lan bat aurkitu zuen, eta zeozertarako prest zen lanaren atxikitzeko, gaurko eguneko xomaje garaietako fabriketako langileen maneran funtsean. Ardura, aditzen nuen, bulegogarbiketan nindabilalarik adibidez, gazte bat laneko tenoreen higamen astunaz pleiñitzen zelarik, kolega zohituagoen ahotik eskapatzen:

– Kuntent izan hadi oono lana bitun!

Halatan, Maiena Ameztoiren urteetan nola, zoriontasun postmodernoen erronkan kokatzekoa zen, lanean, salbaiki, lege-sozial –pribilegioak ote?– ororen kontra izorratua izaiteko eskubidea. Eta zirudienez, Maiena Ameztoiek tratamendu berdina pairatu zuen De Saint Martintarren zerbitzuan.

Gogoeta hitsetan galtzen nintzen Donapaleuko Errepublika Plazara itzuli ginelarik. Oren bata zen. Gaxuren behakoa nerean bermatu zen, eta amodio uhinak sentitu nituen erraietarik ezpainetara igaiten.

– Gaxu...

– Gose nun. Guazen baskaiteat!

Thiers karrikan gora abiatu ginen, liburudendan *Egunkaria* erosirik. Merkatu-idekia trebeskatu genuen eta Txotxenean gerizatu genituen galdeak, galdeak bezainat desirak. Kanpoan euria ari zen, eta behingoz euri usain urdinaz buluzi ginen mahainean jarri orduko. Turista presatuak ez ginela ageri zenez, menuaren manatzeko unea berant jin zitzaigun. Hondarrean sehia hurbildu zen, eta aurpegi koska erakutsiz hartu zuen gure ordena: salda, stek-frit, gasna. Zinez eskubiderik gabekoak ginen euskaldunak. Neska urrundu zelarik, Gaxuk xurxurlatzen zuen ahaidea ezagutu nuen, eta ahaidearen hitzak marmarikatzeari ekin nion:

*sept 77*

*Port Elizabeth weather find*

*It was business as usual*

*In the police room 619*

Gaxu, botz ozenez kantan hasi zen:

– Yilha Moja, Yilha Moja, The man is dead...

– ...and the eyes of the world are watching now, watching now!

Murmurio elkorrak jabaldu ziren. Bagenekien. Argi zegoen. Gure kasuan, mundua aurka geneukan; herria husten, hausten, baztertzen zuten; arrotz komisaldegietarik gorputzak hilotz ubel ilkitzen ziren, kartzeletan lagunak higatzen zituzten, «eyes of the world» zelakotik urrun; zenduko ginen –halakoa baitzuten helburua– lekukorik gabe.

– Bazauna? Ateka gaitzetik jaliko girea noizbeit?

Gaxuk, ixilik, ahurra ahurtegi epel bilakarazi zidan. Eskuak berezi genituen, zerbitzariak, zakurren moldean kasik, salda mahainean pausatu zigularik.

– Ikusiun! Zinez peko errekan gitun gio!

– Nahio niken gosez hil –erantsi zuen Gaxuk, jatekoaz eskerkaitz. Bakea desir nuen.

– Jazan, otoi.

Azietak goilaretraka hurriz garbitu genituen. Gaxuren hurrupa herotsek lasaitzen zidaten gogoa. Zerbitzaria kontuar izkinan zegoen guri beha. Stek-fritak ekarri zizkigunean, amore emanik zuela iduri zuen, eta españolez hurrandu zitzaigun:

– Hablo kaztellano! Kieren uztedez kafe dezpuez?

Ahoa bete hortz geratu ginen. Hirurak kantonamendu berdinekoak ginen sortzez, agian eskolarako autobusetan elkarrekin ibiliak, edo katiximan; eta ainitzentzat eskualdun izaitea español izaitea zelako ustea hedatua zela pentsatzean tristetu nintzen.

– Klaro –erantzun nion, ongikasiaren begirada zainduz.

Ordea itsasoak nahasten zitzaizkidan golkoan, eta esperantza sinonimoka nabaritzen nuen. Gaxu analisi sozio-ekonomiko luzean lerratu zen, eta azkenean neskaren ondorioen baiezteko aukera baizik ez zitzaidan geratzen. Egunkaria ideki nuen: horoskopoak bizitzen genuenaren arrazoina azaldu zidan, ariestarren zeinupean: «Badakizu, negar egiten ez duenak... Baina zeinen putzu handia egin duzun!». Gaxuri galdetu nion:

– Ta hi? Ze zeinukua hiz?

– Aries.

– Ontsa akomaatuko itun beaz!

– Eiki.

Gaxu dudakor nakusan. Zerbitzariak gure segretua zilaturik, begitarte airosagoa erakutsi zigun, kafearekin eta konduarekin jin zelarik.

– Ze puede pagar kon pezetaz!

– Ago...

Gaxuk, moltsatik –Kaietenea ostatuko urtatseko oparia– ilki zituen hegoaldeko ospakizunen batetan bildu *lizardi*-ak:

– Ta? Hookin paatzen ahal duta?

– Ja voy a mandar a patran...

Benetako *lizardi* faltsua eskuetan abiatu zen kozinetara nagusiaren galdezkatzera. Alegerarazko zurrunbiloan urtzen ari ginen, gogoratuz Lizardik Donapaleurainoko bidaia konplitu zuenean orotan euskarazko arrapostuak ardietsi zituela. Lizardi gisutu zen, eta engoitik, egoera laster aldatu zitzaigula geniolarik, zerbitzariaren ahorpegi penatuaren jakile ginen.

– Lo ziento, pero ezo no bale!

– Atx! Ta Diderot bat emaiten baaunat?

Berrehun liberako biletea luzatu zion Gaxuk, eta arrotza bailitzan miazkatu ondoan, erran zuen:

– Bien, zi, graziaz!

– Trankila tia! –gaineratu nuen, eta ostatutik atera ginen, zerbitzaria orain gure aitzinean, kasik belauniko, «hazta luego» ozenka ari zitzaigula.

Hedoi grisetarik euria uharka ixurtzen zen griñatsu, kezketan blai. Merkatu-idekiaren parean ginauden jadanik, arratsaldeko lanaren partekatzen.

– Ni banian Sarrikota-Perat, Ameztoi jaunaren elekatzerat, ta hi Undureinerat Aipazarrotarrik badenez ikusteat!

– Seiak et’erdietan biltzen gitun Kenediinian...

– Untsa!

Gaxuk autoz eraman ninduen kiroldegiko aparkalekuraino, eta han, salbamenduaren bidea zabalduz, musu iheskorra trukatu genuen.

– Haui tenoez gio! –oihukatu zidan Gaxuk, ezagutzen ninduelako, eta Xiberoan eguneroko-tzen hasiz geroztik orena ahitzen ikasia nuela bazekienez, 4L-ko atea hersten nindagolarik.

Herria larrutzen ziguten, hartarako, larruaren desira pizten zitzaidan bihotz mineralean.

# –8–

Xiberoalat abian nintzen. Musu hezearen ausikiaz oroitu nahi nuen luzaz, eta arto-zango hirotuak mirestean irustasunaren aitortzekotan nintzen. Haize hegoak bailakatu azken urriaz geroztik ez nukeen gisa horretako arintasunik gozatu. Gaxu laguntzale prestua zen eta elkarrekilan laket ginen. Autoan «Oi Zuberoa» xuxurlatzen nuen, begi urdinen gutizia hasperen bakoitzean bermaraziz. Ordea, mendi lerro misteriotsuetarik urrun nindagon, Gaxurekin hitzartu bezala Sarrikota-Pean gelditzekoa bainintzen.

Sarrikota-Pea zinezko muga zen: hor, gaineratiko lekuetan euria zenean, ekia agertzen zen zeruen jabe edo, alderantziz, lantzerra hasten zen eztiro, edo Euskadi Irratiko «Ordu Txikietan» emankizunaren oihartzunak desagertzen ziren, Daniren solaskideak huts erraldoira lerraraziz. Egin Irratiko «Igo bolumena» marmarika uhintsua bihurtzen zen hor, Sarrikota-Peko mugan, eta Xiberoko Botza alde guzietarik entzuten.

Haraintzineko igande goiz batetako Maiteren sukaltarau bereziaz –intzaur saltsa ote?– gogoratu nintzeneko, Sarrikota-Peko plaza grisean nindagon. Ezantza saltokian aterbetu nintzen.

– Ameztoi Jaunaren etxea? Nondik?

– Arrüeko hegian düzü, exker har ezazü eta gero münho batetan agertüko zaizü.

– Esker mila anderea, banoazü arrunt!

Fiat garajea baino lehentxeago zegoen bidekurutzunean ezker bihurtu nintzen, eta banindoan, duda menperatzen saiatuz. Bizkitartean, Gaxuk ber gauza egitekoa zuen Undureinen eta sarri biltzekoak ginen berrien batzeko.

Berantetsia baizik ez nuen une hura. Anartean, atertu zuen, eta autoko leihoa apaldurik, bedats - udaberri - primaderako bazter usantsuetan itotzear nintzen. Mendi umiletan ote-lili eremuak hedatzen ziren, tustaka, inguruaren alaitzeko moldean. Grisa, herriko plazakoa adibidez, horiarekin ontsa ezkontzen zen. Denbora banuen. 4L-a geldiarazi nuen ipular batetan, eta zigarreta bildurik emekiño-emekiño behatz artean erre zitzaidala konturatu nintzen. Ote-lilien usaina itxuratzen narraikan, eta bihotzeko senti-

mendurik garratzenaren usaina zitekeela susmatzen nuen. Ortze apainduak eder zitzaizkidan.

Hilabete zenbaitez gazteago nintzelarik, zerupe iheskor berdinaren gerizan, Sukozeko hilerrian azaroa harilkatu zuten harrabots nahasietaz bete zitzaidan burua: orduan, begiak altxatzean, kurloak amiratu nituen, hegoalderako ibilaldi maitagarrian zuzenka hegaldatzen. Martxutatik Behauzerantz zihoatzin karrankalari, eta hotza hotzari teman zabilala, sinetsi nuen ni ere airez joan nindadikeela hegorantz.

Hego ametsak uxatuz, bideari arralotu nintzaion. Bost kilometra banituen jadanik konplituri k. Eskuinaldean zen etxe muntto batetara heldu nintzen. Han galdegin nuen Ameztoi Jaunaren funtsetarainoko norabidea. Andere lotsati batek ihardetsi zidan:

– Ane pa d’izi.

– Redios –ahoskatu nuen xoilik, autoan kokatuz, kexuaren kexuaz.

Auto kaxkarra patarretan nekatzen zen, eztulka hasten eta moturra berotzen zitzaion. Desesperatzekoa bazen. Baina, zail baldin bazen zail, ez nintzen etsitzen. Sekulan. Arratseko

amodioa hitzemanik baitzen. Arrüeko norantzean itzaturik, maldatxo baten gainean, etxettipitto-aitzin xuri bat, lau haitzondoren erdian, iturriño bat... Hura zela segur nintzen. Lobiroan utzi nuen lohiztatu 4L gaixoa.

Otarrez setiaturik zen Ameztoiren etxaldea, eta zakurrak zaunka gorrian, muturrean behera tua zeriola, etxeko nagusiari iragarri zion nere hurbiltzea. Mainkuka jin zen atarira. Maulen ikusi nion matoa zeraman eskuan. Irriño baten marra irakurri nion ezpainetan.

– Arrestiri hon, begi-beltx!

– Bai zuri ere parte hon jauna!

Borta doi-zabaldutik behiak marrakaz aditu nituen. Barrukuaren aire tepoa jasan nuen aldi berean. Gogaidura keinua marrazkitu nukeen, ezen Ameztoiek segidan sukaldera gomitatu baininduen.

– Tzai.

– Horra nüzü.

Lobiroan metatzen ziren laborantxako zernahi tresna hutsal: dailuak, golde nabar herdoilduak, aheak, belar itzultzeko eta nailkatzeko mekanikak, burdinazko errotekilako orgak dimuñ

hautsiekilan, uztarriak eta kraxturuak tilingo, pierrotak, ur geldo ustelez bete askak, aitzur-pikotak... Zerrenda luza nezakeen oraino, ez baninduten arnes majiko horiek guziek nere haurzaroko «etxera» pentsamenduz eraman. Hor zeuden lanabes bakoitza zertarako zen banekien, eta gainean ziztaka ari zitzaien herdoilak gure mendea ere kateastatu zuela aitortzekotan nintzen. Ameztoi jauna, nuen begiruneaz harritu zen.

– Zer düzü bazart horri hola so?

– Destera higatua ere etxeki duzu?

– Eta bai, norat urtukiko nüan bada...

Egiaz, ez nintzen arraposturen baten emaiteko gai, eta kasik Ameztoi jauna eskertzear nindagon, oro artoski zaindu zituelako. Maulen sortuko zen Ondarearen Etxean lekutuko zirena tresna hutsal hauek guziak? Galderak galdetegi, axola guti nuen ondareaz, batez ere euskara oinarrizko ondare bizia zela ahanzten zuen jakintsunen munduaz. Ameztoi jauna ixilik zegoelarik, oilategirateko eskailera pean kofoin zilatua harrapatu zukeen nere soak.

– Eztia egiten düzüa?

– Ez, ez orai ez, zaharregi nüzü laneko.

– Behiak jeisten?

– Ba, ene doia.Tzai sükalterat!

Ezkaratzean, berdinki, izerdia kopetetan perlarazten zuten tramankuluak baziren: uztarri uhalak eta aberestalgi plegatuak, akuluak, suburdinak eta kerenak, neurri orotako bertzak, dupinak, kokelak eta pegarrak oilar koloredun moldekoak.

Ametsaren hildotik Ameztoiren urratser segituz, sukalderateko lau ozkak iragan nituen. Sukaldea iluna zen. Lehenagoko auger edo baxerategian, ura koteraka erortzen hautemaiten nuen, eta ur kotera bederak kasko-hezurra altzeiruzko oihartzunez zaplastatzen zidan. Jantokiaren kantuñ batetan jarri nintzen. Jabeak ardo botila atera zuen armairutik eta bi godalet pausatu zituen mahainaren erdian.

– Etxeko ardua düzü.

Ezkaratzean ez nuen brentsarik edo zoanarik ikusi. Atrebentziaz hitzari eratxeki nintzaion:

– Nongoa?

– Aüzokoa, amiñi bat mingar düzü, etxekoa izaitez.

– Prefosta.

Ameztoiek arradan bete basoaren laurdena brauki hustu nuen, iragan nostalgikoaren berriz jastatzeko gisan. Urtero, larrazkenean hautina - aihena - mahastia - miñhardia - miñabesia maldan behera larrutzen genuen, han ere, eta miñataren –lehen arnoa...– edatea amodioarako lehen hatza aurkitzearen parekoa zen, beldurrarekilan, eskuartean zarta zitekeen desira biribilaren antzekoa. Ahosabaia zihikatzen zuen, misteriotsua zen, ezezaguna, mikatza bezain karatsa. Ohartu bide zen Ameztoi jauna ene pentsamenduaren daldaraz eta eleari lotu zitzaion:

– Ordüan?

– Ordüan zer?

Urrun nintzen. «Maite zaitut» ahoskatze ahalgekorraren ikara etxeko «lehen arnoaren» hurrupatzeari eransten nion, basoaren xurgatzeari. Gaztain erre zinpartatsuak janez eraiki lurraldean nindagon oraindik.

– Ordüan? –Ameztoi ez zen bere ideiatik kantitzen–. Maiena?

– Jüsto! Haren arrastak atzaman ditizügü Donapaleun. 1925eko üztailaren 4an, De Saint Martintarren neskato sartü zenean...

– Bizirik düzü beraz?

– Hori, haborokorik ez dakizügü orano, ari gütüzü...

– ...gütüzü?

– Bai. Adixkide batek eskükaldü bat emaiten ditazüt. Adixkide segürrak!

– Hobe!

Ameztoi jaunak nere ganako zuen iduripen baiezkorra ez nuen andeatu nahi. Elkarren onhartze sakonaren giroa lantzea zegokidan. Solasean narraikan, nabela-ukaldika, min zaharrak idekiko nituelako sentimenduarekin.

– Non eküratü zen Maiena, ezkont-gaü haren eta üztailaren 4a artean?

– Orai hilik düzü, ahal deizüt salatzen: Itorrotzeko küsünaren etxaltean.

– A?

– Maienak haurrik üken düa?

– Ez beit dakit...

– Nolaz ez dakizüla?

– Dagün neskenegüneko hitzartürik gütüzü...

– Bai, bixtan dena, bai.

«Etxe-Arduaren» gostuak aho-gaina kilikatzen, eztiki udalatzen zidan. Gizona, heinbat baketurik, neri beha zegoenean godaleta arra-bete nuan eta klika batez agortu.

– Zer trenpüa! –harritu zen Ameztoi.

– Behar, eta beharko...

Ameztoi supazter zokora abiatu zen. Erraustsez eta *Herria* astekari metaz kukutu telebistaren gibeletik kaixa beltz bat ilki zuen, irriño bat ezpainetan:

– Egürük...

– Zer düzü hor?

Uste nuen harma edo zerbait horrelako jalgiko zuela itzaleko zama hartarik. Ideki zuenean, arraposki, italiar markako akordeoi astuna agertu zen, eta Ameztoiek uhalak bizkarrean bilduz «ixil ixilik dago...» itsasturien kantua jo zuen. Burua ezker eta eskuin makurtzen zuen, noizean behin haren begiek nereak kurutzatzen zituztela.

– Laket zaizüa?

– Izigarri.

Ezkondurik izan arren, Ameztoi donado - karlos - mutilzahar higatu zen, eta egunerokoaren

alegeratzeko menturaz, musikan jartzen zuen fedea. Musikak lauzkatzen ote zion hatsaren iraunahia? Ote-liliz edertu herriko bazterrak gogoratu nituen.

– Beste emaztegeirik edüki düzü?

– Bai... Bena, xangreak hüstürik joan zitazün...

– Parka!

– Iragana düzü.

Noski, iragana zen, edo hobekiago erranik, iragana baizik ez zen, urteetan zehar ihardokitzeko, iraganaren zatirik latzenak bederen ukatzekoak baitziren. Maite nuen mendeen higamenak larrantzi jendeen itxurazko axolagabetasuna. Libertatearen seinalea zen. Ameztoiek akordeoiarekin tematzen zarraikan.

– Dantza piko franko ba düt eskentürik, nik, honeki!

– Baia?

Ahots hautsiz kontatzeari ekin zion:

– Azken aldian, Mauleko ikastolaren XX. urtebürüko apairüan nündüzün...

– Ontsa jan, ontsa edan, ontsa oritü, hunkigarri züzün bai...

– Han zinena?

– Bahai...

– Nigarra begian nizün.

Barra-barra ari zen Ameztoi. Bapatean, bestarik besta zabilan elaldia abandonatuz, ordulariari behako bat bota nion, eta arrunt presan nintzen, Gaxurekin neukan hitza ez hutsegin beharrez. Mahain izkinatik zutiturik, Ameztoiek akordeoia supazterrean pausatu eta ezkaratzeko bortaraino lagundu ninduen. Berantetsia bailitzan, despedida hatsanga luzatu zidan:

– Neskenegün arte ordüan, tzai etxealaino!

– Nahiago düt Maulen!

– Biba.

Xuxurla lerratu zen, eta lobiroko nahas-pila zeharkatuz, autora heldu nintzen. «Zergatik nigar egiiin» linea melodikoa buruan biribilketa eroan bazabilkiola oraino 4L-a piztu nuelarik. Moturraren iratzartzeak irratiari herotsa oparitu zion eta Euskadi - Ekidazu honen xarma finkatzen zuen zurrunbiloan urtu nintzen, bideak bideari atelatzen ninduela.

Tenorez behar nuen Donapaleun. Xiberoalat jinez geroztik, «heinbat berant» irixteko ohitura

hartua nuen, nardaturik bainintzen hitzarlekuetan beti «besteen» haiduru arto bekandatzen artzeaz. Gauza guti errespetatu arren, orduari kasu egiten nion, Maulen ohatu arte behintzat. Gaurkoan amodioaren deia mintzo zitzaidan, eta banekien Gaxuk goaitan egoitea hastiro zuela.

Seiak ziren xuxen, Sarrikota-Peko plazara itzuli nintzelarik, buruhunean zizelkatu «xehetarzün» balios zenbaitekin. Egiaren erraiteko, gogoa airos nuen, Ameztoi jaunaren «etxeardua»ren zimizta etilikoak zirela medio. Etxarriko patar zabaletan argizpi batek trebeskatu zidan izpiritua: hara, erkatzen nituen «etxeanoa» eta «txakoliña» biak baitziren, nere gostuko, maitasun buluzirako gomitak. Hara, errepikatzen nuen, eta eskuinaldean ohartu nintzen, munhoen erdian, errekaño baten xirripa kartzelatuz, udaran arto hazitakoaren urestatzeko aintzira bat zilatu zutela kartierreko nekazariek.

Maiena Ameztoiren ixtorioa debalde utziz, pentsamendua lerratu zitzaidan beti bezala: aski ontsa nabarmentzen genuen laborantza mota horrek, ibaiak lehortzen eta lurrak zitaltzen zituela, gerorik gabekoa zela gainera. Arto hazita-

koaren ekoiztea adibidez, herenegun ogiarenaren gisa, desagertuko zen, enpresari erraldoien errentabilitate sareetan kokatzen ez zelako. Imajinatzen nituen elge denak, sojaz, araxidaz, marmaroz edo eguzki lorez ereinik, nekazaritza industrialaren ereduer jarraikiz. Zertarako ez kotoinez landatu eremuak? Betiko esklaboak ginatekeen, artoarekin zein kotoinarekin, gutien pagatzen zuten lanetan ariko ziren anaiak, ahizpak, jendakiak, azkaziak, auzoak eta herri osoak. Zakuak bizkarrean dilindan, ekipean, larrua erretzen, heren-mundutar guzien maneran, izerditan, kantatzen ahalko genuen geroan ere:

*many rivers to cross...*

Egarriak hila nintzela jabetu orduko, Donapaleu sarrerako bide-juntan nindagon, eta duda azpilduz hirirantz bihurtu nintzen, Salbatarre ezker abandonatuz.

# –9–

Kennedy ostatuaren aintzineko mahain erronda batetan jarririk zen Gaxuri buruz joan nintzaion, autotik jautsirik, ahal bezain laster. Bospasei segundaren beranta nuela nabari zen, eta Indurainek Romingerri ebatsi zizkion 42ren kasuan nola, harro sentitzen nintzen ordea. Barkamena eskatzeko kinkan nindagolarik, Gaxu aulkitik zutitu zen.

– Tenorian hiz no!

– Baia? Uste ninan...

– Ta ba! Baduia zeiten hartzeko aizinaik?

– Araiz ba.

Seiak pasatuxeak ziren eta De Saint Martintarren jauregian zazpietako beharrak ginen. Garagardo baten edo biren hurrupatzeko astia bagenuen, eta atertu ere ez zen euriaren laguntzarekin gero abiatuko ginen Auzitegiko Karrikan zeuden handiki haien ikuskatzera. Gaxu parean nuen, eta erraiak berriz desiraz koropilatzen zitzaizkidan. Hasperen etsitua eskaini zien Gaxuk uhar temazuer:

– Guazen barneat!

Bata besteari so ginauden ixilik. Zer erran? Nondik hasi? Gaxu tabernako leihotik kanpora beha zegoen. Gaxuren begien urdin eztian bermatzen nituen nereak, eta saiatzen nintzen inguruko elementu natural batekilako parekotasuna bilatzen. Urdin arraroa zen. Urdin arina. Kasik uhargia. Azkenean, erabaki nuen, urdin hura hain laket zitzaizkidan apirilako zeruen kolore berdinekoa zela. Oroitzen nintzen, Massena etorbideko bide kurutzean, Ivrytik heltzean, noizean behin hiriko ortzaiz mugatua gisa horretako urdinezkoa zela. Martxo hastapena izan arren, apirilako ortzeen lehiaz, mututasun koropilatsua hautsi nuen:

– Urdinaren edertasuna...

– Zer derasan hik?

– Hie begien miresle nun...

– Kotxinos! Ta lana?

– Ba, preseki, zeit ikasiuna?

– Ta hik?

– Erran hik lehenik!

– Ale...

Irriño bat marraztu zuten Gaxuren ezpainek. Hitz xerkatzen ari zen, gure mintzairak gogo onez oparitzen zizkigun hainbeste «aukeraren» artean. Egoeraren aipatzeko ehun mila ahalmen bagenituen, eta bilatzearen bortxaz, «lur jota bueltatzen ginen» eleustasunera. Bapatean «Bueltatu» pentsatu nuelarik, gogora jin zitzaizkidan behin *Egunkaria*-n irakurri euskaltzain baten solas zuhurrak: «Hizkuntza nazionala egin behar badugu, ez nago prest Iparraldera hizkuntza espainiarraren eramaiteko...». Amiñi bat errudun nintzen, dudarik gabe, «bueltatu» burutu zitzaidanean, baina zerbitzariaren hurbiltzeak nere pentsaketa linguistikoak ebaki zituen:

– Bi garagardo.

Ddestuka manatu nuen, bi behatz erakutsiz, badaezpada. Neskatoxeak planttan ulertu zuen. Kontent nintzen. Ulertua izaitearen zorionak behialako erruduntasuna ezabatu zuen nitan, eta mentalki euskaltzainaren kopeta txalotzen nuen. Gaxuk, zirudienez, hitzak hautatuak zituen:

– Izan nun Aipazarrotarren etxen, ta han erran datane etzutela Maienaren berriik aspaldi

huntan, ezkundu zela ta desagertu. Itorrotzeko kusinaren ganat bildu umen zunan...

– Ba, hori bera salatuatan Ameztoi jaunak.

– ... ta izan nun Itorrotzen. Aipazarro zaharrak señalatu lekian huntzostoek ietsi harri metaat bezik eztinat hatzeman!

– Ordian?

– Ago, ikusi inat aizoko etxekanderia, ta zeiten jakinian zunan...

Gaxuk, Colombok bezala, jean-eko gibeleko sakelatik karnet ttipi bat ilki zuen, eta orrialdeak itxulikatuz, hasi zen kondatzen:

– Emazte hua, ohit dun, haurra zukenan, bena ohit dun...

– Zertaz?

– Ba, Iabarneat, goiz batez...

– Harri meta haen izenaun duaikae?

– Bai... Iabarneat jin zela neska gazte lerden bat, mihisiak bezein xuri, trenpu txarrian, hantik fite usu ikusi zela Itorrotzeko Jauna Iabarnian, ta gio fama kurritu zela Donapaleuko maasin batian sehi hartu zutela...

– Baha... i. Hiru hilaatez eon zunan beaz Iabarnian?

– Itorrotzeko Jaunak, Oiergin dien etxalde batetan ezarri zinan, ta hantik Donapaleurat...

– Seur hiza?

– Bixtan dena! Oiergin geindi iili nun atsalde ootan!

– Alabade! Ta?

– Han e etxian ordez harri meta bat. Ta hik?

– Pundu berian gitun, ingurukan; Donapaule artio baakine, ddio fritsik ez, etzauna drole hiri?

– Hatzik eztiun no!

Gaxu zinez kezkatua zen. Karneta plegatu zuen, eta zegoen tokian kokatu. De Saint Martin anderearekilako solasak agian zerbait ekarriko zigun. Esperantzaz beterik, bi garagardoak ordaindu genituen.

Errepublika Plazan ginen berriro, eta Auzitegi Karrikara makurtzeko orduan gelditu nintzen. Maite nuen Gaxu. Amodioaren zurkaizteko agian ez zen arrazoin baten premiarik. Arriskuaren hegian konturatzen nintzen, Su ta Garren emanalditik landako dantzen berotasunaren ondorioz, Gaxutik demendrena urrun, bakartzen eta haren sahetsean segurtasun pilixkaz jabetzen nintzela.

– Datz lov’... –murmuzikatu nuen, eta Gaxuk ahurra sorbaldan pausatzen zidalarik, urratsa arinagotzen zitzaidan.

De Saint Martintarren jauregian ginen. Allande Oihenarten omenezko oroitarria irakurri genuen, eta harriturik ikusi gure jendeen gazteluak Xiberotar ospetsuaren hegazpe berdina zuela.

– Alo...

– Haundikietan gitun ddio!

Txilintxa jo genuen. Sehi arropetan bezti zen neska batek ideki zigun atea. Lorez galanki apaindu lobiro batetan sartu ginen. Sehia mintzatu zen:

– Iuka! Nor ziztela erran behar dakotet?

– Amaia Ezpeldoi eta Gaxu Pekotx –ihardetsi zion Gaxuk.

Sehia, arrunt abiatu zen baratzean barna. Ez ginen batere egokitzen gaztelu ttattunaren munttoari. Arras trapuak ginen. Jendehasak. Gaxuri so egin nion. Karkazail ixiletan lehertu ginen.

– Ez giniena aldatzia hobeko?

– Ederragoiik baduia?

– Horiun no!

Irriak sartu genituen sehiaren gibeletik, eguerditan mintzatu emazteak bulkatzen zuen paralitiko aulki batetan, andere higatua etortzen miretsi genuelarik. Errealitatearen egiazkotasunetik kanpo ginen osoki. Zangoak apurtuak zituen emaztea eleari uztartu zen:

– Ze ne parl an bask kavek...

– ...me doberman. Egizu kaalak bagina bezela!

Ez nuen zailtasun handirik susmatu emazte maikatuaren hitzen hurrentzeko. Doi bat kexu nintzen ordea. Emaztearen botzak nere haserrea kolokatu zuen:

– Lukuzeko Jaun Konteen harikoa niz, Nafarroako Erregeen ondokoa!

– Gaixo Nafarroa, paralitiko aulkitan! –gaineratu zuen hiski Gaxuk.

Tristura zerbait irakurtu nuen lagunaren ahorpegian.

– Charlotte De Saint Martin niz –andereak hizketan zarraikan–, eta hau Marie Sophie, alaba!

– Gau on –erran genuen biek, eta nik bisitaren haria ehun nuen segidan:

– Maiena Ameztoi...

– Bai, baakit zendako hor zizten, ahalgea ekarri zien gue etxeat!

– Non da uai?

Etxekandere gazteak lau keinuz sukaldera bidali zituen sehiak, eta larruzko jargi oparoetan ttottoarazi gintuen.

– Auhalduko girea?

– Ez, ez, presan gitzu.

Gezurra zen, baina hatsa nekez hartzen nuen, eta arrats osoa kabale gisa tratatua izaiteak nere urgulua kolpatzen zuen. Gure ezetzak Charlotte afruntatu zuen.

– Alo, auhalduko zizte guekin, ta heen lo inen, gue gumitak zizte!

– Baginakien noizbeit nahaskeria jinen zitzaikula! –erantsi zuen Marie Sophiek, etxe-zola begiztatuz.

– Bakea bezik eztugu nahi –gehitu zuen, sehier lekua utziz, mahaina zilarrezko baxeraz estal zezatentzat.

Gaxu pentsamenduketan itorik zen bitartean, egongelako hormak kukutzen zituzten liburuapaler beha nindagon.

– Maite tzu liburiak? –galdetu zidan Charlottek, paralitiko kaderako errota ezinago ontsa urinestatuen gatik, hurbiltzen ere entzun ez nuenak.

– Bai –matela xifritu eta inkietaren gana itzuli nintzen–. Heinbat, bai...

Arrapostuaren emaiteko unea luzatu zuen Charlottek:

– Ba, uai eskolan ikasiik, denek leit dezakete!

– Dolu uzia?

Ixildu nintzen. Lehenagoko nobleziak eta XIX. mendeko lur-burgesiak beti esker txarrez onhartu zuen eskola publikoaren bitartezko «jakitatearen» hedatzea, kultura unibertsalaren –frantsesaren, prefosta!– pobretze entsegu moldean. Zena zela, ez nezakeen Charlotten dolua parteka edo karreat, erdal kultur egituraren agortze mailaz axolarik ez nuelako. Bagenekien, gurea «pobrea» eta «pobreena» izan arren, amodioikaraz, txipiroiez, txakoliñez, dantzaz, eguzkiz eta euriz arradan hanpaturik zela, gureak bederen, nornahitasuna bezainbat zernahitasuna, ainiztasun airosaren zurrunbiloa hazten zuela, eta

buru(ga)(ja)betasuna lortzear zegoen herriko jendeak ginela.

Begi klixka batez ebatsi nuen Gaxuren ardura: kaskoa hazkatuko genuen askatasun egunean, «asko gara, beraiek sinestarazten digutena baino askoz ere gehiago» xuxurlatzeko xedea geneukan, eta Gaxuk, nere ezpainen kantari jarraituz, «baina erakutsi egin behar diegu» azpildu zuen. Elkarri so baratu ginen: egunkarietan slogan metaforikoak irakurtzearen bortxaz barneratzen genituen «olerkiak» ilkitzeaz harriturik. Irri mugan ginauden.

Mahainean plantatu ginen. Sehiek ekarri zituzten antzera gibelez hornitu azietak: bakoitzarentzat bat. Etxean nakanaka janen nuen jaki eztia; ordea, De Saint Martintarren gazteluan asetzeko kalipua idorturik neukala iduritu zitzaidan. Parean tilingo zegoen margoari itzatu nuen begirada: larrazkenean, laborari bat oteka itxuratzen zuen. Antzera gibelkia, ogi xerra fin batetan hedatzen nuelarik, Charlotte mintzatu zen:

– Tipikoa da, folklorea...

Eztul batek ihes zegidan. Alabaina, tipikoak ziren gure haur-denborako nekezia eta izerdiak

manera horretako handikiendako: orokorki tipikoak geratzen ginen neurrian, bizitzeko eskubidea genuen. Gaizki nintzen. Gaxuk emekiño garbitzen zuen azieta. Bahituak ginen. Egonkaizkeria gainditzeko indarretan higatu nintzen, eta galdea pausatu nion, aho-huts zen Charlotteri:

– Maiena Ameztoi aipa zaguzu.

Andereak, zintzurra arinki karrakatu zuen.

– Ene senarra amainatu zien.

– Amainatu?

– Ba, ingañatu.

– Ta?

– Expaantxetan, haur beharretan agitu zun.

– Ahalgea! –moztu zuen Marie Sophie zurbailak.

– Otoi! –Charlotte asaldatu zitzaion–. Arren Marie Sophie! Albert ene senarraren ama ahalge-minez hil zun, berroi urte beantago!

– Iaun zin ba hale!

Charlottek ez zuen nabaritu azaldu nuen ironia itsusia.

– Maiena xarpail hua Aantxu Paueko zozoetxean ezarri ginien, bena Donapauleko kalonjearen urrikalmenduz, ospitalean sartu gintzin...

– Eri zena?

– Ez, baakizu, gordeik hobe bitzien.

– Ze ukan zien? Semia ala alaba?

– Semia, semia, baakizu nola den gue familietan; semiak hartzen tzi aitain segida, ta jada alaba bat bagintzin, Marie Sophie. Gaixua heen eon tzu, enekin, ezkundu gabe, maasinian lanian...

Marie Sophieri beha nindagon. Ixilik ari zen xerri-farzituaren jaten, herraz eta handikeriaz eiharturik. Ahoa ideki zuen:

– Kanpañetako sehiak, kaalak bezela...

Ez genuen «probokazioari» erantzun. Hormasutsua eta kafea lauazkatu zituzten gero sehiek. Handik harat, hitza guti plegatu genuen. Momentuko bagenuen aski ikasirik. Biharamonean berean Donapaleuko ospitale berrira joaitekoak ginen, han lekuko adindu baten atzemaiteko lehiaz. Marie Sophie braustan jeiki zen mahainetik, eta Charlotte zimelduaren kadirari lotu.

– Uai, guazen pausatzeat, zien kanbera eakutsiko dautziet!

Kuluar ilun eta luzeetan zehar ibili ginen, bikote arraroaren atzetik. Nafarroako erregeen se-

meen semeak, eta zirudienez, semeetan semeenak zirenen taula pintatuek argitzen zuten murruetako tapizeria ubela: Lukuzeko eta Atarratzeko jaun konteak, Nafarroako Margarita, Albreteko Janeta, Agaramuntes zenbait.

Gelara heldu ginen. Atea murgildu zuen Marie Sophiek erranez:

– Ohe huntan loiten zizien Allande Oihenartek eta Erdoiako Joanak!

– Mihisiak e ordukuak duaike?

– Ixil zite derru peexa!

Marie Sophie ez zen arraileriant. Nere trakako «haur mukuzuak» ez zituen laket. Borta gure destrenpuaren bizkarrera blastan hertsi zen.

Guhaur ginen. Preso. Zutik. Muturik. Gaxu hurbildu zitzaidan, eta hatsa hatsari zariola, Donapaleuko kiroldegiko aparkalekuan nola, besarkatu ninduen, eta galdezka lerratu nintzaion:

– Maite hut, ehadila sekulan niganik urrun...

– Nik eztinat amodioan sinesten! Buluz hadi!

– Haaai... leihatila hortaik eskapatzen bagine?

– Mentsa hiza, buluz hadi ta haui ene ondoat!

– Maite nuna?

– Hik maite nun, eztea aski gaurko?

– Bai, bixtan dena...

Ihes ametsez nindagon. Auzoko teilatuetan euria kolpeka asmatzen nuen. Gaxuren gorputz leuna neukan sahetsean, eta ihausteri sentimentalaren lehen joaldia nitan pindarka. Gaxuren besoetan kokatu nintzen galde gehiagorik gabe, gauaren lotsa zen umearen gisa. Lepo-ondoan Gaxuren ezpainen hezearen eztia sentitzen nuen, eskuak hitzarleku debekatuetan kurutzatzen eta larruak larruari juntatzen ziren, urruntzen, berriz biltzen sekulan hautsi beharko ez zuen batasun izerditsuaren sustatzeko. Ontsa nintzen Gaxurekin.

Gorputzak bereizi zirenean, ohizko nere antsia sakona jaukitu zitzaidan: lekurik ez zegoen guretako sortu gintuen lurrean. Allande Oihenarten ohean, gogaidura igan zitzaidan zintzurrean gora: egoera ez zen aldatzen..., Euskal Herria zinezko giz-herria zen..., kezkatzekoa bazitekeen hainbeste gizarte, gizona-gizon, gizonki, semeen semetatik baidator semea, hegoaldeko edo iparraldeko anai... hitzegiten zen une oroz irratie-

tan, egunkarietan, mitinetan, denetan, jendaldearen erdia ahanzten zen.

Haserre nindagon eta «behingoz maite nuenaren» bularren arteko amodiozko arroiletan lerratu nuen hatsanga epela.

# –10–

Euria jautsahala ari zen, nasai, nagi, goiz hartan, De Saint Martintarren «gazteluan» gosaldurik berriz Donapauleko herriko plazan aurkitu ginelarik. Burua bihotza bezain handi nuen. Maulen bulego xahatzen nindagon hilabeteetan zenbaitetan bürü-handitarzün berdinarekin nindabilan, bestak argi-zirrintan bukatzen zirenetan adibidez. Lanera segidan joaiteko nere xedea agertzen nielarik, lagunak nitaz burlatzen ziren:

– Ez zirate gei egün Frantziaren zerbützatzeko!

– Frantzia betiko düzü, eta haidürü egoiten badakizü –ihardesten eta sinesten nuen, eta Du Bellay gaizoaren eresien errepikatzen hasten nintzen:

*France, mère des arts, des armes et cles lois*

*Tu m'as longtemps nourri du lait de ta mamelle*

*Hors comme la brebis que sa nourrice apelle*

*Je hante de mes cris les antres et les bois*

Horditzen ginabiltzan legarretxeko murru apalean jarririk, rastawomen axolagabeen gisa, Frantziarekilako hitzordua luzarako hutseginik genuela erraiten. Kide batek edo bestek hedexurien kamioneta urdina gure paretik iragaiten ikustean, iduripena Peko Arrüaren puntan urtu bezain laster, kantatzen zuen:

– Dana emon biar yako maite dan askatasunari...

Hitz berak nituen ahoan, Gaxu neri so tente zegoela konturatu nintzelarik. Zeruan hedoiak gristasun mehatxugarriz hanpuros bazabiltzan, arinki bezti ginen hargatik, euri ttanttek gaueko gorputzen hunkimen usantsua, bakuntasun berrian iraunarazi nahi bailuten. Gaxu, umore txarrean zen, argilo on baten premian.

– Beti iika aizan hiz!

– Barkazan.

– Hiekin biltzen baniz, sei astein burian, lo eskasez hiltzen nun.

– No, amodiozko sei aste balin badira, etzauna balio?

– Zozola!

Irri bortxatua eskaini zidan Gaxuk, eta arrunt, bortxa ezabatu zuen euriaren ixuri leunak.

– Etxeat banian, pausatzeat!

– Ze? Ezpihiz enekin heldu ospitaleat?

Arraposturik ardietsi ez zuen galdea, golkoan tilingo zegokidan, eta Gaxu brauki desagertu zen, kasik lasterka. Zimiko ankerrak sardeskatu zidan bihotza, eta bakuntasun bustiaren ordez, bakartasun errea sortzen susmatu nuen nigan.

Keinka horretan, dudan nindagon kafe baten edateko aterbe batetan sar ala jarraian joan ospitalera, Maiena Ameztoi ezagutuko zuen edonor elerraitera. Biak egitea erabaki nuen, eta Arzautenean kokatu nintzen, jadanik ardo zuria zurrutatzen zuten adinduen artean. Izpiritua Gaxurekilako bereiztuneko leize geroago zabalagoan behera zihoakidan, eta begiak nigar-hegian. Tristura fitexka gainditzekoa nuela niolarik, ostatuko atearen mugitze dilindotsa aditu nuen, eta kanpora beha geratu nintzen.

Lehen xixtan ez nuen finkatu barneratzen ari zena, baina Felixi Suhastiren traka asmatzeko prest nintzen.

– Eun hun, Felixi! –hurbildu nintzaion kikera ahurrean.

– Bai zuri e...

– Jiki?

– Ba, behar no, ze nahun!

– Kafe bat?

– Zendako ez!

Mahainera jartzera abiatu ginen, Felixi Suhastik bere trapu-meta zekarrela. Miresgarri zitzaidan Felixiren ihardokera: euskaraz baizik ez zitekeen mintza, eta gosez ehuntzen zuen egu-nerokotasuna, erdalitzik ez zekielako. Horrelako egoerak baimentzen zituen jendartea –gurea funtsean...– madarikagarria zela neritzon, baina jasaiten genuen izurrite kulturala ahantzi nuen.

– Nun ian tzu gau hau?

– ... barbari bau bau, jan tzak haur hau.

Algara eztia ilki zen Felixiren zintzurretik, eta algarak Gaxu partituz geroztik nabaritzen nuen «blues»a arindu zuen. Felixik elea harilkatu zuen oraino:

– Ze euriak!

– Zuk erran, bai; ze uriak, Bardotzen dioten bezela!

– Trenpatzen din bardin euriak, uriak edo ebiak, beharre barnian binintzan no...

– Nun?

– Kurios pinterdi hi!

– E?

– ... ta hiekin zen neskatoxe hua nor zen?

– Laun bat oizu...

Ez nion Felixi Suhastiri argitasun gehiagokorik eman. Luzatu nion bezain lanozu hartu zuen erantzuna emazte xaharrak. Zirudienez, Felixik ulertu bide zuen ez nuela sekretu soberarik salatu nahi, plazaren erdian lo egiteko estakuru xoilaz abandonatu ninduen Gaxu hartaz. Emazteak, elestan zarraikan, xumeki:

– Hatzeman duna xekatzen hiena?

– Ez, ez oono ez, etzit lan aiseta, bena...

– Helduko hiz!

– Hori bai, hatzemanen dutala...

– No, eskukaldi bat behainat.

– A?

– Ba, letra bat bainat iteko. No kreiuna ta papera!

Presan nintzen baina ez nuen Felixiren eginbeharra ukatzen ahal, eta Pariseko Felixiren

ahizpa gazteenari idaztekoak zirenak orrialde zurbailean etzan nituen, izkirione ederrenetan ederrenean. Bi hosto beltzarazi zizkidan. Txinako auzuneko garaietan gisa horretako gutun oparoak atseginekin hartuko nituela niolarik, oroitu nintzen metroko arroiletan nola agertzen ziren Karibetako edo Afrikako gizon-emazteak, familiek igorri letrak irakurtzen, azaletan tinbre koloretsuekin, ezpainen eremua nostalgiaz eta gozamenaz urraturik zutelarik. Ordu haietan, traukatzen zitzaidan bihotza, eta hitzak hiztegi itxuratzen nituen, altzeiruaren mundu bekaiztian.

Bizkitartean, Felixi nuen aintzinean, eta Amikuzeko Joaldunen oihartzuna amestuz kulunkatzen nintzen, behin Peko Arrüa mankhatuan entzun bezala, tolon! tolon! euskaraz edonon! bailerraten ixiltasunak kateastatu inguru minartuer.

– Behauzia beste zeit? –Felixiri begira nindagon.

– Ez haurra, ez.

– Ez adioik beaz!

Mahainetik zutitu eta oharkabean euripean aurkitu nintzen. Orotan min nuen. Bederatziak ziren. Aiziritzeko hiriaren sartaldean zegoen os-

pitalerainoko urratsari ekin nion, hemengo jendeen ahosabaietarik, elurrak gesaltzean nola, ihes zabilzkidan –betiko ihes ote?– eleak zenbatuz. Demokrazia batetan ginela zioten, gehiengoaren axolagabekeria tiranikoaren menpe.

Pentsamendukan, Gaxuren etxe ondotik pasatzean, herrialde buluziko jende bakoitzaren gogo-xokoan bizirik zirauen pindarrats ahulak berotu ninduen eta Bruce Springsteenen *Nebraska* KDko azken abestia xuxurlatu nuen:

*At the end of every hard earned day*
*people find some reason to believe...*

Horma zikinetan eratxekirik ziren *Bozka abertzale / Abertzale c'est naturel* hauteskundeetako iragarkinaren mezua gauza berean oinarriturik zitekeen, pindarrats ahulean, gehiengo itsuaren menpekotasunetik jautzegiteko «some reason to believe». Ameriketako basamortu gorriak jaukitu zitzaizkidan, eta zaharretxeko bortako txilintxa zaplastatu nuen. Haiduru egon nintzen. Atea ideki zelarik, serora higatu bat eduki nuen bisean-bisean.

– Ze nahuzu?

– Ba, bo, aspaldian heen den noitekin solastatu...

– Zauri barneat, holako euriakin. Teexa jinaaziko dautzut.

– Ontsa, mertzi hanitx!

Goaitagelako aulki batetan ttottotu nintzen. Euria bitrazko leihoetan lerratzen zen, amodioz ments zegoen lurra balakatzearren. Erizainen eta seroren mugimenduak segitzen nituen. Bapatean, nere haurzaro antsiazuko asmoa piztu zitzaidan: perinde ac cadaver... nion... esazu hitzerdi... hor nauzu Eusk... nion... seroratzeko gutizia... hitzerdi... komentuetan sartu ziren herritar frangoren antzera... mistikoa nintzen... nion... horixe: irresponsableegia, sekulan ez nintzen zinez *izan*... bainintzen... nortasuna ukatzen nuen... murruak arrasatuz bizi... hitzerdi... zure... ezizate horren mila frogantza jasan nituen ezagutu senargaiekilan... mistikoa nintzen... naiz - niz - nuzu - naz... cadaver... dana emon biar... hitzak buruan biribilkan bazabilzkidan, eta doi bat «izaiten» hasteko adinera heldurik nintzatekeela murmuzikatu nuelarik, behialako serora jiten

ikusi nuen, bera baino askoz xamartuago baten konpainian.

Agian Teexa zen.

– Eun hun –agurrak eman nizkion.

– Ba, ze galdein nahi atazu?

Papoko sakelatik, De Saint Martintarren sehi batek maamen partez eskaini gutunazal batetarik, Maiena Ameztoiren argazkia erakutsi nion.

– Zautzen zia mazte hoi?

– Ez, nor da? Heen etziu gazteik!

– Uai xahartia ukezu, ohit zite otoi, Maiena Ameztoi zu...

– ... Maiena Ameztoi?

– Bai.

– Jinko maitia! Etzu eungo ixtoriua!

Ixilik gelditu zen Teexa serora. Emaztearen ahorpegi zimelduko erreketan galdu ziren nere galdeak. Eleustasuna luzatzen ari zen; debaldetan neretako. Geldoa iharrausi nuen:

– Heen eona zu; De Saint Martintarrek «plazatu» zizien...

– Ba, espaantxetan bitzen, medikuaz umen.

– Mintzatu tuunek hala diozie ba.

– ... baakizu, handiosetan, ohoria lehen, ta ddio...

– Bai seurki ta hale.

– Etzin ospitaletik nihoat ilkitzeko haizumenik.

– Preso zun?

– Aantxu ba, omonierrak zaintzen tzin, bortxazkua izan zun.

– Ze? Heen eoitia?

– Ez, apaina...

– Apaina? Ze uzu hoi?

– Uaiko gaztiak! Etzie deus konpreitzen!... Seigarrena... seigarren manamendukoa. Iili zirea bate katiximan zu?

– Ba, ttipi nintzalaik ba; konpreitia izit ba engoitik.

– Hobe! ddio Maienak seme bastarta munduratu zin, ontsa pullita, galanta, ta Petteko ttarrotu artio guekin eon zitzun, gue launtzen ta hola, bizitzen alo!

– Funtsian, hala uzu ba, bizitzen.

– Etzun aise ordian, bastart baten ama izaitia, haur batekilako emaztiak nekez ezkuntzen

zitzun, garbitasuna, baakizu, eun eztu beharre holakoik, gauzak kanbiatu bitira...

– Ba, menturaz.

Teexa serorak eman xehetasun guziak biltzen eta nere memoriako ataletan ozkan plantatzen ari nintzen.

Ama bakartien egunerokotasuna gaurko mendean ez zen Teexak uste zuen bezain erraza, Klarak behin kondatuak sinesten baldin banituen behintzat. Usu, senarrik gabeko andreak, jenderditzat konsideratuak ziren lantokietan adibidez, prezeski, «garbiki eta lohikeriatik» urrun egoiten jakin ez zuten zer batzueen maneran. Nigarra begian, noizbait salatu zidan haurra eri zuen batez, laneko eskubide baieztuen kontre, ez zioala nagusiak «egunik» utzi nahi izan ttikiaren artatzeko, eta sukarra zariola ondorioz, haurzaindegira eraman zuela. Haurrek zuten beti pairatzen gurasoen laneko dretxoen murrizketaren ondorioa. Baionako geltokian ikusi hamalau hilabeteko neskatxonaz oroitu nintzen, eta zintzurrean halako traba bat nabaritu nuen. Ahoa zukatzen ari zitzaidan. Mintzatzea deliberatu nuen:

– Erran tzu bost urteen burian juan zela ospitaletik; noat?

– Donapaleuko kalonjeak hatzeman zakozun, emazte bat nahi zien karlos abaats bat, Ilarren, laborari handios bat...

– Ilarren?

– Bai.

– Bena jaanik ezkunduik zun Maiena!

– Hoi nihurek etzakizun, nik ba haatik, biziki elaire gintzun.

– Adixkide?

– Ba, naski, ddio etzit haan berrik sekulan gehio ukan.

– Bon, ba, ta Petteko?

– Beekin eaman tzin, Ilarreat.

– Etzira ohit ze izen zien laborari haak?

– Ez, biarnesa zun.

Biarnesa. Ahantzia nuen arras, Amikuzeko mugetan biarnes hiztunak bazirela, eta gure herrietan berean ainitzek lurrarturik zutela, emaztea edo senarra eskualduna hautatuz. Bulta batez Teexa neri so egon zen. Elea askatu zitzaion:

– Senargeik bauzia?

– Nik? Ez –matelak gorritzen sentitu nituen–, ez, oono ez!

– Ze adin zu? –Teexak gogorik onenean segitzen zuen galdezka.

– Ba, hoita hamar pasatuxeak!

– Ezkun zite beant izan beno lehen.

– Bena? Denek orok kontrarioa erten datazie!

Irriz karkailaka hasi zen, «gaixoa» hitza ahoak eman ahala errepikatuz. Berriz ere hormen arrasatzeko lehia nuen. Nere eskail tzarraz ohartu zen laster serora, eta ukondoa eztiki tinkatuz aitortu zidan belarrira:

– Jinkuain nahia bita...

– Ba, ba, arrazuña uzu, hala bedi!

– Zaude guekin bazkaiten.

– Ehee, juain behaizit.

– Zaude.

– Bon...

Gaxuren iratzarraraztera ernatzeko enbeia neukan, baina Teexa serora –serora zelakoan araiz?– gaitzitzearen beldurrez, haren urratsetarik ospitaleko jangelara bideratu nintzen.

Jainkoaren nahikundea omen zen.

# –11–

Ospitaleko aterbetik aserik eta heinbat arrail jalgi nintzelarik, kanpoko euriaren temak inharrosi ninduen. Urrunetik entzun nituen Donapaleuko elizako zeinuaren lau joaldiak. Ezkilen zarata goilareen zurrupatze azantzekin eta mahain inguruko eleen oihartzunekin nahastekatzen zitzaidan buruan. Akitua sentitzen nintzen. Desgostua nagusi nuen, eta euriarekin hitzegiteko lehiaz nindagon.

Teexa seroraren aldamenean jan nuen, eta Maiena Ameztoiez hainbat xehetasun ukanik, doidoia zoriontsu nintzelako aitorra zor nion. Noizean behin ordea, Gaxuren partitzea zela kausa agian, ilun-bultak jasaiten nituen; mundu higatu eta gasnaren moldean harrek zilatu egunerokotasunetik ihes gutiziaz nindabilan. Grisak zapaltzen ninduen. Bazkari denboran beti norbaitek helatzen ninduen:

– Rrazu, ta, ze kariz zira heen zu?

– Ba...

Arrapostua ezpainetan tilingo geratzen zitzaidan. Eskerrak Teexa serorak sekretua zen «operazionea»ren azalpenetarik eskapatzen laguntzen ninduela. Teexa behatzen nuen:

– Baakizu, lehenau, etxe ootan bazun haur andanaat, ta herriz-herri iiltzen zitzun apezak ta hola ni re juan nintzun seora; etzit batee damuik!

– Bortxaz?

– Eee, ez bortxaz ez, nola nahuzu bortxaz izaitia; hamabi urte nintzin, Jinkuain deia zun, ta...

Ixilik ginen biak. Ixtant batez, pentsatu nuen, Teexaren bizia –Jeinkoari emanagatik– angela izan zela, baina laster erkatzea egin nuen nerearekilan, eta iduritu zitzaidan bizi guziak zerbaiti uztartuak zirela, hasteko hauta-eremua hertsia agitu arren, Jeinkoari, emazteer, gizoner edo haurrer. Erkatzean, nerea nuen justifikatzen eta ber denboran Teexarena onhartzen. Teexari so gelditu nintzaion, eta seroraren umiltasuna aldizka, eder eta krudel aurkitu nuen. Zena zela, aukeratu bidearen arabera unero irautea, eta lauetan hogeita bi urtetan, Teexak eskubide osoz erran zezakeen damu mikorik ez zuela. Hori

hunkigarri zitzaidan, usu nihaur iraganarekilako doluz kateastatzen bainintzen; zenbaitetan, halaber, Teexaren filosofiari hurbiltzen nintzen, jakinez bizia ez zela arra-egin zitekeen elaberri batetako kapitulu arrunta. Zerbait gehiago zela.

Orduan, Gaxuren sohako urdin sarkorrak kilikatu zidan izpiritua, eta erabaki nuen, kantina buluzi hartarik ilkirik, harengana behar nuela... zalu zalea... Bizkitartean, Teexa ezin baratua zen nere sahetsean:

– Eun guziz aizan nuzu xahar artatzen, ta ohartu gabe jin zatazu xahartzea enire, hola te!

– Ba...

– Hameste miseria kusiik, hameste min, hameste errabia!

– Bixtan tzu...

– No, hau Piarres no. Zaui gue ondoat!

Piarres, zuhamua nola zardai izana, arras konkortua zen, eta mato baten laguntzaz etorri zitzaigun mahain kantuñera.

– Pleñi bitzira beti, eztela gaztetan eskualdunik, oizu bauzu bat! –argitu zion Teexak.

Gizona ez zen, bigarren larrutzat zeukan tristura barnakorretik kantitzen. Botz arrestuz galdegin zidan:

– Ta nungua hiz?

– Ba, Oarrekua...

– Oro biarnes zizte han!

– Bardin ba.

Banekien ez zela bizi osoan manatzen eta jujatzen arizan ziren gizon adinduen aburuen kontra altxatzerik. Zohituak eransten zidan biarnestasuna onhartu nuen, golkoa xifriturik halarik ere.

– Eskuaraz untsa mintzatzeko –ahots daldarakariz zarraikan Piarresek–, untsa ikasan lehenik!

– Ba, gau-eskolan iiliik nuzu...

– Españolaan ikasteko?

Karkazailka hasi zen Piarres, pikoak erdizerdi ebaki baitzituen euskararen ganateko neuzkan fede eta amodio bakunak. Galdurik nintzen, ez bainuen gizon bakartia gaitzitzeko gutiziarik. Alde batetik arrazoina zuela nion, gogoaren baketzeko gisan eta zaharren munduari ez sobera aiherkunde aurtikitzeko, arrazoina zuela; baina

beste aldetik engainatzen zen, bere balaunaldiko frangoren maneran gazteekilan ez zuelako altxor bekaitza zen eskuara zikindu edo ahuldu nahi. Ondorioz, hatsaren higamenaren haritik bezala, haur denborako hitzak ahanzten zihoazkigun, eta mintzatzen segitzeko hitz berriak menperatu behar genituen.

Piarresen karkara jabaldu zen:

– Seur nun eztunala lanike! Uaiko gaztiak ze auherzirriak!

– Justo...

– Ageriun ehizala akitia!

Trufa arnegarri zitzaidan. Debaldetan ari nintzen zainetan jartzen. Teexa ohartu zen, Piarres gutara komitatuz ekimen makala egin zuela.

– Barka zozu...

– Gizon arküloa uzu!

– Kexu bita, hunaat jinez gioztik: errenaikin etzun akomaatzen, ta heen ezarrizie; gaztiak etzi maite!

Mahainetik zutitu ginen. Argi zegoen zahar keso zenbaitek gazteer ez ziotela gaztetasuna barkatzen. Funtsean adin batetara heldurik, ez zen deus barkatzen. Traka horretako gizonekin

beti berdinek zematen amor: emazteek, haurrek, errenek... «ekaan» edo «haui» ziotelarik, emazteek, haurrek edo errenek obeditzea zuten, bestela, etengabeko erasietan nahasten ziren «nausiak». Lasai egoiten saiatzen nintzen, eta anartean, Teexaren pazientzia miresgarri zitzaidan.

Donapaleuko Thiers karrikan behera abiatua nintzen, euripean trantxiturik, euri ttantta bakoitzak hezur-muina izozten zidala. Hotzez ikaran nindagon. Hotzetik hotzera hegaldatu zen nere pentsua, eta Maiena Ameztoi hilik itxuratuz, ospitaleko zahar larderiazuak oro hilotz asmatu nituen. Asmatu... herrarik gabe... xoilik asmatu.

Konturatu nintzen bapatean, egunkari edo astekarietako «notiziyak» gehienetan heriotzaren ingurukoak zirela: «Zazpi haurren ama, ixila, perestua, lagunkina, langilea, bultaño huntan osagarriz ttipitua; kasik tupustan utzi du mundu hau, doluminak familiari», edo «ofizioz ahotza, girixtino urratser jarraikia, egin du zonbeit lan bere denboran, hogeita hemeretziko gerlaria, presuner eta Kawa-Ruskan ere egona, gure otoitzaz lagun dezagun, ardiets dezala betiereko

pausua», edo oraino «bost haurretarik bi serora eta apez baten ama, irri egitea maite zuena, itzali bezperan ardien gibeletik lasterka ikusia izan zena». Astekarien alderako genuen ardura «horretan» zetzan, eta ironia errazegitik saihestuz, nabari zen bakuntasunaren desagertze hurria.

Xantre lerdenek kudeatu abesbatza moldean ezagutua genuen herria, eta banaka-banaka, kantariak zentzen ziren, abesti oparoa eresi pikarrai bihurarazteraino. «Heriotzaren» ganako neukan interes kulturalaz harritzen nintzen; zehaztapen bat atzeman nuen, Thiers karrikako ostatuan kafe baten irenstera joaitea deliberatzen nuen artean: bost hilabetez, erratz-jabe nintzelarik, Mauleko lantoki hartan goizoroz ez zen besterik aipu *Sud-Ouest* hostokatzean, gosalorduan:

– Gazterik korpiztü düzü...

– Aia?

Pena zintzoenaren ildoaren idekitzeko zorian nindagon eta eskatzen nuen:

– Zer adin züan?

– Lauetan hogeita hamar urte.

Kolegaren agerpen hitsari, farrez ihardesten nion:

– Ordü zizün bai arauz!

– Ez düzü bihotzik ala? –haserrean urtzen zen emaztea, lepoa eta behatzak urrezko edo zilarrezko girgila txarpilez ozentsu.

Andereak egunkaria plegatzen zuen, arraposki, eta lanera bazihoan, egunak ekarri hilen berriez aserik bezala, «ez naü ni pürü kausitü» erraiteko maneraz hanturik. Adinaren kontua, arraroa zela pentsatzen nuen, manatu nukeen bigarren kafearen aintzinean bermaturik. Alabaina, zenbat nahi bedats edukiagatik, gaztea zen norberaren adin berekoa. Ondorioz, zahar bilakatzean, besteen –gazteagoen...– begien meneko baizik ez ginen zahar. Fenomenoa bitxia zela niolarik, kikera hutsa kontuarrean abandonatu nuen, eta kanpo eurizura iheska abiatu nintzen. Uharrek mendekukari zarraikaten.

Deusek ez zuen deusetarako balio. Lanean higatzen ginen –ontsa kuntent oono lanaan ukaitiaz!– amodiotan, borroketan, eta guzia suntsipena zen. Suntsipen iragarria. Burua makurtzen genuen, makurrarazten ziguten, ukatzen ginen,

debekatzen gintuzten, ahalgetzen, kartzelatzen, mututzen, kolpatzen, zainetan hausten, pobretzen eta azkenean, mineraltzen ginen, hatsa desagertu orduko. Alta eder zitzaigun bizitzea, bizitzaren emaitea, bizitzen laguntzea, iduripenezko alfa eta omegaren arduradun izaitea.

Eklesiastaren hitzak nituen gogoan, mekanikoki urratsek Gaxuren etxeraino ninderamatelarik. Amodio-minak larrutzen zidan burumuina. Dena ahantzi gei nuen, balaken tirania desiratuz. Hil-biziz, alkoholikoz, bortitzez, unatuz, zapalduz eta zapaltzalez bahiturik ginen, akulturatuak ez ziren eskas eta «dignitate / duintasuna»ren finkatzea nekeza zen. Zutik... zutik... makurtu gabe... deiadarkatzen zuten kanta zaharrek, jakiteke funtsean... eta nere herrialde minartuaz desolatzen nindoan.

Gaxuren apartamenduko eskailera disdiratsuetan gora banindoan, gogoan erabili burutapenak ezabatzen enseatuz. Txilintxa jo nuen. Haiduru egon nintzen.

– Bizi hiza oono? –Gaxuk atea ideki zidan alegeraki.

Jendarte zaurituaren hil-hobitik jalgitzen nintzen, eta Gaxuren agur airosa nabela ukaldia izan zen neretako.

– Bauna berriauik? –segitu zuen alai.

– Ba bai.

– Sar hadi!

Gaxu bainu-estalgiaren pean buluz-gorri zegoen. Gorputza bizirik eta leun asmatzen nion. Ez nuen ordea ongi ulertzen zendako hainbeste kontrola nezakeen, Gaxuren larruaren kontra zaplastatzeko tiria. Oihal astunaren gerizan, neskaren bularrak dantzari zabiltzan, eske bezala.

Leihorantz itzuli nituen begiak, euriak salbatuko ninduelako esperantxaz. Hitza udalatu nuen:

– Untsa loin duna?

– Bai, ta hik ze ikasiun?

– Aitzina ai gitun...

Hurbildu nintzaion. Gaxuren begiak zohardi ziren. Herrialde suntsituaren apokalipsiaren erdian kolpatua ez zen bakarra zirudien.

Sutan erre zituzten familiak, bereizi anaiak eta arrebak, ahizpak lotsatu, damutan utzi amak, aitak, kusiak eta azkaziak oro. Gosea.

Egarria. Gure arteko harremanek iduri zuten bikerik gabe zabiltzan uhalak, karrankan, minez, auhenez, idor eta herdoil. Zaharrak, laborantxaren gaurkotzea, ekoizpenaren eta gastuen biderkatzearen saria eta izerdia merke jasan ondoan, alkoholean itotzen ziren, igandero meza irratian entzunez, irautearren tematzeaz aserik bailiran, eta gazteak bihits, aitek egin zorrak ezin pagatuz, berenetaz gain. Esklaboak ginen. Gero-ezaren haur bikotsak. Gutariko bakoitzak Amerikak zeramazkien golkoan, balizko ihes-bide legez. Eskubiderik ez genuen, ixiltzekoa salbu, eta auzo baten bati ehortzeta hunkigarrien moldatzekoa. Huski mintzo ginen orduan:

– Ze hilkutxa ederra! Dena balus ubel eta zeta xuri!

– Hik erran no!

– Battitta irus dela hor etzanik!

– Baiki! Eztin holakoik ikusi bere bizian no!

– Mehexitiain ba engoitik!

Gerlari ohiaren lau medailak balusean eta zetan tilingotzen ziren, eta apezak Battitta zenaren baliostasun handia goraipatzen zuen zuhurritzez. Edo piko bat botatzen, nola gerta, hilkutxa-

ren barnean zetzana herriko «praubeetarik» baldin bazen. Ezkaratz usaintsuetan marmarikatzen zen *Gure aita zeruetan zirena* neukan buruan, arraileria airearekin jostari.

Gaxu aldamenean nuen. Hatsa hurbil nabaritzen nion. Bihotzaren taupadak. Oraindik bizirik ginauden, munduaren gehiengoak hezur desiratzen gintuelarik.

Oroitu nintzen mende bat ments zuela, «elitea» formatzen zuen taldeko apez baten nonbait irakurri erranetaz: «Il faut aider le basque à mourrir de sa belle mort!». Urrikia eta karitatea biak, gogorrak ziren, eta prezeski «belle mort» horren muinean ginen, Sand Creeken.

Aterabiderik ez zegoen. Frango prest ziren euskararik gabeko Euskadi baten alde «jokatzeko», Frantziaren eta Espainiaren aberastasun orokorraren emendatzeko euskarak balio zuelako usteaz, Bayrou minixtroaren hitzen bidetik: «Frantziak Euskara behar du». Baina, zertarako «behar» ote zuen Frantziak euskara? Hondarraren bahitzeko ala?

Renaud kantariak ere bere iritzia zabaldu zuen maila horretan, Miarritzeko Agilerara jin ze-

larik: «Hizkuntza minorizatuen alde nago, Frantzia aberasten duten heinean...». Zer eskubide zuen Renaudek «hizkuntza minorizatuen alde» agertzeko? Zertarako hitz hutsak zituen ahoan? Debaldezko banalitate kondan aritzeko ordez, hobeko zuketen «ospetsu» horiek ixilik egoitea.

Ezkerrak eta eskuinak ideologia berdina zuten, gure mihien kixkailtzea helburu.

– Ix-hiltzeko dretxoa ba diun beden! –hasperen luze bat libratu nuen.

– Amaia!

– Maite hut, senda zaztan herbaildurak...

– Otoi...

Gaxuk urrats bat gibelera eman zuen. Urrun nintzen. «Gaxu» murmurikatzen nuen, eta oso abandonaturik sentitzen nintzen. Begiak urestatzen hasi zitzaizkidan.

– Trixte hiz eun hi.

– Nun hintzan? –galdegin nion Gaxuri kezkatsu, ohean atsedentzen zela jakinarren. Amodioak iraunarazten ahal gintuen, ordea segurtasun izpirik ez geneukan.

Bapatean, nerea baino izpiritu xotilagoaren jabeak gutiziatu nituen. Denbora berean mila

gauza neramatzan buruan elkar janka, eta eginbeharrak itotzen zihoazkidan. Konzentratze-eskasa zela neure trabarik handiena onhartzekoa nuen: gaietik kanpo nindabilan usu, gaia ahantzirik bezala, baina ordea noiz-nahi gaiak lehertzen ninduen. Maiena Ameztoiren harrapatzea gai horietarik bat zen. Bestea espartin-trafikoaren harien askatzea.

Martxoa zalantzan zetorren.

# –12–

Astearte hura goiz ilundu zen. Euri egunak jiten ziren uhar egunen ondotik, eta heze hotza larruari loturik ginabiltzan. Lo kulunka bat egin nuen Gaxuren etxeko kanapearen gainean. Begiak hertsirik neuzkan baina pentsua alhan: Maiena Ameztoiren hatzak ez zituen hidoiak idorrean gorde eta oso nekez ari nintzen aintzina.

Biharamonean itzuli bat Ilarrerat eginen nuela erantsi nuen, kemen handirik gabe. Suerterik ez baldin banuen bizi guzia Maiena Ameztoiren atzetik iragaitea irrikatzen nuen. Anartean loak beretu ninduen. Gaxu atera zen, eroskete-tan denboraren galtzeko aitzakiaz. Herio hegalariaren ametsak punpean jeikiarazi ninduen. Emekiño-emekiño beztiturik, egongelako laser irakurgailuan Hertzianak KDa ezarri nuen. Gariren ahotsak apartamendua bete zuen «bakean utzi arte» oihukatzen zuela, eta handik laster norbaitek atean jo zuen.

– Eztuzia aski azantz! Poliziari telefonatiko izit arrunt!

– Nor zira zu? –galdegin nion, bigudi parrasta bat biloetan kiribilkaturik zeuzkan andere moskotari.

– Ze bordela! –kexu zarraikan–. Non da heengo jabia?

– Juana uzu komixoneen iteat...

Gariren botza laket ez zitzaion atsoa so zegokidan. Mexprexuzko sohakoaz inguratu ninduen goitik beheiti, eta erantsi zuen desagertu baino lehen:

– Buhame zikina!

Ongi ikasietarik nintzen. Agerpena huts utzi nuen. Trixtezia handi batek larrantzi zidan gogoa. Bere egoitzara itzuli zen emaztearen gibelera klaskarazi nuen borta. Maulen holakorik ez zela nioelarik, buntza blanbakaria igitu zen berriz. Orduan, Gaxuren haserrea miretsi nuen:

– Mentsa hiza? Ze in dakon peko astañari?

– Nik? Deusik.

– Ba, musika azkartxe ezarri akon...

– Baietz.

Gaxuri garagardo malin hatsa nabaritzen nion. Hitzak ezpain hegian, ttattit egon nintzen, berak zerbait erranen zuela haiduru. Baina Gaxu

ez zen gehiago mintzatu. Hertzainak talde ohiaren kantuan bermatzen nuen bizkitartean izpiritua, eta lekutzea erabaki nuen.

– Amaren titien egoskitzerat banian!

– Noat ai zala?

– Etxeat no.

Parean neukan Gaxu. Bizitza honetan ez nuela oro kontrolatzen bururatu zitzaidalarik, aulki batetan pausatu palto bustia soineratu nuen. Gaxu bustitasunaren iturriari hurbildu zen eztiro.

– Maite nunala errepikatzen dun, ta partitzen hiz bate potretik gabe...

– Bihar Ilarreateko nun. Heldu hiza enekin?

– Bai.

– Arrutako plazan hitzartzen gitun beaz, beatzi oontan.

Ixildu nintzen. Hainbeste tokitan, ukamilak altxaturik deiadarkatu genuen «bakean utzi arte» leloak ikararazi ninduen etxe munttoko atea idekitzear nindagolarik. Gaxuren irriaren oihartzunak hantu zuen eskailera, eta azkenean, dudaren gatik, zoriontsu nintzen. Zorion itsasoan ordea, tristuraren zamaz purruskatu ugarte bat

baneukan. Orohar, iros nintzen egunero iratzartzeaz eta Gaxurenganako pairatzen nukeen amodioaz. Hertzainak taldearen presentziarik gabeko garaien hasierak ziren gureak. Gogorretan gogorrenak.

Autoraino oinez bideratu nintzen, Arthez-Lassalle karrikaren juntatik, Thiers etorbidean behera. Herriko etxe aintzinean aurkitu nuen 4L zaharkitua, eta irratia piztu nuen barnean kokatu orduko. Uhin modulatuetan Euskadi Irratia eta Irulegikoa, biak borrokan ari ziren Donapaleun, bakoitzak bospasei segundako artea ebasten ziola besteari. Hiritik jalgi nintzenean, bakea desiratzen bainuen, Euskadi Gaztea jarri nuen. Mikroaren jabea U2ren hondar diskoaren aurkezten zabilan, eta Bonoren zakur hamikatu zaunka mehe luzeak ezagutu nituen, Joshua Treeren denboretakoen idurikoak. Sorotan Belek azpildu zuen Garruze trebesatzeko antsia, eta Lukuzen, Nafarroako erregeen udako gazteluaren maldan, Behauzerat hartu nuen. Behauze begimenean neukala, zeru gris menperatua urratzen zuen V zabala begiztatu nuen:

– Kuruliak? Ddeia?

Harridura ez nezakeen parteka. Euriaren astunak lehertzen ninduela, zutik, ortzeari so egon nintzen, kuruleak ortzaizean urtu arteraino. Txori migratzaleek golkoa irensten zidaten, eta haiek nere gogoa nola zerua zeharkatzean, ez nintzen ezertarako gai. Bortxazko lurtasuna jasaiten laguntzen ote ninduten hegaztiek? Bizio hori ez nion oraino Gaxuri aipatu. Ala, bizio guzien maneran, behar zuen gorderik eta sekretu paratu?

Zena zela, jadanik, Amorotzeko bide-kurutzunean nindagon. Euriak indartsuago airarazten zuen erregebide bazterretako barruku handietarik zetorren behi urrina. Bapatean, esne hagunduna edateko eta Gaxuren sahetsean izaiteko mina piztu zitzaidan. Minaren ildotik oroitu nintzen, 1911ko apezpikutegiak kudeatu inkestaren arabera, horko apezaren ihardespenaz; herrian zer leitzen zuten galdeari erantzunez, lekuko artzainak idatzi zuen lumaz: «Ici, monsieur, on ne lit pas, on travaille la terre...». Pentsatzekoa zen, Ahetzeko managune osoko errealitatea zela Amorotzeko apezaren oharpena, orotan irakurtzea denbora galtze bezala konsideraturik baitzen. Gizon zenbaiter zilegitzen baldin bazitzaien

astekarien hostokatzea, emazteendako gizon dibortziatu batekilan ezkontzea bezain itsusi eta legez kanpokoa zen. No woman's land akulturatuan zehar zabilan hargatik, nere bidaia, Maiena Ameztoiren hatzetarik.

Oragarrera heltzearekin, Kanttuteia izeneko ostatuan aterbetzea deliberatu nuen, pixkolatzeko gisan, hotzak sobera erasotzen baininduen. Kanttuteiko etxekanderea kontuarraren bestaldean zegoen, eta adineko lau gizon baziren mahainean konkorturik, menturaz arratsaldero, xopinak xopinari, hor zeudenak, munduaren arraegiteko planetan higatzen, ez baitzen adinik horretarako. Borta bulkatu nuelarik, irri karkazailak eskapi zitzaizkien.

– Atsalde hun!

– Bai zuri e.

– Ehiza hi Bettanteikua? –lauetarik batek ausartzia izartu zuen–. Kapetut! Eztea hala?

– Bai, hangua nuzu, ba...

– Dena Mañiño zena...

– Ene oxama zun, Mañiño, doidoia ezautu izit.

– Haui guekin eateat. Ze nahun?

– Ano xortaat, ziek bezela te!

Sorbaldan adiskidantzazko zaplastekoak nabaritu nituen, eta banan bana etxeko berriak eskatzen zizkidatela, basoa bete zidan Kanttuteisak, arraposki. Kluka bat irentsi nuen. Ardoa karatsa zen. Armanek kantatzeari ekin zion:

*Orarreko gazteak beti alegera*
*Zelaitik jausten dira Ixtunen behera*
*Eskuan daukatela botila bedera*
*Nihor ez da egoiten bazterrean bera*
*Aise moldatzen dira auzoen legera*

Armanen botza apaldu zen. Arman herriko xantre ohia zen, ostirale sainduko eresiaren abesten ardura aditua genuena haurzaroan. eta Kanttuteiko gela keztatu urinzuan, sekula ere entzun ez nituen koplak bazabilzkion airean:

*Inguruan direla nausitzen naharrak*
*Ez gitu nahasiko agian aharrak*
*Herriko gaztekilan airosten xaharrak*
*Kantari on direnak bitira bakarrak*
*Liliz apain ditela haritzen abarrak*

Arño xoraturik zegoen:

– Ze uk kantu hoi?

– Radiuan behatia to!

– Ohit bihiz?

– Beharre ba...

Anartean, Anbroxi marmarikan ari zen, esku eskuinaz ahur pean berrehun liberako biletea zainduz.

– Herriko gaztiak ba! Aipa titzaun! Eztiuk gazteik gehiau!

– Moda uk uai iuaitia, ze euntsiko dira heen?

– Lanian to, gu bezela, bena auherrak tuk...

– Hirian ta eskoletan iiltzen tuk ta ddio lanian ez aizan nahi!

Solasaldia biribiltzen ari zen. Erhiaz ardo godaleta balakatzen nuen, bitrazko hegietarik hats lainoak ilkitzeko asmoz. Mekanikoki besoa altxatzen nuen, eta draga-draga ardo klika bat edan. Lau gizonen eleek burzoratzen ninduten, aspaldiko partez aztoratzen. Battitak gatza aurdiki zuen suaren bihotzeraino:

– Bena gio xomajian dielaik etxeat biltzen tuk ba.

– Hoi! Hoi!

Hitzen haria iruten zuten. Europako ardoa ahosabaian mikatz zitzaidan. Ardo merkez mozkortzen ziren jendeak, eritzeko beldurrik gabe. Gero, trenputxartzean, klinika modernoetara

hurbiltzen ziren, trinkili-trankalaka edo anbulantzietako ohe-plegagarrietan etzanik. Medikuek, ironiaz galdetzen zieten:

– Vous buvez monsieur...

– Mua, jame je bua, pa ke je sax!

Afruntaturik ateratzen ziren, jakintsunaren ahotik «edaleak» zirelako laidoa jasanik. Halaber, ostatuetako eta plaza itzaltsuetako oporrak zituzten estakuru. Anbroxi berrehun liberako bilet ez oraino andeatuaren gainean bermatzen zen.

– Jakin duzieia? Manexunen semia re xomajian diuk!

– Etxen?

– Ba, hak, sustut barkazak bena, mehexi ik; maxinak muntatuz bester lan kentzen ai zela, erraiten zaukuian; mua je risk rie...

– Auhertzirri derria! Hak mehexi ik to! Maxinek jain gitie!

– Nor aiko da ddio otepeiten?

Manexunen semeaz entzutea banuen. Michelek robotak jartzen zituen eskualdeko enpresa zenbaitetan, robot bakoitzak lau langileen heina irensten zuela. Oragarreko bestetan aditua izan

zen Michel injeniurra, maxinek iraunen zuteno lana segur zeukala oihukatzen, urgulutan sarturik, xomajian ziren bere adineko gazter burrat pagatzen, sakolak eman ahala, baina orain bere bete-beharra robot perfekzionatu batek konplitzen zion. Sistema kapitalistan nehor ez baitzen ordezka ezina. Maxinen altzeiruzko begitarteen mehatxuak uxatu nituen, ostatuan hedatzen zen alegrantzian komuniatzeko.

– Ta hi? –Anbroxik hitza zilatu zuen–. Ze aiz? Ala xomajian hiz hi re?

Ihardets nezakeen. Xinpleki azaldu nuen nere egunerokotasuna:

– Maiena Ameztoien ondotik iilki nizu, detektibe biniz!

– Kolonbo bezala? Ta nor hil du Maiena horrek?

– Nihure, senarrak zi xekatzen!

Arño karkazailka lehertu zen:

– Nik enia seurik enion luzaz xeka!

– Hik hiria usu aizuan dukala bitakik...

Arño, Anbroxi eta Arman loriatzen ziren elkarri pikoka. Giroa den mendrena lasaitzen zelarik, gai seriosagoak jorratzen zituzten:

– Baakizieia? Gue Roge eskolatik jin zaukuk anglesez mintzo!

– Anglesez?

– Baietz! Uai anglesa ikasten die! Frantsesaikin ezpitira urrun juain!

– Ho Pette Ho! Nahiukana! Frantsesa bego lehen betiko!

Arman espantuka ari zen. Anbroxik haria orratzean kokatu zuen:

– Erran datak gue Jezikak, Rogek fotak iten zitiela frantsesez...

– Trufa hadi, trufa, oldar hadi! «grandad is drunk» baakik haatik! Ea Amaia, hi eskoletan iilik bihiz, zer da hoi? Kunplimendu bat duaikezin?

Ulertua nuen. Histear nindagon. Maiena Ameztoiren kausitzeko lanetan bermatzeko partez, lau zaharren kezka europeanisten aztertzen nindabilan. Armanen eskakizunari ez nintzen mutur geratzen ahal:

– «Attatta mozkorra da» uzu...

– A! Derrien misaia! Derru fiura! Mutiko kankaila! Sahar perdia! Sokok!

– Etzitela hola samur Arman! Eskuara ikasi bazien ez zautzun holakoik errain! Eskuaraz beden xaharren errespetia bauzu!

– Eskuara? Ze ai hata hi? Enbata zikina! Eskuara...

Saltsa mintzen zen. Tenoreari behatu nion. Denbora oharkabean ixurtzen zihoakidan.

– Juan behaizit, etxeat!

– Deia? Ba!

– Te...

Ahoskatu nuen xoilik, hamar liberako monera mahainean pausatuz. Xehearen zilarra begiztatzean, Arman kasik haserretu zitzaidan:

– Bakiaman haurra, otoi!

Agurtu nituen lau zaharrak. Armanen zapata berezietaz jabetu nintzen bapatean eta ausartzia tiran nuen:

– Nuntik tzu espartin pullit hoik?

– Paregabiak, biak bardinak, ttattunak tin ba... –gehitu zuen Anbroxik.

– Nun eosiak tzu? –kurios nintzen halarik ere–. Donapaleun?

– Pentsa! Amikuzeko oihanian batun bil ahala, buatak iek ta har...

Ahoa bete har zegoen Arman, ezpainak plegaturik, irri-hegian:

– Izenik ta markaik gabe tun, aski biltzia; Biaxuneateko bidian...

– Noizez gioz han dira?

– A hoi? Gaixua... Guk ezpitakigu...

Airostasun etilikorik erraldoienean despeditu ninduten, eta euri zaparrada pizuak abantxu maikatu ninduen kanpoan. Euria bera ahantzia nuen Kanttuteian egon nintzen ordu luzeetan zehar. Gau berriaren lagun atera nintzen.

Autoan pentsamendu analitikoetan higatu nintzen: ez zirena, bada, Xardoi zelakoaren espartinak Armanek oinetan zekartzanak? Jeffen begirunea merezituko nuena trafikoaren harahonata zilatzen baldin banuen? Maiena Ameztoi non zegoen gordea? Balio zuena Ilarrera joaiteak? Nor aurkituko nuen han?

Galdeak nahastekatzen zitzaizkidan buru zokoan, eta arrapostuak atzemaiteko astia doi; agudo etxeko borta-aintzinean nindagon. Sukaldeko leihotik argia ageri zen, eta mugimendu frango barnean. Biharamonean Bidaxune aldeko Amikuzeko oihana mirazkatzeko xedea plantatu

nuen; gisala han, gau zenbaitetan harrabots handiak baziren, eta nahi nuen jakin haur-denborako ixtorio-mixterioak harrotzen zituzten laminen lanak ziren edo zeozer ikustekorik bazuten Armanen oski xugunekin.

Sukaldean aixolbetu orduko, amak zopa beroarazi zidan, anaia auzoko laborari batekin solas ozenzuka ari zen bitartean:

– Nun hitzartiak giela?

– Ba, Ttarroteiko loiruan, han juntatzen gituk, ta kamiuna blokatzen diuk!

– Atxiiko tiuk ba nunbeit, nahiutena bezik eztie iten uai artio!

Anaiaren ele pindartsua moztu nuen:

– Noat ai zizte? Ze behauzie blokatu?

– Esnekariain kamiuna no! Bena sekretia un... –agertu zidan anaiak.

Banekien haraintzin hartarik, ardi eta behi esne ekoizleak esnetegi industrialen aurkako borroketan sartuak zirela, mozkinen prezioari zegokionez. Banekien, gauez-gau Boncolac lantegia «okupatu» eta kooperatibako buruzagia ere bahitu zutela, «eperrak baditizü bere bi hegalak...» xuxurlatuz. Ekintza horietan parte hartzen

zuten, ELBren gidaritzapean, «zaharren» jauntto-ekiko mendeetako lotsa gainditu z.

– Memenatei gue kuntra diuk! Beldur duk ez-takotela esnia bilduko!

– Ta iazten balin baduu? Uste uka gue kuntre izain dela?

– Fedekuak holakuak tuk, ze nahuk!

Hitz bakegarriak erranik, anaiak whisky boti-la bat ilki zuen armairutik, eta auzoari luzatu.

– Hau hun diukek, aiduru gaukelaik!

– Biba hi! Guazen!

Alaitasunak –borrokarenak...– sukaldea aban-donatu zuen. Arraultza eta xingar - txinkor - ur-daiazpikoa jastatzen ari nintzen, etxeko ardoz mukurru bete baso baten aintzinean. Ama ez zen umorerik hoberenean, kartierreko laborari kexa-tuek laneko ohiturak nahasten zituztelako:

– Eun e behiak deitzi gabe juan tun!

Behiak, prezeski, marrakan ari ziren, eta esne-tankeak huxtuka, debaldetan bezala. Hoz-kailuaren mihia hutsean itzulikatzen itxuratu nuen, ametsaren zurrunbiloan preso nindagola-rik. Ametsaren bidea ederra zen... Bide bakarra ote?

Kanttuteian kurutzatu gizon adinduak izpirituan tilingotu zitzaizkidan, eta nioen: herri honen geroa iluna da, herri honetako jende guzien etorkizuna hitsa, baina bada hormatze garaietan izotz artean kantan ari den txori gosetuak duen ihardok-gutizia bat gutarikoen bihotzetan, mendiak eta mendeak uxkail litzazkeena. Trixturaren zamak inharrosi ugarte hartan, funtsean, esperantxa lili zitekeen, gutien ustegabean.

Ederra zen, ametsaren bidetik, burua aldiro makurtuz, ezizaitez hantu oldarsarearen erroa, urrun bazihoan, erroa, eta horregatik, grisaren erresumaren mina laket nuen, ororen gainetik, hazi eta besteak nola, hezi ninduen lurraldea. Gaxu barne.

Esperantza nuen nik ere.

# –13–

Ixtunen gora banindoan 4L zaharkituak karreatzen ninduela, Uhanetik Zelaira, amoltsuki gogoratuz goizean behi marraken erdian irratiak *Lau teilatu* kanta «klasikoaren» murmurioa ekarri zidala. Abestiak «ta berriz izango gara zoriontsu edozein herriko jaixetan» errepikatzen zuen oihu samin baten moldean, eta kantu haren edukina Baionako geltokiko altzairu mingaitzer uztartu nuen entzunaldi maitekor behintzat lasaituan.

Ixtune zolan buldozerrak ari ziren etxe-erori baten hondar harrien barreiatzen, memorietarik betikotzat kentzen bezala. Laster, lurras zegoen etxelarrak dantzan jasan zituen aterbearen lekua. Etxe-erorien destinua gu guziena zen funtsean: sortzean eta eraikitzean uste genuen eternitatearen jabe ginela, baina gure zinezko destinua desgerpena zen, Pattarreneko hautinaren gisa.

Kasu horretan, adibidez, ttipitik usaturik ginen Pattarreneko mahastiaren sahetsetik iragaiten, negu-minean hautin laia basak zilinpurdi-

ka miresten eta usaintzen, udaberrian mimen iranja-kolorekoen ebakitzen, xirmindu idorrak metatzen, udan mahats-molko gordin ilunak mitrioleztuak estimatzen eta larrazkenean... lehen ardoaren gozatzen. Zoanak eta barrikak loroietan urez hantzen, brentsak kliski-klaska monotonoetan ezkaratzak betetzen... sofre urtu urrina... eta lehen ardoa... zoanatik xirrixtan... bizitzaren edaria... mahats-molko zangopilatuen zauriaren ixuria... odolaren parekoa.

Larrazkena urrun zen eta bizkitartean zerua gris. Oragarreko plazatik pasatzean, egarria pairatzen nuen, gazte zenbaitek eratxeki Korrika 8.aren iragarkinak begiztatu nituelarik. Amamaren erranetaz oroitu nintzen:

– Korrika? Ze uzie hoi? Zien errogazionetako proosonia ala?

– Aantxu ba...

– Paano derriak! Nik ardika manatzian etzizte hain zalu ez!

– Ze nahuzu amama.

– Ardika etzie iitu nahi e, etzizte deusendako hun!

– Otoi...

Xaharrek, bada, nola konprenituko zuten alabaina, etxeko ardoz erdi-mozkorrik, larruzko paltoak soinean, zertara gindoazen autoak mukuru, Mehaineko bide-juntara Korrikaren bila? Haiek mugitzen zirenean, gehienetan, lanerako zen: hazindaka, merkatura edo mezara. Doidoia irauteko oinarrizko indarretan higatzen ziren, eta gure jendartearen egoera ekonomikoa hobetu zitekeen, arra-haurrak «euskara» zen debaldezko hornituraren alde mobitzen zirelako, guti edo aski.

Oragarreko hilerriaren parean gelditu nintzen, zigarreta baten biltzeko. Gaxu neukan buru-zokoan ihardespenik ez zuten galdeen hari. Hilerriari so egoiten nintzaiolarik –nere etzidamuko aixolbea!– zerbait ments sentitzen nuen: harrien arteko zipre-ondoetarik bat bederen moztua izan zen aspaldi zuela, eta ilargia harrapatzen zuen zuhaitzaren erro ageriek memoria kilikatzen zidaten. Tratur animaleko baten puntan zabilan herritar bat agurtu nuen, bihotzeko ziloa ahantziz. 4L-an sartu nintzen Arrutako arrabotean Gaxurekilako hitza neukalako, bederatzietan xuxen.

Inguruak irakurtzen nituen. Oraino ere pentze berriak udalatuak izan ziren, belarrez ereinak, edo arto-zango ustelduz estaliak. Larreolaz zikindu pezak dagoeneko bekan ziren, eta han beherean nabarmentzen zen artoen urestatzeko presondegiratu Laskuetako errakattoak busti aintzirañoa. Aintziratik Itoiz-era joan zitzaidan pentsamendua eta «eguzkirik gabeko goiz tentel honetan...» aireak ildozkatu zidan golkoa. Nere –gure araiz!– herrialde buluziaren bizkarrezurraren eta gaztaroko besta hunkigarrien nostalgiaz nindagon. «E... zein goxoak diren hire bideak...» marmazikatu nuen, barnea ximikaturik. Kitarra eletrikoa itxuratu nukeen errege-bidearen ipularreko ote-lilien epaile.

Lantzurda hasi zen, Arrutako kurutzunera heldu nintzelarik. Plazarainoko malda-apalean *Lau Teilatu*-ren hiru lehen soinu-akordeak biderkatu zizkidan iragan-minak eta autoa hil nuenean «edozein herriko jaixetan» ahoskatu nuen, herrialde buluziaren ahuspez.

4L-tik jautsi nintzen. Euri kokinak trenpatzen ninduela, goizeko eztakit-zenbagarren zigarreta meharra plegatu nuen, Gaxuren haiduru. Tabako

paper xehea erhi gainetan lotzen zitzaidan. Tematzen nintzen. Gogotik piztu nuen gero enbor mehakoila eta ezpainetaratzean oroitu, Gaxuren goaitan baino, Maiena Ameztoiren gibeletik banindoala. Gaxu tenorean jinen zelako segurtamena nuen, ordea Maiena Ameztoiek kilometra parrasta bat eginarazten zidan, beharbada, esperantza hutsean. Hala ere helduko nintzen eta Maiena Ameztoi ez zen neretako misterio geratuko.

Arrutako plaza arraberritua lantzurda xotilak hezten zuelarik, bapatean, Xaxi Errekondo xaharraren aurpegiak trebeskatu ninduen. Goizean goizik kurutzatzen nuen Mauleko karriketan Basabürüko emaztea barrandan, urrats agudoan, iraganaren ondotik zotükatzen bezala. Nakienaren arabera, Xaxi berant ezkondu zen, eta senarrak besoak eman ahala zanpatzen zuen. Ez nuen sekulan Xaxiren senarra ikusi, eta laurogei urtetan berdinki, ertzo-bultak bazetozkion noizetik noizera.

– Ta? –brauki galdetu nion–. Ez zünüen haurrik üken?

– Beharre ez! Erran zitazün senarrak, haurrik balin bagünüan, ene kontre altxatüko zütüala! Badakizü, han, soldadogoan, eritarzün bat atzaman zizün, partidetan, ta nik ere ez nizün haurrik ükeiten ahal... Fibronatik operatürik izan nüzü.

Irri eztiarekin bururatzen zuen solasa orduan Xaxik. Eta adin handira heldu emaztearekilako amodio erraldoiak kateastatzen ninduen. Amodioz baino, ihardok-indar ikaragarriaz iraun zuen Xaxi Errekondok, herri honetako emazte frangoren maneran.

Behi esnadun saldo baten marrakek agortu zidaten pentsamendua. Ordulariari behatu nion, eta bederatziak et'erdiak zirela ohartu nintzen. Gaxu ez zen jiten. Plazaren ertzetik laboraria zetorren, akulua sorbaldan, huxtuka behien atzetik. Hogei betruin zenbatu nituen, errapeak lurrean herrestan. Gizona, anaiarekin eta auzoko gazteekin, esnekariaren kamiona trabatzen imajinatu nuen, ELB plantatu ekintzetan. Baina behiek errapeak pizuegiak zituzten eta laborariak zintzoegia zirudien. Azalezko jujamenduen egitea itsusi zela niolarik, Gaxuren zain egoitea debalde zitekeela erantsi nuen.

Autoan sartu nintzen, amiñi bat kexu, eta irratia piztean Hertzainak aditu nuen: haserre ginenean gazteiztarren musika, eta anpletzean motrikuarrena. Horrela partekatuak ziren gure denborak. Arrutako plaza, behiek utzi usainaz gozatzen abandonatu nuen, Martxutaraino bideratzeko.

Donapaleutik Bidaxunerateko errebide nagusia kitatzen nuenean, Martxutan gaindi abiatzean, zinezko Behe-Nafarroan galtzen nintzela iduritzen zitzaidan. Gaxu nere ondoan nahiko nuen, nigan bizi zen nafartasunaren berri emaiteko. Gaxuren faltaren aldeko mila estakuru asmatzen ari nintzen, eta balizko aitzakia bakoitzak bakardade sentimendu larrutua sortzen zidan. Barkatzeko prest nintzen hain ziren buluziak zeharkatzen nituen lurrak, non herrak edo gorrotoak ez zuen hazteko tokirik. Arto-zango hirotuak, laborariek jasan aitzinamendu ekonomikoaren gerla-zelaietako lekuko ahulak ziren. Artoaren ekoizpenak, Mississippi aldeko esklabo beltzen kide moldatzen gintuen, udaran, kukuletan artzen ginelarik adibidez, blues zaharrak nola –*too long in exile...*– kantore berriak, lerro-

en luzada laburtzeko asmoz, orroaz abesten genituelarik. Guk, Mississippiaren ordez, Erreitia ibaia geneukan, Ahüzki-petik Aturriraino zoana, *watching the river flow* deiadarkatzen genuen bitartean, arto hosto labainek lepoak, besoak, papoak, zangosagarrak lardeskatzen zizkigutelarik.

Bidegaineko ordokiño batetan kiwi peza bat hedatu zen ortzaizean: hara, pentsatu nuen, *once again, slavery, under the rain...* murmuratzen nuen. Gaztaroa, heldutaroa, zahartzaroa, lurrak bortxaz eskaini frutuen biltzen higatzekoak genituen. Gaxu ments nuen. Bizkaiko kurutzuneko haritz zaurituak minartu ninduen, eta arrunt Labetzeko arrabotean aurkitu nintzen. Labetzeko hilerrian ziren kurutze-borrobilak miresteko tentazioneari ez nion uko egin. Hilerriko garailetan murgiltzen ziren nere hatzak, herioaren eremu metaforikoan, eta Gaxuren presentzia derrigorrezkotik urrun, orlegitasun umea mehatxugarri zitzaidan.

Ahal bezain laster utzi nuen leherrunea, eta Erreitiako zubitik lehentze pasatu nintzen. Harri gune gora batetan behera tilingo ziren huntzhostoak eta haien punta urgulutsuak, buztin

errautsez lohitu uretan mainatzen ziren. Erreitiak, Amikuze eta Ostibarre osoaren sabel-minak zeramazkien itsasora, ahanzmenaren itsasora agian. Mare Nostrum desiratuaren ezpondetaz ametsetan urtu nintzen, eta konturatu Ilarreraino oraino bi kilometra bazirela kurritzeko.

Ortzaizean, ke zutabe bat altxatzen zen; deika eta deika ari ziren jendeak beti, indioen gisa. Ilarreratzean, plazako etxe batetan gelditu nintzen, herri hartan Petteko izeneko gizonik bazenez jakiteko. Herri xumearen ixiltasunak jo ninduen, eta txorien xixturik ez entzutearen lotsak harrapa-zorian nindagon. Ateko xilintxa mugiarazi nuen. Ezkaratzeko bortatik begi-ukaldi bat bota nuen: ezkaratz erdian berogailua zegoen zurrungan, hormetan dilingo idi-uztarriak eta bazterretan armairu zaharrak nixtan. Andere bat jin zen nere gana. Beldur hotza gainditu nuen.

– Barkatu, badea Petteko deitu laborariik Ilarren?

– Baaa, bauzu ba, Lou-Harditeneko nausia, nausi gaztia! –irri trufakor bat gorde zuen andereak taulierraitzinekoa murtzikatuz.

– Lou-Harditenia? –segitu nuen–. Nun da?

– Juiten zira xuin-xuina ta han zu ezkerretaat...

– Mertzi biziki.

– Zee? Hatzeman dakozie aita ala?

Karkazail galantaz hustu zen anderea. Xehetasunak ardietsi orduko hastiro nuen egoitza sano hartako etxekandere moko-fina. Autoan kokatzean errepikatu nuen nerener:

– Astaña, derrien astaña. Hik oro plano bitiztun!

Deliberaturik, Ilarre zeharkatuz «xuin-xuina» abiatu nintzen, urrunago Lou-Harditenerateko xendra lohitsuaren hartzeko. Lohi-zipoetan nekatzen zen nere 4L-a adindua. Eta artoz mukuru bete kriben artean, ahateek eta antzera umeek –gitek eta piuñek orobat...–, zilatu urmael ilunak zenbatzen nituen. Etxera hurbiltzen ari nintzen. Abere xeheek larrutu elgeek setiatzen zuten Lou-Harditenea. Munho apal baten kaskoan nindagola ohartu nintzen, eta Erreitia erreka zabala zolan nagi, auher, geldo, urez hanturik nakusan.

IGNko kartaren aztertzeko beharra nabaritu nuen: Xubiko pareta izena zuen munhoak eta lekuaren izendatzeak eman zidan pozaz, arratsal-

dean Gaxuri telefonatzea erabaki nuen. Jakiteko. Xoilik jakiteko.

Kribak eta ensilaje metak baziren etxe-ondoan, baina Lou-Harditeneko loiroa zimentatua eta muntto-munttoa zegoen. Hangar baten itzaletik jiten zitzaizkidan gita ttipien txio-txioek beharria zihikatu zidaten, eta xakurra xanpaka hurrandu zitzaidan. Urdendegi urrin bortitzak trabatu zidan usaimena. Lou-Harditeneko bortan nintzen. Gizon luze eta fin batek ideki zuen atea.

– Bun dia, eun hun, noait xekatzen uzu?

– Ba...

Zintzurra koropilaturik neukan, eta begiak beherean, debaldetan, lurradarretan zintzilikatzen zen Erreitiaren ibarrari josi nituen.

– Kin te ba? –ausartu nintzen.

– Pla, herre herre pla, ze nahuzu?

– Ba, Petteko delako batekin mintzatu...

– Ni niz. Ze karietarat?

– Ba...

– Sar zite, aitzina.

Ezkaratzeko argi-eskasak soa irentsi zidan. Esplikatu nion nor nintzen, zer bilatzen nuen eta noren kontu nindabilan. Harridurarik gabe beha-

tu ninduen Pettekok, nere haiduru izan balitz bezala, eta sukaldean aterbetu baino lehen, amodioak troxatu ahotsez aitortu zuen:

– Ama maite izit hale...

– Bai, dudaikezin...

Sukaldetik, andere botz galdekari inkieta aditu nuen:

– Ke ei?

Salatze moduan, Pettekok azaldu zidan:

– Maztia Bastia Biarnoko izit.

– Biarnesa beaz?

Petteko sukaldeko mahain handian jarri zen, eta aulki baten hartzera gomitatu ninduen. Emazteak bi baso eta pinta bat ardo jalgi zituen armairutik, bakoitzaren godaletak arradan betetzeko.

– Akeste baskurrail...

– Ke't aprei la Marie! –zuzendu zion Pettekok, eta emaztea, supazterrean ttottotu zen, doidoia ulertzen nuen hizkuntza batean marmarikan.

Agaramontesen lurralde ohiak laupabost mende zuela euskaradunak ziren, eta euskararen mugak uhertzen ari zirenez gero biarnes gehiago bazen etxeetan. Estado zapaltzaleek,

gure bereizteko, bi ethnien artean herra sorrarazi zuten, eta elkarri mehatxuz zein mendekuz begiratzen genion. Kontaktu gune horretan, bearnesendako euskaldunak urguluntziak ziren, eta alderantziz euskaldunentzat bearnesak elexuridun faltsuak. Olueko ibaiaren eta Erreitiaren haranen bizkarretan hedatzen zen bi herrialdeen amets debekatuen erresuma. Bizkitartean Lou-Harditenean nintzen, bakar-bakarrik, emaztea murmuzikan bearnesez eta gizona euskaraz ari zirelarik. Pettekok baso ardoa erditaratu zuen.

– Donapauleko apez-nausiak hatzeman zakozun gizungei galanta, ta ddio, hunaat jin gintzun bizitzeat.

– Ba, hoi baakizit.

– ...gerlatik landa behar zizien ezkundu, bena aitaizuna gerlan hil zun, ta...

– Ta?

– Ama etzun bate akoomatzen belemerraikin, semia Alemañian zendu zakolaik, kanpo ezarri zin, ta ni heen atxiki, baakizu, ondoko bezala... Ni plantatu artian, hola bizi izan gitzu, etzit deusen eskasik ukan, sekulan, amak aldiz...

– Noat juan zen?

– Ba, Biaxuneko meiku baten etxen sehi plazatu zizien...

– Nok?

– Ba, delako Donapauleko apez-nausi hak... ta amak etzin ene ikusteko dretxoik.

– Ordian, etzu nihoiz zure ama arra-ikusi?

– Ez... Salbu behin, Peiroareko merkatian amamaizunaikin nintzalaik.

– Elgarri so eon gintzun urrunetik, ttipia nintzun ba, ta nik amainganat eskapatzeko enbeia nintzin, errabia bat terriblia, gauaz ta beti, errabia. Soldadogua Algerian in nintzin, ta hantik hunaakuan ama hil zitzaala erran zatazien...

– Uste uzia hala dela?

– Haaa, ezpitakit, ddio ezkundu nintzun.

– Haurrik bauzieia?

– Bi, seme-alaba; bena sortu ta zortzi eun barne gorputz zitzun, ahultxe...

Ixiltasunak tinkatu zuen Lou-Harditeneko sukaldea. Airearen uhargitasunak hormako ordulariaren joaldiak biderkatzen zituen, buruko arroilak mailukatuz. Hegatz-pean, itaxuraren behera, euri ttanttak lerratzen ziren, aspaldian ehortzi minak iratzarrarazi nahian bezala. Teilatuan,

amodio galdez, urxoak ruku-ruku aizinant-ka zabiltzan, jende xoilen penen axolarik ez bailuten. Mututasuna ebakiz eskatu nuen:

– Biaxuneko meiku haan izena behar nikezi.

– Darrieu, Larrieu, edo zeit holako...

– Juain nizu hain bisitatzeat, balinba...

Irri xeheaz alegeratu zen Pettekoren begitartea. Urruneko haranean, mendiaz bestaldean funtsean, Ilarreko –edo Bizkaikoa zen...– zeinuak eguerdi ospatu zuen hamabi kolpe ozenzuz.

Ipar haizea zen.

# –14–

Bidaxunera heldu nintzelarik arratsaldeko bostak iriak ziren. Maiena Ameztoiren bilatzeko inkestaren erdaitzari tinki uztarturik nintzen, bihotza uhalez inguraturik, egin behar baten gisa barneratzen bainuen lana, sustut Pettekorekin solastatu ondoan. Darrieu edo Larrieu medikua bizirik ala hilik zen norbaiti galdegin baino lehen, Gaxuri –ene begi urdiner!– telefonatzeko erabakia betetzekoa nukeen.

Autoa Bidaxuneko herri aparkalekuan utzi nuen, eta urratsez-urrats Postara bideratu nintzen. Argi herbailak iluna zilatzen zuen Postetxean, eta enplegatuak burua altxatu zuenean erdeinua irakurri nion begitartean.

– Deitu nahi nikezu.

– Ba, zoaza, kabina libro duzu.

Gizonak erdaraz ihardetsi zidan, hozki. Ez nuen hoztasuna onhartzen. Ulergarri zitzaidan ordea, pobre herresta moldean jantzirik nintzelako eta hezurretaraino bustirik. Gaxuren zenbakia marraztu nuen emekiño. Donapaleuko egoitzan

txirrina hamar aldiz marrakatzen entzun nuen: debaldetan. Gaxu atera zen goizean, Arrutako plazan geneukan hitzordua arras ahantzirik. Tristura latzak kordokatu ninduen, alabaina, Ilarreko Lou-Harditenetik Bidaxunerateko xendra luzean, nere gogoa apailatua bainuen Gaxuri eguneko azken berrien kondatzera, eta amodio aitormen iduriz antzua ere prestaturik neukala zergatik gorde? Lantegi ohiko emazteen maneran, hitzen artean hatsik hartu gabe, barra-barra ozenzuan zen-zenaren erraiteko xede fermua nuen. Hitz saldoa, kabina geldoan, ezpainen mututasunetik ez zitzaidan idaroki. Telefonaren aterbe thepotik jalgi nintzen, negar-zorian.

– Ez dut lortu!

– Badakit.

– Agur.

Postatik kanpora abiatu nintzen, nihauren balizko jendetasunaz dudan. Aministrazione Publikoaren aixolbeetan kokatzen nintzen aldiro zalantzak banituen: emazte edo pertsona baino satorrago nintzen agian, hitzegin zezakeen aberea seguraski ez. Estadoak horrela menperatzen gintuen, sator, zizare, marmutz edo kakamarro xoil

ginela sinetsaraziz. Ordea, tsikilihara, duda inharrosi nuen eta gitxetean zegoen gizon milingaren ganat itzuli nintzaion:

– Nun bizi da Darrieu edo Larrieu medikua?

Denbora eman zuen arrapostuaren nagitzeko. Eskea errepikatu nion hurbilagotik. Enegu latzaren zigilua zekarren ahorpegiko ahoa ideki zen, arto-paperezko zigarretek horaildu hortzak erakutsiz.

– Erretretan duzu.

– Baha, bena nonbeit bizi dukezu?

– Han, lotizamendu berrian.

Ez nuen gizona eskertu. Karrikan nintzen berriro, euripean. Uharra orain zeharka jausten zen, bizidunak epaitzeko lehiaz. Harritzen nintzen jendeak zenbat indar-azta galtzen zuen, kideen mexpretxatzen, ezazagun eta inutil sentiarazten.

Alta, ordu batzu lehenago zoriona jastatzen nuen, esperantza amiñi baten itxura, Lou-Harditenetik Bizkaiko Erreitia gaineko zubitik iragaitean adibidez. Bearnesa izan arren, Pettekoren emazteak –derragun arrunt bearnesek euskaldunek nola ontsa jatea laket dutela...– eguerdiko

bazkariko kozinatua zuen xamangoa plazerrekin milikatu nuela. Xamangoa, heinean egosia zen, eta laguntzen zion tomate saltsa ezti zitzaidan, Lou-Harditeneko ardo mikatzaren aldean. Gasnaz ase nintzen bukatzeko. Mahainean zegoen puska handia kasik erditaratu nuen, gormant agertzeko lotsaz desjabeturik. Kafea berant baizik ez zen azaldu. Petteko ele eta ele ari zen:

– Amain ikusteko debekia handiau, ta nik gutizia oono latzau, lehenau baakizu, emaztiak ta haurrak aise...

– Ba...

– Donapaleuko apez-nausiain jukutriak, bekatu umen zenain gordatzeko! Beti amain kaltetan, beti haundikien honetan.

Akort nintzen Pettekoren erranekin. Oroitu nintzen, 1889an nonbait leitua nuen Etcheberry Mauleko apez-nagusiaren idazkiaz: «La femme est un instrument précieux dans les mains du clérgé...». Naka-naka martzikatzen nuen gasnaxerra abantxu aurdiki nuen, perpausak sortu nazkaren eraginez. Baina, ez zuten apezen edo notableen solas larderiazuek ebakiko nere gas-

naren azken purruskaraino gozatzeko (auto) determinaziñoa.

Pettekori so geratu nintzaion, pairatzen genuen munduaz kezkatzen. Gasnak ahosabaian urtzean eskaintzen zidan atseginetik, Independance Day hark josiko zigunera pasatu nintzen: egun hartarik goiti, apezek eta notableek eraikitzen zituzten eredu bortitzak erroz-gora botatuko genituen, bizitzeko makurrak nehoren irririk iraungi ez zezan, gizonek emazteekin, emazteek emazteekin, gizonek gizonekin, haurrek aitamekin, amekin edo aitekin iraun zezaten ingurumenarekin partekatu irustasunean; jagoitik lanean hasi beharko genuen, botere-baltsak, zapalkuntza erro bekaitzak, erdainu-jeinuak oro suntsituz. Gure intelektualak eta politikariak aberetzen gintuztenekin harremanetan higatzen ziren, Independentzia sekulan etorriko ez bailitzan. Baina, gu, heren-mundutar minartuok, segur ginen D-Day haren usainak laster zorabiatuko gintuela; ametsaren ildoa hautsi zidan, gasna-azal gogorrak iratzarri hortzeko minak. Petteko ikusi nuen bisean-bisean eta Pettekoren andrea kikerak eskuan, kafearen zerbitzatzeko prest.

Bizkaiko bidean sartu nintzen, Erreitia harananaren pareko mazelan gaindi, Hiriberriraino gidatzeko. Kurutze histua altxatzen zen juntara heldu nintzen, eta han behera Villenave-Hiriberrira jautsi.

Hiriberriko hamabigarren mendeko elizaren maldan, ustez, Felixi Suhasti begiztatu nuen. Keinu arrotzaz elkar agurtu ginen. Alabaina, Bizkaiko Jauretxearen sahetsetik iragaitean, euri arrasalariaren menpe zabilan zaldun plegatuaren agerindeak nahasi zidan gogoa eta urruntxago Felixi Suhastiren itxura konkortua uhar urrikigabeekilan tematzen zela iduritu zitzaidan.

Iduripenak iduripen, ibaietik jeikitzen ziren laino artean, Hiriberriko eliza erromanoaren aintzinetik, bigarren aldikoz Erreitia trebesatu nuen, Burguerantz. Nafarroako edozein herrixkaren egitea zuen Burguek: karrika bat, bazterretan zurezko balkoiez hornitu egoitzak, elizak eta gerletan zenduen ohoretan landatu oroitarriak baizik ez zuen frogatzen Burgueren frantses izakera.

Burgue Burgirekin ezkondu nuen, eta duda uxatuz, nion, herri honen eta urrunago zeuden

Arankuren edo Akamarreren nortasuna nafartartasunean –txapel gorririk ote?– oinarritzen zela. Nafarroako Erregeak –Ibañetan harriotz zegoenaren menez agian!– eman eskubideen arabera, menturaz Goinafarroaren laguntzaz, emendatuak ziren miresten nuen deserriko jende-gune gaurregun desolatuak, hustuak.

Konpostelako bidean, Bidaxuneko Agaramuntes handikien itzaleko herritarrak ziren atzoko mugazain linguistikoak, oraingoan, herkideak ziren zaindari ikaratiak. Oragarretik, Arrutan eta Gabadin gaindi, Donapaleuraino zihoan marra visibile et invisibilearen honaindian. Bihar... Eremua hertsatzen zitzaion amodiozko gure mintzairari. Laster hatsanga desagertuko zitzaigun eta ixilik iraun beharko genuen.

Mauleko eihera amildu baten hormetan idatzi Belatarren zuhurritza zerabilkidan golkoan: «Atzo hala, Egun hola, Bihar ez jakin nola...». Biharrekoaz segur ginauden. Etzikoak eta etzidamukoak hazten zigun esperantxa ordea.

Bidaxuneko lotizamendu berriari buruz neramazkien hatzak. Erreitia peko arroila idekian pausatzen zen, eta lotizamenduak egun argiz

bixta ederra zukeela onhartzekoa nuen. Ordoki xabal batetan herrokatzen ziren etxe guziak antzekoak aurkitu nituen, halako monotonia bat, lotizamenduen monotonia hain zuzen ere. Leihoen koloretarik baizik ez nituen bereizten ahal. APL eta alokazion lojemen zelakoen lauhazkaz betetzen zitezkeen etxeetarik ez zetorren azantz mikorik.

Harrapatu lehen etxeko baratzeko jela edo xehela bultzatu nuen. Burdinazko ahur tinkatuaz jo nuen atean. Bigudiak kaskoan eta begitartea kremaz estali hogeita hamar urteko emazte batek airea eman zidan. Ez ninduen Postako langileak baino hobeki konsideratzen.

– Nun bizi da Darrieu edo Larrieu medikua? –galdea irautsi zitzaidan.

– Darrieu! Ze nahi dakozu?

– Elestatu, harekin elestatu.

– Darrieukin?

– Bai.

Bilo xut-xutenetik zapata zoletaraino aztertu ninduen, aldi berean kurios eta mesfidant. Azkenean, ihardespena askatu zuen, gogoz kontra bezala:

– Hortxetako lilitegiaren gibelean duzu...

«Milesker...» xoilaz bukatu nuen solasaldi zuhurra. Eta xuxen-xuxena lilitegira abiatu nintzen, doibat samur. Etxe umila zuen Darrieu medikuak. Txilintxa inharrosi nuen. Minuta luze bat ahitzez, urratsak entzun nituen bortaren atzetik hantzen. Argizpia hedatu zen jadanik iluna zen baratzean.

– Gau on! Darrieu medikua zira?

– Ba, baina baduzu urte frango ez nizala ari.

– Maiena Ameztoietaz hitzegitera natorkizu.

– Ala, pentsatzen nuen ba, ez zinela eri!

– Ez, apentziarik ere ez, osagarri onekoa niz!

– ...eritu artean! Aintzina! Zauri!

Egongelan sartu nintzen. Liburuz kukutuak ziren gelako murruak. Enziklopediak eta munduko literaturako obra nagusiak nabarmentzen ziren, laket zitzaizkidan idazleen hitzak oro hor zeuden errauspean ahantzirik. Sukaldetik beharbada, hurbildu zen Darrieu, egongelako mahainean whisky botila bat eta bi godalet pausatuz.

– Jar zite arren. Karlos higatu niz, ez bita aise ezkuntzea ofizio hau delarik!

– Alta...

– Sosa irabazten dutela sendagileek?

– Bai horixe!

– Ni, kartier huntan, usu kitorik euntsi nizu.

Ixilik geratu nintzen. Whiskyaren ixuriaren oihartzuna basoetan hausten zen, eta lotizamenduko gaua zakurrotso baten xanpa elkorrak bete zuen.

– Zer dakizu –ausartu behar nuen– Maiena Ameztoietaz?

– Ene sehi izan zela, hogei urtez, jendeek biziki maite zutela, arras esku trebea zuela haurren sortzeko.

– Haurren sortzeko?

– Bai, hemen ez zen emaintsarik, erakutsi nakon eta enekilan jiten zen, eguneko edozein tenoretan, emazte goxoa zen Maiena, biziak ez du ainitz lagundu, gaixoa.

– Erretreta hartu duzularik, norat joan da Maiena?

– Ameriketara...

Nere logika moztu zuten medikuaren agerpenek. Bazen hilabete bat baino gehiago Amerikak burumuinean loturik nituela eta hara... horretan bukatzen bide zen neraman inkesta neketsua.

– Ameriketara?

– Ba, etxe berri huntan enekin egoitea proposatu nakon, xahartasuna elgarrekin partekatuko ginuela, bena, badakizu, jendeek erranen zutenaren beldur zen.

– Zuk maite zinuena? Enfin, Maienaz amoros zinena?

– Bai.

Izotza jarri zen gure artean. Izotz zuria. Ipar haizeak ekartzen zuena, Siberiako zoko urrunenetarik. Izotza. Hatzikaratuak asmatu nituen behatzak, eta Gaxutaz oroitu nintzen. Neskalagunaren falta luzatuago eta maiteminak astintzenagotzen ninduela sentitzen nuen. Izotza gatik, medikuak goxoki jarraiki zuen:

– Ez duzu konprenitzen ahal, gaztexe zira hortako!

Ez nintzaion oldartu eta utzi nuen segitzera.

– Hitzerdika mintzo ginen, azkenean, amodio ehoa baino nahiago nukeen adixkidantza erre hura...

– Semea aipatzen zautzuna?

– Bai, ta nola! Petteko mihiperatzen zitzaion aldi oroz, nigarrez hipaka lehertzen zitzatan...

– Ameriketara juan zen beraz?

– Baaa, gaixoa, gaixo Maiena!

Elea ebaki zen. Whiskyak ahosabaia sutaztatzen zidan. Medikuaren erhi meheetan pausatu nituen begiak. Behatz ausart berek jendeak milaka sendatu zituzten –ardura urririk zionaren arabera– eta askotan hatsaren azken hasperenaren lekuko izan zitezkeen. Maiena zaintzen ahalko zuten. Maiena laztantzen ahalko zutena? Ebakuntzaren urrakotik fidatu nintzen:

– Bon, ene lana finitzen da hemen. Bazinakiena esposatua zela Xiberoan?

– Bai. Badakit zerendako ihes egin zuen ere.

– Senarrak ez dio oraino esplikazionerik kausitu.

– Senarrak!

Irriz hasi zen medikua. Alegera faltsu hura lasaitzean erran zuen, Erromatar zententzia xuhurren moduan:

– Senarrak!

Lehentze nituen horrelako hitzak behatzen, baina gehienbat, medikuaren solasekin akort nintzela onhartzen nuen. Agiantzen nukeen, mututasunean bermatuz, ihesaren funtsa argituko

zidala medikuak; ordea, segreturik segretuena bezala atxiki zuen eta hondarrean, erabaki nuen, nintzen keinkan, zergatiaren funtsak axola guti zuela neretako, Maiena ez bainuen sekulan atzemanen, edo sorte onarekin kondatu beharko nuen.

Zergatik ez. Lurra biribila zen eta bideak beti nonbait kurutzatzen ziren. Amets itsu batean lerratu nintzen, hitzik gabeko ametsean.

Whisky botila ttilikaz ttilika erditaratua genuen. Medikuak bere esperientziak kondatzen zizkidan, botz leun eta apalez. Lotizamendua ilunak irentsia zuen jadanik. Ordulariari behako bat bota nion, eta orratzak arratseko hamarretan geldituak ziren. Zutitu nintzen. Medikua bere harrera gozoaz eskertu nuen eta kanporatu nintzen. Ateratzear nindagolarik, medikuak besainga eztiki hunki zidan:

– Ez duzuia jakin nahi zendako eskapatu zen delako ezkungau hartan?

– Ez.

Medikuak so egin zidan, eta haren so uhargian zorion puska bat irakurri nuen. Ezpainak plegatu zituen:

– Ameriketara joan duzu.

– Gau on! –lotizamendua burua apal zeharkatu nuen.

Ez nekien non loak har.

# –15–

Darrieu medikuaren etxean sartu nintzen iluntzirian. Gau euritsuak purtzilikatua zuen ultima limes zelakoaren presentzia ikaragarria. Iparreko haizeak hozten zukeen zerutik behera jausten zen uhar madarikatua. Medikuak eman kolpeaz inutil sentitzen nintzen, inutiltasuna nere bigarren nortasuna bailitzan. Inutiltasuna ordea, ahalmen guziei idekitzen zen ordokia zela nerran gogoaren indartzeko.

Amerikak buruan neuzkan, eta itsasoaren tipus-tapasean zeharkatzeak lotsatzen ninduen. Busti-bustirik nintzen, eta doidoia Gaxurekin lo egitera joaiteko tentaldiari uko egin nion. Autoa, herriko aparkalekuan utzi nuen, eta Bidaxune, martxo hastapen honetan, desertu heze moldean pausatzen zen. Ixiltasuna haustearen beldurrez bezala, oinez segitu nuen Peiroareko bide kurutzuneraino, Gaztelurantz. Euri erauntsiek eta bakardadeak lehertzen ninduten. Zertarako balio nuen jagoitik?

Erregebideko azken pasuñargia iragan nuen, eta jadanik beltzaren menpe nindagola ohartu nintzen. Xendra lohizu batetarik Gazteluaren maldara abiatzean, Gazteluko Harresi landerosen itzalean egoitea debekatua zela irakurri nuen; ordea aintzina banindoan, kontzientzia piliskarik gabe. Axolarik ez nuen, beharrunerik ere ez. Nere arbaso artzain edo etxetiarren nomadismo jaidurak arra-pizten zitzaizkidala nabaritzen nuen, eta argizeitu pean, eremuak urratsez lardeskatzeko gutiziaz hantzen nintzen. Euri ttantten soinu eiharrak salbu, ixiltasunak kateastatzen ninduen.

Gazteluko harrietan, hara-honaraka, gau-ainarak aterbe bila zabiltzan, menturaz. Haien parekoa nintzen agian: ekimentsak haragiari zihikadura bat sortzen zion eta debaldezko izatea nintzen lur-gainean. Peza lehor bat aurkitu nuenean, jarri nintzen, harriaren hotzak bizkarra hormatzen zidala. Zangoak errautsean luzatu nituen, eta gau-ainaren egunerokotasunaren trabatzeko arriskuaz jabeturik, zigarreta bat bildu nuen arraposki.

Hitz elkor txirripak udalatu zidan kaskoa. Gaxuren gorputz zardaiaren beroa eskas nuela nion nerener, eta pentsua iheska lerratu zitzaidan Maiena Ameztoirengana. Medikuaren erranak berriz aztertu nituen: zertara bada joan zen Ameriketara Maiena Ameztoi zoritxarduna? Suerte gehiago edukiko zuen balinbada han? Zein estadotan kokaturik zegoen? Arizonan? Nevadan? Koloradon? Kalifornian? Non? Bapatean, Jeffen ahorpegi ederrak bete ninduen, eta Amerikak urrandiaren gisa ixuri zitzaizkidan. Helburu bat baneukan oraindik, Jeffen gomendioz, baina Maiena Ameztoiren bizitzeak lehentasuna hartu zuen nitan.

Donapaleuko De Saint Martin notableak, Teexa seroraren arabera bederen, bortxatu zuen Maiena. Maienak, ez zuen herrarik erakusten, eskapatzen zen, «ekai»tik ahal bezain urrun. Pettekok, ber maneran, gorrotorik ez zeukan. Gorrotoa zirudienez, guti pairatzen zuten handikiendako, handikien eskubide edo pribilegioa zen. Nihauk, Txinako auzunetik itzuliz geroztik, hastiratzeko ahalmenik ez nuen, eta zenbaitetan, aitor nezakeen damu nuela batzutan, oldartze-

ko, erdainuaz hazteko moteltasun hura. Buluztasunean sentimenduak kalzioz janzten ziren, eta larru hegian idortzen. Desiraren ziztak baztertu ezinez, sexurako tiria desagertzen zenean, jendeen arteko lehiaketa baretzen zen, eta jendeak jendetzat onhartzen ziren, konkistatzeko edo konkistatua izaiteko premiak ezabatuz. Mineralizazio zen. Balizko hein horretara heldua zitekeen Maiena. Neraman inkesta ere bai naski. Gaxurekilan neukan harremana berdinki. Jeffen manuak baizik ez zuen egiati segitzen.

Eta Bidaxuneko Gaztelua? Agaramuntesen gaztelu eroria mineralizatua zela sinetsi nuen: banda harmatuen arteko guduka frangoren lekuko izan zena, gaurkoan, kario ordaintzen ziren –antolatzaleak eta jokolari hoberenak Paristar profesionalak baitziren...– ikusgarri historikoen muntatzeko erabiltzen zen urtean behin, turisten sasoinean, noski. Suntsitu zituzten Agaramuntesak, garraitu Beaumontesak, eta Frantziako errege odolez egarritua Pauen sartu zen, aske zegoen Nafarroako erresumaren behereko zatiaren ebasteko. Irabazleen legeari makurtzera behartu gintuzten, indarrez, Las Navas De Tolosan

eskuratu kateez esklabo bihurtarazi. Aita Sainduak eskomekatu nafartarrok, estado zentralista berrien mutil-neskak bilakatu ginen. Santxo Azkarraz pastoralak eraikitzen ziren, «Hau ez da Frantzia / Hau ez da Espainia» deiadarkatzen genuen manifestaldi apotesikoetan, baina beti buru-oker ginabiltzan, subventionez hazirik, notableen urriki hautakariaren zain, pilik ez zen sekulan guretako, eta begiak altxatzeko keinuaz zutitzen baldin baginen, estadoen zuzena beren alde zutenen polizien edo hiltzaleen erasoak jasaiten genituen. Garapen proiektuak antolatzen zituzten gero, eta garapena bekan batzuren sakelen aztatzeko baizik ez zen baliatzen: dirurik auxiena turisma programetara bideraturik zen, kultura tradizionala turismaren helburuer uztarturik zabilalarik. Turismo kulturalaren konzeptuak itoko zituen gure askatasun nahi hondarrak.

Gaxurekin, gau-ainaren hegadak miretsiz, mintzatuko ginen lasaikiago, herriaren minak ahanzten saiatuz, desir genukeen askatasun motaz. Mila koloretan ihaurriko genuen herenmundu hau, eta sohakoetan bermatzen zen sua ez zen nehoiz iraungiko. Iraungi hitza mihipean

itseskatu zitzaidalarik, ohartu nintzen loak hartu aitzineko nere bizioaren asetzeko Axularren *Gero*-ren konpainia Gaxurena bezainbat falta nuela, eta etxean, *Gero*-ren orrialdeak markatzeko nerabilan *Egunkaria*-n moztu gizon-politiko baten argazkiak inharrosi zidan gogoa.

Gaxuri ez nion oraino, paperezko «gizon» haren erakartasuna aipatu. Xalbadorren «Esperantzarik gabeko amodioaren» lehen notak xuxurlatu nituen, irriñoaren ildoa idekiz. Gizonaren balentriak berritan irakurtzen nituen, maiteminduen gisa, hamahiru urteko neskatoxeek Patrick Bruelen edo Rock Voisinen kasuan egingo luketen moldean.

Nere paperezko gizona zinezko terrorista zen, eta seguraski Mexikoko Lekunberri kartzelatik eskapatzeko gai, Pantxo Villaren edo Emiliano Zapataren laguntzarekin. Terroristak laket zitzaizkidala errepikatzen nuelarik, euria gelditu zen eta haizeak inguruak freskatu zituen. Loak eraman ninduen, ibiltarien urratsak zalhuxka zitezkeen sablezko eremuetaraino.

Goizeko lauak irian, herots metalikoak moztu zuen nekez lortua nuen atseden-unea. Djanpez

iratzartu nintzen, mehatxua hurbiltzen susmatuz. Ipar haizeak zerua garbitzen zuen, eta agudo hegaldatzen ziren hedoi pizuen artetik ilargiaren marra umila basta nezakeen. Zutitu nintzen eta haia-haia gazteluko harresiek gerizatzen zuten gune zabalago batetan gorde. Hormetan zilatu Erdi Aroko leihoetarik gaztelu-pean zegoen xendrara so geratu nintzen.

Bi kamioi baziren han geldituak, eta jende larderiazuen lotsagabeko oihuak ekartzen zizkidan ortzea xahutzen ari zen haizeak:

– Zotüka gitean!

– Baietz...

– Zer hel ere, zotükatü behar diagük!

Kamioi batetik bestera kaixa saldoak deskargatzen zituzten gizonek.

Euriak doidoia laztandu aire uhargian, hatsartze asotzek nahasten zidaten pentsamendua. Zer ari ziren tenore hauetan jende horiek itzalpean kamioi arintzen. Milaka kaixa kondatu nituen.

Andu Lertxundiren *Tabacco Days*-en leitzen gauak haraintzinetik galdurik, tabako kontrabandistak zirela sumatu nuenerako, langileak ka-

mioietan aterbetuak ziren, eta Bidaxunera abian. Zarauzko edo Orioko itsas ertz arkaizuak debekatuak bide zituzten, eta trafikanteek Aturri erabiltzen zuketen beren trastuen hegoaldera nolazpait helarazteko.

Berantegi zen loaren menera arra-plegatzeko, eta kamioi misteriotsuen jarraikitzea erabaki nuen. Debekatuak ziren xendretarik iritxi nintzen Bidaxuneko herri aparkalekura eta autoa ahal bezain prunki piztu nuen. Arrutarateko erregebidean ortzaiz ilunean kamioien argiak begietsi nituen. Tabakoaren nahaspiletan urtzeko gogoa nuen, Maiena Ameztoiren harrapatzeko ametsa desagertuz geroztik.

Erromantikoki banindabilan, ekintzak komeni zitzaizkidala ustez. Laskuetako errekak loditzen zuen Lihuri ibai gaineko zubia zeharkatu nuen emeki, eta handik ikusi Amikuzeko oihanerateko pistan sartzen zirela bi kamioiak. Bide hertsian kokatu nintzenerako jadanik, Tartasko pareta trebeskatzen zuen xendraren puntan zegoen oihaneko langile ohien txabolan zeuden kontrabandistak.

Urrun abandonatu nuen 4L-a, eta sasietan barna Tartasko xendraren gerizan plantatu nintzen. Egurrezko etxolaren ateak zabalik ziren. Gizonak kamioien zama lekuz aldatzen ari ziren oihu irentsien ixiltasunean. Lau gizonetarik bat kanpoan zen, barandan, argizaiola eskuetan. Gizonak beren artean xiberotarrez mintzatzen aditzea bitxi zitzaidan. Haietariko batek jakin ukan balu gibeletik banindabilkiela, ihizi prestua izanen nintzen. Ordea, Amikuzeko oihana osotzen zuten Tartasko eta Iangoko pezak ezagutzen nituen, eta banekien seinalatu gabeko bidexketarik, gutienez, kusien etxeraino joaiten.

Pago luzearen maldan kuxkurtu nintzen. Azantz metalikoen sortzaileak desagertu ziren Arruta eta Oragarreko zolara zilatzen zuen haritzartetik. Oihanaren freskuraz jabetu zen ixiltasuna. Akiduraren akiduraz, lo-kuluska bat zilegitu nion nere izpirituari, euri ezak xoriak goiz esnarazten zituen orduan.

Zazpiak aldera gauez-gau buhatzen zuen haizea hotz zela nabaritu nuen. Pagoaren maldan nindagon eta hostoen firindikaren murmurioak zoratu ninduen. Gaxu nonbait zegoen, –oi amo-

dioa!–, iluneko mutilen zereginak ez nituen ontsa ulertzen, logale nintzen, baina hala ere, zorion-tsu. Beharbada, sentitzen nukeen, goizeko fres-kurak balakatzen zituen iratze gorrien artetik, ote-liliek eta belarrek udaberria idarokitzen zute-la, lurraren sabeletik, maitasun puska odolesta-tuaren moldean. Galdeak antzutu nituen, eta xo-riak haritzetan jostatzen ziren. Xorien kantuek nere irustasuna biderkatu zuten. Egiaren erraite-ko, ttipidanik, xorien kalapita sugailuzuek argilo-aren orduan salbatua nintzelako iduripena sor-tzen zidaten. Txinako auzunean ihardokitzen nuen garaietan, salbatitxura berdina hazten zuten nigan xoriek, abenida erraldoiak auto-bu-rrunbek kateztatu bitarteko ixilune xugunaren luzaran.

Aspalditik, garaiz jeikitzeko ohitura hartua nuen, momentu mistiko horretaz gozatzeko prest izaiteko. Xorien ttiuttek ekiaren jazarpena iragartzen zuten, eta preseki, martxo amorezuko ortzaiza iduzkiak zihikatu zuen. Sortaldetik, su-zarrasta gorriak irausten ziren. Ez nuen Gaxuren beharrik. Nomadoa eta bakartia nintzen. Hitzaz behin desjabetu bakartia, bideko harri biribilaren

parekoa –*like a rolling stone...*– eki kotsia, euri xorta bat eta haize piliskañoa aski zuena, funtsean. Gaineratiko premiak oro debaldezkoak zitzaizkidan argi-urrakoaren txintan, gutunen baten haiduru egoitea edo hitzordu batetara presatzea, adibidez.

Nere lagun apurren aurpegiak dantza nostalgikoan sartu nituen: Mailux, goxalaba nuen Xenki, Gaxu eta Jeff... Baina Jeff? Non zen Jeff? Zerendako jiten zitzaidan Jeff memoriaren kilikatzera hainbeste indarrekin? Ilunaren mendean barandatu nituen ekintzek ba ote zuten zeozer ikustekorik Jeffekin? Zutitu nintzen brauki, hondar larrazkenean higatu hostoak tole zangopean.

– Diubiban! –ez zitzaidan besterik atera.

Kamioiek zeramatena ez zen tabakoa –sobera hurranetik leitzen nituen Andu Lertxundiren nobelak!– baina bai, espartina-saldoa Gixuneko portutik ekartzen zena, leku izkutu batetan Xardoi markaz hornitzen eta Maulen eginak bezala Europan zehar saltzeko.

Hori zen. Hura zen. Hau zena?

Bizitzeari baliostasun bat kausitu nion «diubiban!» ahoskatu nuenean. Ultima limesak eskain-

tzen zidan bake-gunetik ilki nintzen eta eduki nuen zimizta izpiritualaz segur izan nahi nuen. Pattarrean behera, Tartasko oihanak estaltzen zuen txabolaraino joan nintzen lasterka.

Etxolaren aintzinean dudak estekatu ninduen, hargatik duda gainditu bezain agudo, kabanako atea bulkatu nuen. Kanpoko argiak dirdirazten zuenak harritu ninduen. Jeffek arrazoin zuen. Mailuxek ere zerbait bazekien. Maiena Ameztoi Ameriketan izanagatik, ez nintzen debaldezko jendea.

Txabolan sartzean eratxekinaren usain bortitzak jaukitu ninduen. Sakelatik mokanes brodatua jalgi nuen, sudur-ziloetarik bideratzen zen airearen arintzeko. Eztulka hasi eta amamaren oharpenaz gogoratu nintzen:

– Pipa! Pipa!

Irri enbeia nuen. Urrina ahanztear nindagon. Begiak ilunari usatu zitzaizkidan. Kaixa metak etsaminatu nituen. Xardoi-Maule agertzen zuten paper frango bazen txabolaren zolan. Eratxekin buata huts asko. Oskiak lurrean. Asiatik, zein herrialdeetarik xuxen?, itsasoz etortzen ziren espartinak hemen itxuraldatzen zituzten, gauaren

gaztigurik gabeko orduetan. Mauletik gero, estadoko –estadoaren baimenarekin ala?– supermerkatuetara banatzen zituzten zapata horiek. Tokian tokiko mozkinen labelak munta guti zuen.

Ardikiarekin adibidez, ber gauza zegiten: agneau français labelaz janzten ziren Zelanda Berriko ordoki mantsoetan gizendu hazindak. Desgustatzekoa bazen. Nik ez nuen ardikia ainitz laket, salbu Gaz-Parsek edo Ikastolek antolatu zikiro bestetakoa. Orduan, zinez ardikiz asetzen nintzen, zintzurra emokatu artino. Espartinkitik ardikira iragaitea ez zitzaidan aise, gose-errea bainintzen. Bezperan, Lou-Harditenean bazkalduz geroztik, Darrieu medikuaren villan hurrupatu lau whisky godaletak baizik ez nituen sabelean. Gainera, espartin trafikoaren inguruko argitasunek gosea bera zirikatzen zidaten.

Hurbileko bete-beharrak zerrendatu nituen: lehenik, Jeff deitu... bigarrenik Gaxu... hirugarrenik nonbait gosaldu Oragarreko edo Arrutako ostatu batetan. Ahosabaian janzaharraren iraiztura nabaritzen nuen, eta Arruta hautatu askariteko.

Oinez abiatu nintzen autorantz. Amikuzeko oihana partekatzen zuen D313ak Arruta pera

eraman ninduen. Bide bazterreko etxaldeetan behien deiztea bukatzen zuten, eta gelditzen baldin banintzen deizteko-mekaniken xuxurlak adituko nituzkeen. Ordea, erregebidera heldu nintzen nehon geratu gabe. Eskuin hartu eta Arrutako plazako izkina batean utzi nuen 4L-a.

Ostatuan aterbetu nintzen. Hasteko, kafe doblea manatu nuen:

– Kruazan batekilan otoi!

Gaua luze bezain akitua nintzen. Ezizate eroaren zurrunbiloetan hustear. Kafea behar nuen pentsamenduaren inharrosteko. Eta kafetik landa, egitekoak kunplitzeko gai nintzatekeen.

Igurikan nindagolarik, bi gizon adinekok tabernako borta banbarazi zuten. Leiho aldeko mahainean ttottotu ziren. Sakrez eta arneguz apaindu elez lerratzen zitzaien solasa. Xopina bat eskatu zuten. Karkazailka ozenez xirtxikatzen zidaten, oihanean atseginez jasan nuen «belhitzearen» oroitza. Hastiel zitzaizkidan. Amodioz beterik nuen bihotza, eta haien hitzak zurrupatzen nituen, kafearen haiduru nintzen denbora luzean.

Aizina banuen.

# –16–

Gris iratzartzen ari zen eguna. Jadanik gris. Kafea behar nuen ordu zenbait lehenago iguri gertakarien ordenatzeko. Mahainean bilduak ziren bi gizoner beste bi gehitu zitzaizkien. Solas ozenen oihartzunak aztoratzen ninduen bitartean, baiezkorki pentsatzen nuen nere lanak ez zirela haizelanak, eta suerte edo xantza puska bat egokitzen zitzaidala. Sekulan ez nuen uhina hain alde mantendu, detektibe rüral gisa plantatuz geroztik inkestak luzeak bezain nekagarriak izan arren.

Neretako jendeen ezagutzeko eta haiekilan mintzatzeko parada zen, langile-zapaldu-explotatu neramazkien orduetan mututasuna nagusitzen baitzen nere kaskoan. Noizean behin lantokiko emazteen eleek gohaintzen ninduten, beren errainetako minak aipatzen zituztelarik adibidez, edo gaua pasaiako gizonen batekin iraganik, kidea arranpaz konkorturik, atseginaren menpe oraino, balentriatan galtzen zelarik. Horiek oro

neuzkan buruan, eta lau gizonetako batek osaba adindua oroitarazi zidan.

Osaba Xemartinekin igandero errepikatzen ziren gatazkak jin zitzaizkidan gogoaren nahastera. Jeinko - Jinko - Jainkoaren ahuspeari plegatu goizetan osaba kexatzen zen, eta sukaldean errege zabilan Euskadi Gaztearen –ze süper xuet!– frekuentzia modulatua kanbiarazten zigun, Irulegiko Irratiaren nahiz Xiberoko Botzaren mezaren galdez karbakan.

– Zaaazie meza!

– Bo otto bakiamazu otoi!

– Nuiz da meza?

– Uai to...

Frekuentziak malinki kordokatzen ziren, eta azkenean soinuaren ugarte plantako batera heltzen zen irratiaren orratza. Euskadi Gaztea zaleak samur erraiten zion:

– Hor dela zue meza!

– Nuntik da?

– Pagolatik eun...

Eta atea banparaziz, sukaldetik ilkitzen zen musika modernoen maitalea, asperduraz buhaka. Xemartinek begimenean zeukan pinta ardoa

ondoratzen zuen, godaleta betetzen eta draga-draga husten –Jainkoaren Odolak Zaint Nezala Betiko Bizirako...–, irrati euskaldunetako langileren batek artoski grabatu meza behatuz. Osaba Xemartin bake oeukumenikoan urtzen zen.

Arrutako ostatuan sahetsean nituenak garaiz hasten ziren edaten, eta ez baso-erdika osabaren antzera. Zerbitzariak arradan bete edalontziak ezpaineratzen zituzten arraiki, eta hurrupatzen bargoek gaxura bezala. Etxekandereak kafea ekarri zidan. Zigarreta bat bildu nuen, amoroski, gauaren minetik, ametsaren hegaletan hurrandu oparia bailitzan. Arrutako plaza agertzen zitzaidan leihotik. Gune desolatu hauek laket nituela kontu-errendatu nintzen, eta milagarren aldikoz eskakizun latzak larrutu ninduen:

– Nolaz egon ahal izan niz, herritik kanpo, hainbeste denboraz?

Ote-liliz usantsu bost udaberri higatu nituen. Bost uda, negu ala larrazken. Bizkitartean, burdinbide herdoilatu bilakatu nere neuronak altzairuzko pentsamendu amnesikoaz hazten ziren. Bahituak ziren garaiak minkor zitzaizkidan. Ordea, joan denboraren zenbaketa hurria haiza-

tu nuen golkotik, eta gizonen eleen uhalak uztartu ninduen:

– Aiuta! Zan duk moimendu sasian!

– Baia?

– Jendiak orroaz entzun tiat...

– Hik errak to!

– Bi kamiun, 4L-a bat, bazian zirkülazione!

– Perdiu...

Zerbitzaria, amiñi bat larderiazu hurbildu zitzaien:

– Ta ziek, ze ai zinezten han?

– Ba, gü, basurdeka no!

– Gauaz?

– Aha, gauaz ta eunaz ai gitun gü.

Egia zen sasia, edo Amikuzeko oihana, basurdez emokaturik zela, baina basurdeen aitzakia ederregia zen eta banekien gizonak zertaz mintzo ziren. Agian, plazan geratua zen 4L-a ez zuen nehork ezagutu. Bestela, gizonak espartin trafikanteekin bat baldin bazeuden, nereak aute fera futro zukeen.

– Hola ai badira gau oroz –segitzen zuten–, basurdeak izitaaziko dauzkune!

Alegeraki kitzikatzen zuten zerbitzaria. Honek ez zuen mikorik igurikatu arrapostu zorrotzaren emaiteko:

– Basurde bat bedein hatzemaiten bazinute, azken bost urte hotan eztuzie bihi bat e eho...

– Xahartzen ai bigira...

Lan baliosagoetara itzuli zen ostatuaren jabea. Gizonek beren artean zarraikaten:

– Andere xuria, urrezko orraziaikilan...

– Fundi baietz, nik gaztetan ikusi nian, ederxkua to!

– Bakiamak hortik.

– Ixil hadi, estrañerrak batiuk heen.

Noski, ni nintzen estrañerra, arrotza. Lau urte, sei hilabete eta bi asteren buruan, nere herrian kanpotarra bihurtua nintzen. Desherritasuna gogorra zen, hargatik hunkigarri zitzaidan gure lurrean ibiltzea maitale katestatuaren gisa. Ezin baina maite halarik ere. Horretan nindagon.

Oihana, edo oihena erten ginduen eran, ohaide apotuen gordelekua, lurraldearen bihotza zela ohartu nintzen: haraintzineko oxo kixkailduen ahotik, neguko arrastiri hotzetan jasan ipuinetarik, gau hartako gertakari bitxietaraino.

Halatan, Amikuzeko oihaneko zuhaitzen itzalpean bidaiatzen ginelarik, sentitzen genuen aldikal barnea durduzatzen, beldurra bezalako zerbaitetaz jabetzen. Guda gunea zen, bake gunea eta kuku gunea, historiako garaien arabera.

XIX. mendean demagun, Oragarreko, Arrutako eta Ilarreko laborari etxetiarrak altxatzen ziren, dailuak eta sardeak airean, Donapaleuko jaunttoen oihana pezaka saltzeko erabakien kontre. Askotan, sasi komunalaren zati handiak joaiten ziren, sos truk, Donapauleko hirixkako etxe burges ponpoxetan uraren ezarteko. Omen, ikazkinak baziren, eta ikazkinetaz gain urde eta hazinda zaintzaleak, ororena zen eremuan kabaleen hazteko. Aberastasun iturria zen oihana. Azken munduko gerlan, Alemaniako STOtik ihes zabiltzanak hor ezkutatzen ziren, eta haien emazte zein andregaiak gauero etortzen zitzaizkien, sareak janariz eta arropaz hanpaturik. Aitortzekoa zen, gaur baino hedadura gehiago zuela oihanak orduan, sekretuago zela berdinki. Denbora haietan tiro hotsak hautemaiten ziren arrats apaletan oihanetik ozentzen.

Egungo egunean frango murritza zen sasia, 1965ko erremenbramendu edo lurren berrantolaketaren ondorioz. Aintzira proiekto antzuak, arralandatze programak, defrixamendu sailak: oihanaren ahorpegia aldaturik heltzen zitzaigun, arbolen ilunean, iraganaren zama arindu gabe. Noizbait beharko nion Gaxuri oihan misteriotsua erakutsi, honen malden jasta eman, herriaren birikak ziren eremuetan pausatu nere mundumina. Oihanetik ateratzean, «zibilizatu» ezinezko Nambikwara baten parekoa nintzen, eta larrua lür usainez josirik neukan.

Ostatuko gizon elekariek xopina agudo errendarazi zuten. Mahainetik zutitu ziren, umorerik hoberenean.

– Hik behiak deitziak tuk to?

– Gaztiak uzten tiat lanian nik.

– Hunek nahi likek beti manatu.

– Manatu ta obeitia izan, bi gauza tuk ddio!

– Auxilik meskila, etxen nausi nuk ba araiz...

– Ba, etxen nausi, ta gaztek aharrausi.

Hiru gizon bederen karkazailka lehertu ziren. Ez nintzen segur laugarrenak ez zuela besteen

bozkarioa partekatu. Nihaur ere algara biziak berotu ninduen. Etxekanderea deitu nuen:

– Kafe bat ekaatazu otoi!

– Bena hiruarrena un! Bat gehiau?

– Ta bai, iatzartzeko...

Tarrapataka abiatu zen sukaldera zerhitzaria. vttez –beti nerekilan neraman autoko kofrean...– Gixunera joaiteko, ontsa askaltzea egoki zela pentsatzen nuen. Mailuxek eskaini hatzari lotuko nintzaion. Santxok ere, aintzineko ibiakoitzeko Su ta Garren konzertutik landako sentimenduen uholdeakari, Gixune aipatu zidan.

Gixunen bazen Erdi Aroan pil-pilean zegoen portu bat, trafikanteek agian gaurko mendean erabil zezaketena. Zendako ez nuen tokia begiztatuko? Maiena Ameztoi Ameriketan zen, eta astia banuen Gixuneraino kurritzeko.

Berrogei bat kilometra banituen egiteko abantxu, eta sabela hutsik partitzea ez zen hain goxo. Kafearen haiduru nintzelarik, gibeleko leihotik laborari bat, behiak lerroan, hausnarrean jadanik, xuri-beltzeko irudi xuguna, barrukutik alagietara eramaiten segitu nuen nagiki. Soa, ikusgarri bukoliko-ekonomiko –pinta esnea koo-

peratibek 1,64 libera pagatzen zuten A kalitatekoa izanez gero. Alde horretarik konsideraturik, zirudien euskal herriko behi errentagarri bakarra Bernardo Atxagarena zela...– horietan galdurik nuen, ostatuko ate nagusian dzanpako bortitza nabaritu nuelarik.

Bortara bihurtu nintzen, eta sinets ala ez, Gaxu miretsi nuen, kanpoko argitasun berriaz inguraturik. Agerinde bat zena? Ez nekien. Gaxu zitekeena neregana hurbildu zen airos:

– *Egunkaria* eta *Egin* eosi eztenat...

Gaxuren gostuko ez nukeen poztasun larriegirik erakutsi. Beste mundu batetan nindagon, martxoko goiztiriek laztandu lainoz eta hostoz burzoraturik. Ordea, segundu laburrez errealitatera jautzi nintzen.

– Gaxu? Hi heen? Nuntik heldu hiz?

– Etxetik, enfin, Donapaleutik, no, harzkin jurnalak...

«Izparringiak» eskuratzen nituen bitartean, Gaxuri beha egon nintzaion, neskaren begietan lotsa harroarazi arte. Ixtanpaten buruan, gogoa, gaingiroki irakurtzen nituen hitzetan neukan; tituluak leituz, argazkiak miratzen nituzkeen, eta

bi egunkariak osorik jastatzen baino denbora gehiago eman nuen horoskopoaren irensten. Gero Ines Intxaustiren telebista kronika «deliziusa» miliskatu nuen, usaian bezala, bezperan *Berbaguren* ikusirik gaitzeko fleitian baitzen *Egunkaria*-ko langilea. Iduritzen zitzaidan ETBko emankizunak su emaiten ziola Ines Intxaustiri, eta su hori laket zitzaidan. *Egin*-en agurrak eta mezuak estimatzean, Komando Kemandoren farias ezpezialen gibelean, Baionatik «expulsatu», Espainia behere horretako exterminazio kartzela batetan zegokeen Txokoren hitzak ezagutu nituela iduritu zitzaidan.

Bihotzean ximiko batekilan, prentsaren arrapasatzen ari nintzenean, Gaxuk arroltze eta xingar manatu zuen biendako.

– Nik ordaintzen dinat!

– Hobe, ezpitut sos pilik.

– Hi beti pikarrai iiltzen hiz.

– Ha-a-ha...

Egunkariak metan ukondopean ezarri nituen. Ostatuko jabea hurrandu zitzaigun, azietak besogainean, xingar errea ketan zekarkigula. Haragiaren usainak sudur mazelak kilikatu zizkidan.

eta Amikuzeko oihanaren aberastasunetarik batez ametsetan kukulbikatu nintzen: urdeak, haritzen maldara bazoatzin ezkurka eta xingar ona eskaintzen ziguten gero, neguaren atarian. Gaxuk nere burutapen gastronomikoa moztu zuen:

– E nun easiatzen atzoko?

– Eeez, zendako?

– Ba, enizalakuan hitzordurat jin!

– Ehem.... Baakina aitzinatu giela?

– Doaike...

– Eun Gixuneat juain gitzain, hantik haat, alea jacta est...

Gaxuk ez zion nere erranari kasurik egin. Alta, neskaren berriz ikusteak plazerra sortu zidan, eta arras deliberatua nintzela sentitzen nuen: espartin-trafikoaren giltza bertan harrapatuko nukeen. Sustatzeko partez, Gaxuk, misterioski erantsi zuen:

– Bitxia hiz hi.

– Ni?

Mahainaren zabalak mugatzen zuen eremuari itzatu ziren begiak, ikaran bezala, beldurra gainditzeko lehiaz, hutsa emaiten zuen behako-

an tilingo. Amerikak behar nizkion aipatu. Lehen bai lehen. Ordea, Gaxuk asma ez nezakeen hasperenaren funts akituaz ixiltasuna inharrosi zuen.

– Baakina? –emeki mintzatu zen–. Libro hiz ddio!

– Norenganik libro niz?

– Enegatik.

– Hiregatik?

– Ba...

– ...bena ez arras, maitatzen ba hut!

– Maitatzen...

Ironiaz errepikatu zuen Gaxuk nik amoroski ahoskatu hitza. Are ilunago zitzaidan neskaren konportamendua.

– Gixuneat heldu hiz araiz? –deus ez bailitzan jarraiki nuen.

– Baiki.

Solas intazuak ziren gureak. Kanpoari begira geratu nintzen. Nahiko nukeen hitza ihalozka erabili Arrutako ostatu hartan, baina soinuak oro ezpainen harresietan behaztopatzen zitzaizkidan. Susmoak baztertuz ordea, Gaxu eder kausi-

tu nuen, sekulan baino ederrago menturaz. Gaxuk elea hezi zuen:

– Santxo kuutzati nat barda.

– Barda?

– Bai, ta gaua haikin ian

– Haikin?

– Hitaz amiñaat trufatu nun...

– Hummm... –ez zitzaidan besterik atera.

Ukondopean neuzkan egunkarietan atelatu nuen gogoa. Tituluak berriz irakurri nituen arduraric gabe. Mundua lehertzen ari zen inguruan. Negar gura nuen. Zintzurra trabatzen zidan histurari uko eginez, Amerikak burrustan lerratu zitzaizkidan.

– Ameriketan zendu dun Eskual Herria...

– Zer derasan?

– Amerikaz bete dauzkune buriak, herria hustu tine.

– Bena?

– Maiena Ameztoi e juan dun, bestiak bezela!

– Me?

– Gue indarrak dealdetan tun uai... Gixuneat baguatzan?

– Baa...

– VTTa ekarri una?

– Autuan dinat.

– Ontsa, guazen!

Konturatzeke, azietak herriak bezain xahu ziren. Ordaintzean zerbitzariak deitu gintuen:

– Pasa zazie eun hun bat!

– Mertzi, arra-jinen gitzu ba.

Autoetaratu ginen ixilik. Bizikletak kofreetarik ilki genituen, eta hitzik gabe, Arrutako plaza abandonatuz, Amikuzeko oihanerateko norabide hartu genuen.

Hiriberri eta Burguerako kurutzamenduan, andere konkortuaren agerpenak, Felixi Suhastiren –berrogei urteko baruraldi linguistikoa...– gana hegaldarazi zidan izpiritua.

# – 17–

Arrutako plaza ahitu genuelarik goizeko hamekak ziren. Erakusten ez nuen haserreak iraizten zidan golkoa. VTTaren gainean Oragarrerateko maldan behera jaustean, abiadura handian, ahalge berriaren hitzak errepikatzen nituen nerener: nitaz trufatu dela... amiñaat... bena trufatu hale... eniz estonatzen... Barneko pikoak hontzen utziz, Auieneko zubian, gibelera sohako bat bota nuen eta ikusi Gaxu doibat urrun zela, patarraren lerrostasunak lotsaturik bezala. Amikuzeko oihaneko kurutzunean igurikatu nuen neska. Samur zen Gaxu sahetsera jin zitzaidalarik hatsanga.

– Mentsa hiza! Arrunt ehua hiz hi!

– Ni?

– Zomat xoxua hizan...

Bermatu nintzen eta, oharpena antzu bailitzan, bide hertsian zehar abiatu ginen, kiwi peza baten bazterretik pasatuz, oihanean seinalatua zen Bartetako xendraren hartzeko. Bidea, zilokaz betea, gogorra zen, baina kaskora hatsantu-

rik heldu arren, udatiarrentzat plantaturik ziren ttottogi batetan jarri nintzen. Haiduru.

Zigarreta emekiño bildu nuen. Begiak zerratu nituen: argiak udalatu tauladetan Etxamendi eta Larralde kantari asmatzean, Otsagabia aireak nahasi ninduen. Euskara gaalduuuu. erdaraaa saaaartu zaioteeeee, eeeee, jota zaharra, labanaren gisa, jazarri zen nigan. Mintzairak linboetan ahanztearen alorrean, naski, ulermena zaila zen eta ulertzeak desagertzearen onhartzea ekartzen zuen. Hogenaren laurdena gurea zen, heriotz tiria gure baitan kokaturik baitzegoen baina beste hiru laurdenak? Noren meneko ziren hitzen geroa segurtatzeko ahalmenak? Galdeak galdetegi ziren. Kolera jabaldu zitzaidan. Erruduunen bilatzeak ez zuen balio, esku-artean geneukan hizkuntzarekin moldatu behar genukeen, honekin oihukatu, kantatu, negar egin, kexatu, oldartu, dudatu eta azken hatsa aurtiki, zapi zikin baten maneran.

Oihaneko zuhaitz baten abar buluzienean, martxo hunkigarriko bigarren astean, kukua abeslari hauteman nuen. Zigarreta erhi-puntan trabaturik, geldo geratu nintzen: kuku... kuku...

kuku... xoriaren deiarekin batera, inguruko mendi mazeletako iratze eta ote idorrak erretzen zituzten laborariek piztu suek hedatzen zuten usaina zetorkidan. Iraupenaren premia genuen. Labakietan barna «Gaixo Gaxu» xuxurlatu nuen. Arrutako destrenpuaren ondotik, baketzen ari nintzen, herrialdeak jagoitik aski pairatzen zuela nabarmenduz. Gaxurenganako aiherkunde auher bezain sakona desagertu zitzaidan.

– Holakua bita bizia! –erran nuen zigarreta buhako bat tiratuz.

Kea, kanpoa ikararazten zuen labakien keari juntatu zen, eta Gaxu hurbiltzen sentitu nuen, akiturik, bizikleta iguñetik zatxikala. Zurezko jargian luzadan etzan zen.

– Hola bita bizia! –ahapezkatu nuen.

– Hi! –Gaxu bankatik banpez jeiki zen–. Mentsian hiz eun ala?

– Argizeitu kanbiua un...

– Kalma hadi. Jeloskor hiza?

– Ez, ehadila inketa.

– Esplikatuko daunat...

– Zendako... eztezaun beden adixkidantza andea!

– Ze filosofia! Ze urgulia!

– Bakiaman. Guazen.

– Iuka nezan e!

Erdaraaa saaartuuuu neukan buru zokoan txintxetaturik. Gixunerat bagindoazen, eta baginuen oraino malkar bortitz frango igaiteko. Anartean, Amerikak bihikatzean –Mari Ameztoiren faltaz– arrestarik gabe jaustearen plazerraz gozatzen nintzen, xendra aberasten zuten zilokoketan ez traukatzeko, zigi-zaga zenbait kudeatzen nituela. Arrunt Bartetan ginen.

Uhane ibaiak alferki urestatzen zituen ihiztoka ohietan zehar ginabiltzan. Errekak gogoa udalatu zidan beste behin. Gaurkoan arto-zango ustelduz estali elgeen ipularretan atzoko etxaldeak huts ziren. Ez zen xorien ttiuttaz besterik aditzen. Uzkinazoak eta pika-beleak eremu hauen nagusiak ziren. Bakarretan miruen eresi mingotsak beha zitezkeen, ungarri metan xirikordatu xixareaz goseti eta gutiziatsu.

Tratur handi bat zetorren bidetik, aintzineko burdinazko sardea ensilajez kargaturik eta Bardotzeko juntan artzain batek bere ardiak pentzera eramaiten zituen, gogorik gabe, mekanikoki.

Bardotzeko plaza ixilpean zegoen. Elizaren maldan gelditu ginen, edateko eta ogi puska banaren jateko.

– Hea ze hatzemanen duun Gixunen? –elea irun nuen.

– Ze xekatzen duu justo?

– Zeit...

– Akitia hila nun deia...

– Goorrena itekua diun oono.

Gaxuk ez zuen segitu. Hatsa ozenki hartzen zuen. VTTaren puntara igaiteko keinua marraztu nuen, eta partitu ginen Bardotzeko Postaren eskuinaldetik Gixunerantz.

Ordurarte ateri egon zen zeruak malkoz busti zuen lurra, eta lurreko bizitzale ginen izaki xoilek ez zuten ihes egiteko manera izpirik. Haizeak ortzeak xahutu bezain laster, eki leinuru ahulak berotu zituen gure gorputz tranxituak. Kulumeko xarak trebeskatu genituenean, beleak zirurikan mirestean, amodio mina iratzartu zitzaidan. Baina, bidea ahuspatzen zuten ote-liliz gorde munho apalak izartzean, berdetasun ikaragarriak kartzelatzen zizkidan begiak. Orlegi eta hori ziren bazterrak. Hondarrean, ahanzmena opari-

tzen zigun hosto atera berrien zoramenak. Gaxu nere parera hurrandu zen.

– Bide hau eninan ezautzen.

– Eza?

– Ederra un, eztun etxeik e.

– Basabortu perdiain erdian gitun.

– Biak bakar-bakarrik...

– ...ote-lilien erreinuan!

Bihurgune batetan sanpez gelditu nintzen: beherean bartak lerratzen ziren, eta ortzaizean hain laket zitzaidan Aturri ibaia zehaztu nuen, ilargia bezain zilar, ezpataren iduriko, maitasare nagi bezain zabal. Oroitzapenetan hazkaokan ari nintzen. Abantxu ginen.

– Zeri so hiz? –galdegin zidan Gaxuk.

– Han, Aturri, eztea hunkigarria?

– Ba, bo...

– Aturri hain hüilan üken eta deüsere eztakigüna.

– Hara!

Laudorio unean Aturriz bestaldeko burdinbidea inharrosi zuen bidaialari tren herotsak. Txuku-txu auherraren oihartzuna ordoki idekiak irensten eta zilimandrinatzen zuela, Gixuneko

lehen etxeen sahetsetik iragan ginen. Aturri begimentzean gogoa airostu zitzaidan. Ibaia bizi hobe baten amets guzien ama edo amaizuna zen. Aturritik Ebroraino hedatzen zen gure herria, eta urrandiak batera nahiz bestera ixurtzen ziren, lurren zauriak goxatuz aldikal. Aturrik Xiberoa osoa, Benafarroa eta Lapurdi zituen kontsolatzen; Nafarroaz, Bizkaiaz eta Arabaz arduratzen zen Ebro erraldoia, Tuteran gaindi, Tarragona zola hartan delta moldean bareiatzen zena. Gipuzkoak, Kantauri Itsasoarekin zeuzkan harremanak, aparteko probintziaren berezitasuna lantzen zuen bitartean. Aturrik Baiona hazten zuen urez eta gatzez, hiria bataiatzen zuen, herriminaren oligoa gabarretan merkatari zabiltzaner mailegatuz. Gaxuk ebaki zidan «bizi hobe baten ametsa»:

– Eztuuia bazkaiteko tenoria?

– Araiz –ihardetsi nion pentsakor.

Arinki bazkaltzeko geratu ginen, lau platanek mugatzen zuten Gixuneko plazaren gerizan. Lurrean jarri orduko, oharkabean, Gaxuk pott presatu bat eman zidan.

– Bauna kopeta! Ze aiz?

– Ze gerta re...

– Haai...

Goizeko haserre bulta zikoitzaren ondotik, sahetsean neukan emaztearen ganako suak labakitu ninduen. Itxinduak labean egon ziren, hauskoaren buhako zainarten zain eta pottaren kerrenak hauts lokartua igiarazi zuen. Alta, banekien, bizitzea gibeltoka eramaiten ahal ez zela: musua onhartu nuen, eta Aturri ibaiak luhertza josten zigularik, gure uren geografia xugunaz hitzegin nion Gaxuri.

Aturri sabel handia zen: txirripaz txirripa, ezkerretik edo eskuinetik, haranez haran luzatzen ziren erreka beti lodiagoetara ur buztintsuak. Ordea, nola sinets txirripa gardenen destinua amor emaitean zetzala, txirripak beharrezkoak zirela, bederazka munho mazeletan ibiltari eta kalakari? Ur abartxoak herrien birikak ziren, eta Akizen barna zarien Aturri kasko-gogorra, Baionan azkentzen zen, hatsanga. Aztertzeko orduan, miresgarria zen ikastea ibaiak haraintzin urrun batetan emendatuagoak zirela, bortu hezeen ugaritasuna lekuko, eta Aturrik egungo Mississippiaren idekidura zeukala.

Ordea, Pirineoak –gure hitzetako Ahuñamendiak...– su eta garretan eraikitze garaian, errekak xumeagoak bihurtu ziren, lurrak heinez altxatu zirelakoan. Ingurumenari begira hori irakur zitekeen. Ohe berrietan, hargatik, ibaiek ezpondak higatzen jarraitzen zuten, lehenagoko handitasun lehiaz. Uren memoriak, jendeen memoriarekin uztartzen nituelarik, Gaxuren ahotsa zehaztu nuen:

– Erran, bena, poesia un hoi!

– Ezetz, plaken tektonika dela.

– Uste una?

Ixildu nintzen. Hatsaren eztera urarekin bihurdikatzen zela gogoratzean, zapalketa buluzien aintzineko denboretako populuen arteko azpilduraren nostalgia hantzen sentitu nuen, laguntza dei baten gisa: herenegun geologikoan bat ginen Irlandesak, Galiziarrak, Bretaindarrak eta Euskaldunak. Orduan ordea, izenik ez genuen; izana ere debekatzen ziguten geroztik estado zentralistetako unibertsitateetako jakintsunek historia liburuak idazteko momentuetan. Basta haria usteldua zen engoitik, eta bakarka irauten genuen planetaren sohako zehargi-pean.

– Arren –Gaxuri buruz itzuli nintzen–, guazen.

– Ago... Hirekin laket izan nun...

– Hobe.

Alaitasun mikatza gordetzen saiatzen nintzen. Batelak eta gabarrak itxuratu nituen Bokaleko edo Baionako itsasahotik gora etortzen, Gixuneko porturaino, Samarkandan zehar kamelu bizkarrez karreatu biper-beltx zakuz nahiz Flandriako Hansean irun oihal-zetaz kargaturik. Xingarrak eta urde haragi karioak –lunka prefosta...– gezaltzeko gatza ere zekarten. Bizitzea ahalezkoa zen.

Gixuneko portura heltzean untziz partitzeko desira pausatu nuen, arto-bihikaz hazten ziren kaia-xori trebeen hegaletan. Itsas gazien usainaz troxaturik jiten zitzaigun airea, eta buxkando amoltsua ixkilimatzen zuen amodio-minaren gerrian. Erreitia benedikatzen zuen zubiko burdinatan estekatu genituen bizikletak.

– Uai, noaiti galdein behar diun.

– Ze?

– Batelak been zamaz nun ahintzen dien.

– Nihok eztaukun deus errain.

– Ikusiko... banko-txartela enekin dinat ddio!

Etxe bat hautatu genuen. Aterantz bultzatu genituen urratsak kopet-ilun. Jo genuen. Ixtanpaten buruan gizon trakets batek ideki zigun borta, kexu-aire, euskaraz mintzo entzun gintuelarik:

– Akeste baskurrail! Tujur de prolem!

– Mantxut?

– Deja an 37, pir ojurdui...

– Otoi... nun da lehenoko batelen deskargatzako lur mihia?

– A kote de Tastua. Tü se kua? Tü se se kon ve?

– No?

– La pe, plü de krim, plü datanta, rie, la pe!

– Ui, ui, zert... Ze u Tastua?

– Le lon de Adur! Izi ze la Franz! Perdiu! Hildudiabl ho!

Atea begitartera klaskarazi zigun gizonak. Harriduraren menpe lehertu ginen Gaxu eta biok. Irri bat eskapatu zitzaigun. Betiko herra jasanaren irri meharra. Elkar maite genuela ageri zen. Zubira bideratzean Gaxuk elea askatu zuen:

– Tastua, Aturri hegian, laster han gituken!

Bizikletak libratu genituen eta, Gixuneko portutik pasatuz, Aturri aldera joan ginen ixilik. Ka-

denaren xirri-xirri ongi oligostatua baizik ez zen aditzen, eta abiadura kanbiatzean, klixk eztia.

Arratsaldeko laurak ziren. Eguna eurira zihoan.

# –18–

Aturri hegiko gabarren haiabide hertsian eraman genuen oraino oren bat, Tastua etxearen lekukatzen, ibaiaren xuxurla eztiaren lagungoarekin. Lainoen artetik agertzen zen argizeitupean, Aturrik mirail sakona zirudien. Azkenean Tastuaren parera heldu ginen. Gaxu ixilik zegoen eta neri bihotza punpeka ari zitzaidan.

Nor zen Tastuako egoilierra? Zerbait zekiena espartin trafiko ahalgegarriaz? Gizonak ala emazteak idekiko zigun atea? Tastuako baratzea bururatzen zuen lur-mihiaren puntta Aturrian mainatzen zen eta arras egokia zirudien untzitxoen deskargatzeko gune bezala. Astean zehar urmael ustel-urrinduen nahasten ibiliak ginen, Tastuan agian esperantzarik auxienen itotzeko. Izialdura gaindituz, zakurraren zaunka haserretuak ahantziz, egongiako jela murgildu genuen aterbeko bortan joiteko. Haiduru ginaudelarik, Gaxuren mututasunak misterioa eransten zion egoera jadanik aski lotsorrari.

Bulta baten buruan, karrelajean herrestan zetozen urratsak aditu genituen. Borta zabaldu zen, eta trapu higatuz beztitu emazte konkortua azaldu zitzaigun. Emaztea ezagutzen nuen. Egun oroz Donapaleutik Gixunerateko bidean kurutzatzen nuen Felixi Suhasti zen. Harridura markatzeko unean hitza hartu nuen:

– Zu heen?

– Ta bai.

– Etzirea Felixi Suhasti?

– Bai.

– Diubiban! Holakoik oono!

– Ze nahuzie?

Ez genuen erantzunik harilkatu. Etxez engainatu ginelako segurtamena nuen. Joaiteko prest nindagon. Felixi Suhastik ordea, gaua zenez, aterbetzera gomitatu gintuen, euriaren kidegoko oroitzapen eztien izenean. Ura plisti-plasta jostatzen zen etxe gibeleko belar handiekin. Argizeituak marra zardaia moldatzen zuen ortzearen iluna kilikatuz. Mintza-ahalmena tinkatzen zidan ibaiaren magiak. Gaxuk besaingoa hunkitzean, amets gaiztotik iratzartu nintzen:

– Haui barneat, ehadila kanpuan eon!

– Nahasiik nun.

– Haui Amaia... –errepikatu zuen Gaxuk, amoltsuki eta Gaxuren itzala zangopilatuz, ezkaratza izan zitekeen gela batetan aurkitu ginen.

Arrantzale-sare xeheak tilingo ziren ezkaratzeko hormetan eta mimenez xirikordatu sareek argia gainditzen zuten, kanpo-aldean mamu beldurgarrien gisa luzatzeko. Sukaldeko beroa jaukitu zitzaidan. Mahain zabalean mizpira lehorrak nabarmendu nituen, eta sagar erdi-zimelduen minkatz urrina zoko orotara gohaingarri hedatzen zen. Felixik hitzegin zuen:

– Ze kariz jin zizte hunaartio?

– Ba...

– Ez ene ikusteat araiz?

– Beharba...

Sukaldeko kedar usainak zihikatu zizkigun sudurrak. Haraintzineko buhameek hangarpeetan egiten zituzten mimena hondarrezko suen gutizia hazi zitzaidan gogoan. Ber denboran, euria hasi zen teilatua kolpekatuz, eta buhameak bidez-bide ibiltzen itxuratu nituen, udaberriko hezetasunak zamalkatzen zituela. Kea zinez ederki uztartzen zen uharren uhalekilan.

Amodio-mina piztu zen nere golkoa udalatuz eta Gaxuri hurbildu nintzaion.

– Gaxu, galdiak gitun.

– Bai.

Gaxuren besoa sorbaldan pausatzen sentitu nuen, xori ausarta bezain arin. Supazter erraustunean zegoen zuzulu zizelkatuan jarri nintzen akiturik. Lozahar nindagon, eta su hurranak, matelak gorritzeaz gain, loaren deia eskaintzen zidan. Gaxu nere aldamenean ttottotu zen, gorputzek laster erreko zen egur puska berdina moldatzen bailuten. Felixi Suhasti, sototik itzuli zenean, urinez hanpatu dupina ekarriz, doibat bermatu ginen. Sardeskaz kitzikatu urin malgotik, lunka zati gottor bat ilki zuen.

– Enekin auhalduko ziztea?

– Ba, menturaz, gaua iziu!

– Zer hel ere...

Felixi Suhastiren oharra ordena zen abantxu, larderiaz bete botzaz mintzatu baitzitzaigun, gutariko bakar baten gaitziarazteko dudarik gabe. Sutondoan kuxkurtu ginen, suaren txintxek eta leihotik aditzen ziren Aturriren murmurio eztien kulunkaren pairatzale. Felixik armairutik jalgi

zartaginean urina ixuri zuen eta lunka beroarazi. Elea finkatu nuen:

– Iziarri maite izit lunka!

– Gauza hunak laket hik e.

Irri xehea ezpainetan, Felixik lunka inguratzen zuen zartaginean. Kerrenarekin itxinduak igiarazten nituen, otea lili denean ahaidea marmarikatuz, eta otetik gaztain-garbotsetara hegaldatu zen nere izpiritua, eta padera zaharretan gaztainak zirt-zart zartari amestu nituen. Zoriontsu nintzen. Gaxuk ere begiak zohardi zituen. Maitagarria zen Felixi.

Azkenean, biharamoneko uzten ahal genuen lana eta Tastuako aixolbeaz gozatzea baizik ez zitzaigun geratzen. Etxelarren pindarrek herrialde hustuaren muineraino eraman ninduten. Hitzegiteko enbeia gorria nuen. Zauriak frango fite horbaintzen ziren alabaina. Felixik mahainera bultzatu gintuen.

Portzelanazko azietak aintzinean, basoak ardoz beterik, eta lunka mahainaren erdian: irustasunaren ehuntzeko zorian ginauden. Felixik xerra finetan mozten zuen lunka. Hiruak apairu «deliziusaren» haiduruan plantatu ginen besoak

kurutzaturik. Bizitzea zaila zen, eta astean barna jasan ixtorio minkorrak oro birrindikan igortzeko asmoz nindagon.

Burua altxatu nuen, eta Felixi Suhastiren tximineian zegoen argazki batetaz ohartu nintzen. Iduritzen zitzaidan argazkiko potikoa nonbaitetik ezagutzen nuela. Hamar urteko mutiko polita zen. Potreta zaharkituari hegiak horitzen ari zitzaizkion. Gogoa iraultzen nuen hatz ahul baten bila. Deus ez zitzaidan jiten. Lunka parean nuen, ketan, usantsu, gosearen zorroztarri legez. Agian ez zen buruaren nekatzeko unerik hoberena.

Gateiluko haragia miretsi nuen, benedikazione baten maneran. Haragia ahoan urtzen hasi zelarik, Gaxuri so egon nintzaion, baina ez zuen Gaxuk nerearen gisako klimax gastronomikorik partekatzen. Felixi ez zen konturatzen sortzen ari zen nahaspila griñatsuaz. Argazkia aurrean neukan eta godaleta husten nuenero begi batez aztertzen jarraitzen nukeen. Azietak lehor zirenean, Felixik erran zigun:

– Arren, tia zazie amiñaat gehiau...

– Ez, aseik nizu –aitortu zuen Gaxuk.

Nik ordea, bi lunka xerraz hornitu nuen gateilua. Ikaragarriko janiza nabaritzen nuen. Asezina iduri nukeen. Ahotra bakoitzak ahosabaia alegeratzen zidan, falanga ahanzteraino. Felixik, idortukal, basoa arradan betetzen zidan. Lunka arraposki martzikatzearen azantzak baizik ez zuen ixiltasuna hausten. Auharia bukatzear ginelarik, gasna atera zuen Felixik. Egiazko zorionean ihalozka nindabilala konturatzen nintzen. Gaxuk ohera joaiteko bere nahia agertu zuen, eta Felixik logelara lagundu zuen ezbairik gabe.

Felixi desagertu zen minutaz baliatu nintzen, etxeko ardoak kiribilkatu pentsatzeko ahalmenaren ordenatzeko, eta argazkiko potikoa errealitateko norbaitekin josteko. Hara... banekien... Petteko zen... Kapetut... Hura zen... Zer ari zen Pettekoren potreta Felixi Suhastiren etxeko tximinei gainean?

Argazkiari beha atzeman ninduen ganberatik itzuli zen Felixik. Aurpegia gogortu zitzaion. Aldaketaz ohartu nintzen baiki eta, uneaz balia, galdegin nion:

– Zue familiako noait duaike?

– Ene semia –ihardetsi zidan bortizki.

Ezpainak tinkatzen zituen oraingoan Felixi Suhasti deitzen nuenak. Segitu behar nuen derrigorrez, zakutik edo zorrotik zerbait jakin.

– Zure semia? Petteko?

– Bai.

– Beaz, Maiena Ameztoi zira?

– Bai.

Ixiltasuna astun egin zen. Hitzez agor niraun nik ere. Felixi Suhasti omen zena zuzuluaren gainean plegatu zen, urteen zamaz leherreginik bezala.

– Menturaz baakizu...

– Zer? Ameriketara partitu zinela erran datazie.

– Ba, hoi kundatu izit Darrieu meikiari, hain zerbitzutik ilki nizalaik, ta, izena ta izana biak kanbiatu tzit, Felixi Suhasti pobre herresta bilakatu nizu.

– Bena zendako? Zue semiak uste izi hilik ziela!

– Mintzatu uzia Petteko?

– Bai, Biaxune artio seitu zitut, ta han zure hatzak galdu tzit.

– Gaixua!

Dorpea zen suaren beroa. Maienak hitzegitea deliberatu zuen:

– Xuikita iten ai nintzalaik, agertu zun, atsalde hartan, bedezia ene gielian, amainari, arropak altxatu ta, De Saint Martin Jauna, lotsaz nintzun, oihukan, trufaz erraiten zin nihor etzela etxen, sartu zatazun, ta elki zun, hanpuros...

Bortxaketa arruntaren azalpena jasankaitz zitzaidan.

– Etzinen zu hobendun.

– Ez, bena, sehi baten hitza...

– Alainan... –eskapatu zen nere ahotik, harriduraz hanturik.

Galde bat banuen oraino pausatzeko Aturri hegian balakari:

– Zendako ihes iili zira ddioztik?

– Makurra karretzen nintzin...

– Makurra!

Sukaldeko ordulariak hameka orenak jo zituen. Bide eurizuan zehar Felixi Suhasti deitzen nuenak, etsiturik, erabaki zuen oheratzeko tenorea zela. Ez zegoela halako presarik pentsatzen nuen arren, obeditu nion. Sutondoa akulatu zuen eta gela erakutsi zidan.

– Ohe bat bezik eztukezie biendako!

– Juain zu ba...

Amirun urrina zeukan ganberan nindagon. Gaxuren sahetsean etzan nintzen. Gaxuren marmazika aditu nuen:

– Ze miseria! Eztun mundia aise kanbiatzen no!

– Ta oono hik ixtorioaren buntza hutsin dun...

– Ze buntza?

– Bihar salatiko denat.

Trixtura hitsa irakurtzen nuen Gaxuren hatsartzean. Hurbildu nintzaion. Mekanikoki baieztu zuen pott bat oparitu nion. Orduan, jantzi hezeak kenduz, nere aldetik loari eman nintzen.

– Gau hun Gaxu.

Argia hil zuen Gaxuk. Handik laster esku daldarrakorra sentitu nuen larruaren hazkazale, bakardadearen kontrako deiaren gisa. Neskak besoak ideki zituen eta haren bular leunetan pausatu nituen ezpainak.

– Azken aldia diun ez?

– Bai, seurraski bai.

– Damutiko zaun beharba?

– Notaki...

Amodioaren dolua, betiko dolutegi.

Kamioi herotsak entzun nituen gauean, Mirepeix ugartetik zetozen arraunen flok-flok zaluak ere. Bazen mogimendu Aturri hegian. Uste nuen jadanik goiza zela, eta lo-eskasez, trinkili-trankala jeiki nintzen. Beztitu. Kanpora begira gelditu nintzen itzalean. Iluna zen oraino. Argizaiolak urrunetik balantzakari heltzen zitzaizkidan.

Ondoko ganbaran azantza hazten zen. Urrats egoitxak kuluarrean. Maiena zutik zegoen. Sukalderatu zen. Argia piztu eta hil zuen lau aldiz. Maienaren ekintzaren ondoramenez, Aturri gaineko argizaiolak urtu ziren eta kamioiak tarrapataka bide handirantz abiatu. Iduritu zitzaidan gidarietako bat ezagutzen nuela –oihalaren zatiak oro biltzen zirena Tastuako loiroan?– faroen pean argiztaturik.

– Redios! Santxo?

Burutazio sakonetan higatu nintzen. Zertan zabilan Santxo gune hauetan? Eta Su ta Garren konzertuaren ondoko fleitian Santxok salatu zidanaz banpez oroitu nintzen. Mentalki errepikatu nituen Santxoren agerpenak:

– Juan behainat laneat, Aturri hegirat.

Puzzlea osotu nuen: Mailuxen erranak, Jeffen kezkak, Amikuzeko oihaneko txabola hartako tramankuloak, gaurko gertakizunak... Espartin trafikoaren minik minenean nintzen. Bide luzea egiten zuten espartinek, Asiako lantegietarik –Europako kapitalez eraikiak menturaz...– Gixuneko Aturri ezponda ezti honetaraino. Jakinahia neukan. Gaxu iratzarrarazi gabe, sukaldera jautsi nintzen. Maiena kafesnearen edaten kausitu nuen. Ikusi nindunean hormatu ziren emaztearen ahurrak:

– Badakizü...

Durduzatzeko heinean zegoen. Bai, banekien, noski.

– Ze irabazten düzü seinale horik egitez?

– Jatekoaren erosteko doia.

– Zer nahitarako prestik zira ala?

– Ez otoi holakorik aipa Pettekori... Senarra bizirik düta?

– Bai, bizirik düzü, Sarrikota Pean.

– Damü düt...

Galde bat banuen egiteko, nitaz erraz burlatu zen andere xaharrari:

– Zendako sinetsarazi ditadazü Felixi Suhasti zinela?

– Berrogei urtez ene gibeletik ebili dütüzü, senarra, semea, eta hainbeste jente. Ikusi gei nizün eia zü nitara heltüko zinenez...

– Heltü nüzü, ez zure bidetik, bena heltü nüzü...

– Biba!

Maienaren izatearen itxura berriak desgostatzen ninduen. Mauleko espartingileen jukutrien konplizea zen, esku-makil mantsoa, mantsoegia agian, eta munduan zehar horrelako frango bazirelako, enpleguak galtzen ziren eta langile xumeak pikarraitzen. Maienaren begiak busti ziren:

– Erraiezü, bizirik nizala...

Sortaldetik nakusan argintzioak hunkitu ninduen. Erabaki nuen xixtan, sekretua zainduko nuela, gostaia-gosta. Zenbaitetan jakitea ez zen ahaltzea, eta hobe zen ixilik egoitea. Ixtorioaren parte bat baizik ez nien Pettekori, senarrari eta Jeffi kondatuko. Maienak gatilua luzatu zidan.

– Oizü arrabazka, ezne xorta batekin!

Bezperako mezturaren hondarrak plazerrekin jan nituen, etxean lehenago orratxa nola milika-

tzen genuen oroituz. Goizeko seietan Gaxuren inharrostera abiatu nintzen. Gaxuren buluztasunaren miremenak beraztu zidan bihotza.

– Haui, guazen uai...

– Nun hintzan oono?

– Sukaldean, Maienaikin solasean.

– Holako mihi-luziaikin eztinat konpreitzen nola hihaur hizan.

Alabaina, nihaurentzat ere misterioa zen. Misterio apala dagoeneko.

# –19–

Donapaleuko Aldaka batzoki «abertzale»ko kontuarrean nindagon. Garagardo botoilatxo orlegia eskuetan tinko neukala, ametsari eman nion bidea. Gaxu urrunago zegoen lagun zenbaitekilan elestan, eta bakarrik nintzenez, Guk taldearen haraintzineko kantu ederren melodiak buruan, eguna nola iragan zitzaidan aztertzen ari nintzen... Hortzez Eta Haginez... Lagun Bat zorionez... Aurkituko Dugunez... xuxurlatzen nuen, oihuka beldurrez, eta konturatzen nintzen, Gixunetik Aldaka ostaturainoko denbora tarrapataka higatu zitzaigula.

Aturri hegia utzi genuen, sekretu frangoren geriza, eta ezagutzen nituen jende askoren bilgune harrigarri, Samatze eta Bidaxunen gaindi, Arrutara heltzeko. Han zeuden gure autoak. Samatzetik Bidaxunera gindoazelarik, VTTen gainean ixilik, Herri Hustuen Iparraldeko Sindromeak jo ninduen, artozango hirotuz estali zelaietan zehar, ipular batean edo bestean etxe erorien paretik pasatzean: nehortasunik gabeko

etxe horiek garai airosagoen lekukoak ziren seguraski, eta haien sukaldeak geroago Frantzian edo Ameriketan barna bareiatu haurrez mukuru zitezkeen.

Oroitzen nintzen, behin, nola Oragarre Larraldeko funts abandonatuak bisitatzean, halako agerinde hitsak katestatu ninduela: huntzostoek jan labetegiko hormetan biziaren izerdi zaratatsua aditzen nuen. Zarata baino gehiago, Korsegako Kanta Polifonikoen oihartzunaz betetzen zitzaidan golkoa, negarrari ildoa idekitzeraino. Pariatzen nuen, segidan, ilargi osoko gauetan, etxe horretako jabeak beren eremuetara itzultzen zirela, berriz ere mesturaz ase eta sasien zein naharren mendea madarikatzeko. Momentu haietan banekien polifonia ohiak erlastuak edo arhestuak zirela. Eta haizeak atea buntzetan kurrunkarazten zuen, nere asmakizuna ebakiz.

Gixunetik Arrutaraino ez nuen Gaxuren botza hauteman. Ba omen zuen aski lan vttaren bulkatzeko ahaleginekilan. Gaitzeko fleitean nintzen ni, arrabazkaz aserik, baina Gaxu meleka-muturzuriak ez zuen Maiena Ameztoiren molde zaharreko gosaria jastatu ere. Hainbat gaixto haren-

dako. Aldakan, Gaxuk ez zuen axolarik, mundua lehertzen zitzaiola zirudien emazte batekin elekan ari zen artetik, maitasarrez gainditu sohakoak botatzen zizkidan.

Gogoratzen nintzen oraino, Donapaleura iritxi ginela, justo «merkatu tenoreko». Zortziak aldera Kolegioko tabernako moleskinezko jargietan pausatu ginen. Jendea tole biltzen ari zen, eta kafearen usain kilikariak batasun linguistikoen itxura hedatzen zuen. Goilareak kikera hegian jotzen zuenero, biarnesezko «qu'et aprei»ak kaskoinezko «hildudiabl ho» eta euskarazko «alaxinkua» hitzekin nahastekatzen ziren, jendarte ahantzien mintzairek gugan nostalgia hazi artean. Mahain peetarik ilkitzen ziren xitxa eta gita umeen piupiuen musikak. Urrunean, ostatuko atea zabaltzen zenean, ardi edo axuri marraka bat nabaritzen genuen. Herots umilek burzoraturik bezala, amoros, Gaxuri beha egon nintzaion. Goizeko ordu malgoa hautatu zuen neskak erraiteko:

– Baakin, gordezka iiltzeko ta, eztin balio.

– Zek?

– Ba, gu bien lotura hunek no, bena seur izan hadi...

– ...ez dizudala iñoiz gezurrik esan...

*...zaude ziur ezin izango zaitudala ahaztu iñoiz*

*aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena*

*baina orain maitia lehen bai lehen aska gaitezen!*

– Ehua hiza? Ze aiz kantuz?

– Aire eder batez apaintzen dinat une gogor hau!

Irriz hasi zen Gaxu, «aitormenaren» zamaren dorpeaz libratuaren gisa. Lana, heinbatean, erraztu niolako zoriontsu nintzen, eta pozik berdinki Maiena Ameztoi kausiturik, Felixi Suhastiren trastuez itxuraldaturik. Emaztearen aulkiak eta binperrak zilaturik, gainera bozkariatzen nintzen binperraren zati baten ezkutatzeko nuen erabakiaz. Min aski bazegoen lurraren azalean, minduria lagun proximoaren bihotzetan txertatu gabe. Bestalde, kafea arraiki hurrupatzen zuen Gaxuri, nola agertuko nion nere sentimental-politiko-kultural eginkizunak abestien bidez jasangarriagoak bihurtzen zituela Hertzainak tal-

deak. Ez zuen ulertuko menturaz, deusik ez zegoenean, esperantza hurritzen zenean, kantore bat aberastasun erraldoia zela, nehork ebasten, pribatizatzen, monopolizatzen ahal ez zuen altxorra.

Aldaka batzokian gutizia piztu zitzaidan: gazteiztarrak entzun gogo nituen. Baina Jojo eta Ramuntxoren zinta ezarri zuen zerbitzariak. Josu Muguruzaren oroimenezko ahaideak taberna keztatua bete zuen, mendeku latzaren antzera. Eresiak ukamilak tinkarazten zituen, «...ezin dugu hori onetsi!» errepikatzen genuen, zintzurrak kordokaturik.

Garagardo bekaitz bat manatu nuen, eta Gaxuren etxean gastatu nuen arratsaldeaz pentsatzen hasi nintzen. Dutxaturik, orduan, Jeffi eta Mailuxi telefonatu nien, beren susmoak baieztuz espartin-trafikoari buruz. Biek auhaitera gomitatu ninduten. Pettekorekin denbora gehiago iragan nuen:

– Bai, ama hatzeman datazu beaz, nun bizi da?

– Gixune-Tastuan, Aturri hegian, etzitu sekulan ahantzi!

– Uste nien, errana zatazien, hila zela...

– Ez, izakozu bisitaño bat, kuntent ukezu.

– Xahartia duaike.

– Ehe, azkar tzu oono, izpiitia erne alo!

– Mertzi hanitx.

Pettekok segunda parrasta bat eman zuen, telefonaren besagiaren pausatzen. Arrunt, ordea, linea hutsik zelako seinalea behatu nuen. Tristuraz hanturik –hauxe bizitzearen malur gordina!– eginbeharrak konpliturik, Gaxuren apartamenduko kanapean luzatu nintzen, loaren haiduru. Orlegitasun hezearen amets hatsangaren hegalek deika iratzarrarazi ninduten. Gaxu nuen sahetsean.

– Ze aiz?

– Ametsa! Hatsa! Itotzear nintunan! Oihenian!

– Auxilik, kalma hadi, otoi, ura ekaiko denat.

– Hiltzear...

– Ametsa ametsa bezik eztun ddio.

Begi ziloak torratzen nituen, eta ura kontrezilo irensten zuenaren pare, urmaeletako jori ilunegia botatzearren eztulka ari nintzen. Antsiaren ziztek larrua ikarazten zidaten.

– Xiberoa ments dinat, Gazteluko Ikurrina!

– Sarri juain hiz, nahi baun.

– Seidan.

– Aldakara abian gitun gaur.

– Ah!

Errealitatera jautsi nintzen. Eguna azken ekiorratzek argitzen zutela oharturik, Gaxuk auhari arina apailatu zuen biendako.

Aldakako gela hertsian nindagon orain, Kaixianoren dantza-aireak barne thepoa balakatzen zuela. Kontuarrean zutik, ideiak naikatu nituen. Adineko gizon baten aldamenean nintzen. Gizonak ardo gorria edaten zuen, eta hutsak godaleta kartzelatzen ziolarik, behatz puntaz perekatuz mintzo zitzaion bitrezko gauza uhargiari:

– Ni nuk! Haui! Anua haui otoi! Enuka ezautzen!

Gizonaren soak nerea kurutzatu zuen. Moltsa ideki nuen eta gizonarentzat xopina bat eskatu:

– Oizu, Jauna, eazu...

– Bain aspaldi enutela Jauna deitu...

– Zue osaarrirat!

– Hi! Hi! Anua! Jin hata engoitik!

Solasak murritzak ziren. Ahoak emana ahala hargatik, gizona kantan lehertu zen, begi izkinan malko ahalgegarria zangopilatuz:

*Sortu niz Amikuzen oihenen artean*
*Muga bat omen dela dioten partean*
*Iraztor eta xarak diren bitartean*
*Eskuara gal ez dadin gure uhartean*
*hatsa ekartean*
*gure jendartean*
*hor bizkitartean*
*plazer ezartean*
*Denek irauten dugu ixil anartean*

Gizon izen-gabearen ahots hautsiak zauritzen ninduen. Hitzak betikotzat zizelkatuak nituen kaskoaren egurrean. Gizonaren koplak nereak –Gaxurenak ere nolazpait– ziren. Mihiak bapatean vodka doblea galdetu zidan. Zintzuriraiztura desiratzen nuen, gizonak bigarren bertsoa iharrosi zuelarik:

*Jotzetik gelditzean kaiolan bihotza*
*Jinen denean bihar gure ondikotza*
*Emaiguzue berriz eremu zorrotza*
*Arto elgez estali Amikuze hotza*
*Betiko arrotza*

*Elearen motza*
*Irauteko lotsa*
*Errekan izotza*
*Nahi dut herioan herri honen botza*

«Herri Honen Botza» errepikatzean, Otsagabia ahoskatu nuen, Amikuze Aintzina Bizi erakundearen bestan aditua, Xiberoan noizdanik ez nintzen sartu kalkulatuz. Heriotz-Hurranaren ingumak haizatu nitueneko ohartu nintzen, Aldaka jendez mukuru zela, eta sahetsean nuen gizona nonbait, perekatzen zuen basoan agian, urturik zabilala.

Santxo –kamioi gidaria...– Gaxurelikan solas eztika ikusi nuen, eta papoan, jeloskeria xoilaren zimikoa jasan, haragia urratzear. Begirada Donapaleuko ikastolako iragarkin batetan tilingotu nuen, memoria zihikatuz: komunazilo ixtorioa batengatik 1977an nahi ukan zutenean Amikuzeko ikastola zerratu Seaskaren aldeko lehen manifestaldiak hiru mila pertsona bildu zituen Baionan.

Hogei urte berantago, «herri honen botza» prefabrikatu zaharkituetan preso zatxikaten, Amikuzen bai eta Xiberoan berdin, «herri honen

botza» hegatza noiz buru gainera eroriko zain zegoen Donapaleun eta Maulen zango-sagarre-taraino bustirik uhar bortitzetako egunetan. Le-kukoak ginen. Zor zitzaiguna ere ez ziguten emaiten, sasipublikotasunaren izenean ezetz zioten, zenbaitek publikotasunaren ahalak desbi-deratuz, sakelak lotsagabeki betetzen zituzten bitartean. Beste vodka zehargi bat eskualatu nuen.

Mozkortzen ari nintzen. Mozkorrak matelak berotzen zizkidan. Gaxu xekatzen nuen orotan, mintza-guraren hedatzeko. Hitzegin beharra neukan, behar-gorria. Agian oporretara joanen nintzen laster, herioaren muinetik ahal bezain urrun, gaztetasuna indar errepresibo gisa erabi-lia zen Kaliforniara, edo Arizonako zein Kolorado-ko basamortuen bakardade bakunaz gozatzera.

Egunkariak idekitzean, arrakasta eta gloria aintzinatzen zen guneetara eskapatuko nintzen, hemengo astekarien dolorearen ahanzteko: «Ila-bete hunen 9an, goizari buruz, exti-extia, pausa-tu da, 86 urtetan, Mendi-Bixtako Xantxo... Zon-bait egun lehenago, ezagutza osoan hartuak zi-tuen sakramenduak...» Vodka kluk batez ahora-

tu nuen, mihipean eta zintzurrean behera freskuraren hazle. Xiberoalat nahi nuen. Zale. Zalu.

Aldakatik atera nintzen tipus-tapasean, Gaxu Santxorekin etxeratua zela ohartu nintzenean. Aldakako atean elkarri musuka ari zen bikotearen kontra mustupilka lehertu nintzen. Murtzmurtz ozenak hautsi nituen, eta neska ez zen sobera kontent:

– Ti vua pa ukua?

– Mua?

– Ue, me te Amaia tua?

– Ua...

– Ti se, te nül, ti vua, te halü!

– Halü mua?

– Halüzina kua; tü me rentr didan!

– Presan nun!

– Ta xarrrabia, fo borroke ozi, bataile, ja le bul ti vua.

– Ddia? Depüi kan?

– Depüi ka ja süi ervenü da Parri.

– Desole!

– Ja le bul ti vua.

– Okey, okey, salü.

Eskapatu nintzen, neskaren hiraren ondorioetaz beldurra nabarituz; honek ere erranen zidan aspalditik banekiena, heinbat nül nintzela. Anarkista-burgesak bere gizona arratinkatu zuen, eta argi zurbailetan mutikoaren ezpainek neskaren mihia bilatzen zutela ikusi nuen. Kasu egiten ahal nukeen naski, jendeak kupleak sustut kuskatu baino lehen, baina vodka goxagarriaren meneko nintzela onhartzekoa nuen. Teiebixtek –625 lerrotan...– egunero erakusten ziguten amodio zoriontsuaren eredu monolitikoa ahantzi nuen eta, trixtura batek kateastaturik, Thiers karrikan barna abiatu nintzen.

Astiro-astiro urratsek espaloi bustiak aztalkatzen zituzten. Aurpegirik gabeko herrialdean banindoan, aurpegirik gabe, ahurrik gabe, ahotsik gabe, gerorik gabe orozbat. Burgesiak turixtak erakartzearren, zuela bizpahiru urte, Mixel Etcheverryren zintak jartzen zizkigun, eta gaurkoan garai aldaketa susmatuz, Hirigoyen anaien kantuez hornitzen zituzten hiriko bozgaragailuak, ilusioaren oraino errealago sortzeko. Euskaldunari debekatzen zitzaion bizitzea, non ez zen turixmoaren onetan. Paisaiak eta ahaide tipi-

ko-progresistak baizik ez zituzten zilegitzen. Oroitu nintzen, gauaren minean, behin, Izturitzeko harpeetako haiduru-gelan sartzen zuten gure herriari buruzko bideoan ez zela begitarte bakar bat ageri, irriz edo negarrez, bakar bat ez. Otsozelaiko ziloan ez zen euskaldunik, kromagnon arrunt bat eta olentzero txarpil bat salbu. Gaineratikoa gastronomia zen: han ikus azaloreak! eta han urdaiazpikoak! horretxetan antzera gibelkiak!

Ukatze historikoak gohaintzen ninduen. Tripak aurdiki nituen Thiers kalearen erdian, gorputza husteraino. Hezurrak gelditu arte. Gu desterruan, presondegietan, langabezian, ahalgetzen, gosetzen eta vodka merkez egarritzen. Ixilik, Maiena Ameztoi maneran. «Urxo xuria errazu» kantua altxatzen bide zen, noiztenka, ilunaren zerrailuetarik, genozidio gerizatuaren kontrako konzientzien ahots xumearen pare. Erresistentzian aterbetzen ginen bizkitartean. Eta Gaxu... Gaxu... Gaxu... Astebete abantxu iraun zuen maitasun herbaila.

Xiberoalat joan behar nuen. Agudo.

# –20–

Mauleko Gaztelu gainetik aire freskoa zetorren, baina lainoen artetik arratsapaleko ekia erregin zegoen. Martxoan egunak luzatzen zihoatzin. Ameztoi zaharrarekilako hitzordua seietan finkatua genuen aintzineko neskenegunean, Europa ostatuan.

Eguteran jarri nintzen, tenorearen haiduru. Parean neukan Urdiñarbeko Maskaradaren iragarkina begiztatzean, zin egiten nuen, hurrengo igandean Mauleko plaza arrosean frisat iruten eta prediku zorrotz eskaintzen ariko zirelarik, joanen nintzaiela ikustera. Txülülaren arra-entzuteko lehiaz nintzen, udaberriaren jitea itxuratzen bailuen. Mundu aiherkorrarekin bakea sinatzeko estakuruz, behin betikoz.

Xiberoan –etxean...– sartuz geroztik, zainak anpletu zitzaizkidan, eta egoera lasaikiago nakusan. Gaxurenganako amodio antzuen horbainak ahanztear nindagon, aste baiezkorra bizitu nuela erantsiz. Ordea, oihanean zehar ahosabairatu herioaren kalzio-gustua ez zidan edaten nuen

Irulegiko ardo eztiak ezabatzen. Hortzetan bermatzen zen kalzioa. Izpirituan. Giñarretan. Esku ahurretan. Kalzioa orotan. Untzia, urperatze zorian utzi nuelako Donapaleuko gau-zurian, kontzientzia txarra hazten zitzaidan bihotzean. Dudaz beterik nintzen. Gogoa etziko maskaradaren alaitasun ankerrean uztartu nuen.

Zetor eztulkariaren herots engoitik ezagunak inharrosi ninduen. Ameztoi horretxetan zegoen. Traturra meriaren ondoko aparkalekuan pausatu zuen gizonak, eta matoaz lagunduz, tabernako aixolberantz hurbildu zen kezkati.

– Ba düzüa berriagorik? –galdegin zidan ahots hautsiz.

– Ba Jauna, ba düt zerbait. Burrat bat eskentzen deizüta?

– Plazereki. Non da ene emaztea?

Eskakizun zaluegia tilingatu nuen. Bizkitartean, solasean ari zen zerbitzariaren denbora terrentaz baliatu nintzen beste bi «gorriren» manatzeko. Kontuarraren gibeletik kasko-pelatuak ekarri godaletak bisean bis edukitzean hitzari ekin nion:

– Atzaman düt Maiena, Gixunen, Tastuan.

– Gixunen? Zer ari da han?

– Erretretan düzü, bizi osoa lanean erauntsirik.

– Eneki egon ba zen, ez zizün lan beharrik ükenen!

– Ba pentsa! Zütaz oritzen dela erran ditazüt.

– Nitaz? Zerendako ez da jin Sarrikotarat ordüan?

Ameztoi samurtzen zen. Ez nekien zer egin uholde berriaren jabaltzeko. Ixiltasunaren leihoa ideki nuen, eta zenbait minutaren buruan gizona bere hatzetaratu zen:

– Bena?

– Ütz nezazü mintzatzerat pürü! –jaukitu nintzaion, eta zirudienez Ameztoiek entelegatu zuen.

Kondatu nion, Gaxuren presentzia aipatu gabe prefosta, Donapaleutik Gixunerainoko bidean ikasia oro, nola Tastuako sukaldean agertu zitzaidan hainbeste aldiz kurutzatu Felixi Suhasti hura, hondarrean, Maiena Ameztoi iheslaria zela.

– Semerik ba düa? –moztu ninduen laborari unatuak.

– Bai, bat, Petteko, Ilarren ezkontürik dena.

– ...

– Pettekok ondokorik ez dizü.

Tristura irakurri nuen Ameztoiren begitarte xifrituan. Ahal izan balu, une hartan etxean telebistaren atzean gorderik zatxikan akordeoia hartuko zuen, ahaide minkor baten jotzeko. Ordez, mahainean behatzak mugitu zituen, bakardadearen attabalaren gisa.

– Üngürüko bi laborari handiek partekatüko ditizüe beraz ene lürrak, hiltzen nizanean. Etxaua SAFERaren eskü dükezü: ez dizüe besterik egürükitzen, hil nadin, hil nadin...

– Ez zira hortan ez orano!

– Tzai ene ehortzetetarat.

– Bai, jineko nüzü.

– Jakiten ba düzü...

– Xiberoko Botzean erranen dizue bai arauz!

– Han, segür, erranen düela.

Ameztoiek basoa kluk batez hustu zuen. Hari so nindagon. Adin batetaratzean, jendeak munduaren kitatzeari pentsatzen zion, erdainurik gabe, bizitzeari uko eginez, egunerokotasun dorpeaz axolagabeturik. Munduarekilako urrunta-

sun naturalak hotzez emokatzen zizkidan zainak. Ikara kukutu nuen. Gizona zutitu zen.

– Pakatü behar zütüt.

– Otoi! Ez düt deüsere nahi!

– Bena bai, haurra, nahi zütüt pakatü!

Ameztoiren larderiaz lotsatu nintzen eta haren urratsetarik jalgi nintzen ostatutik. Zetor traturraren parera heldu ginen. Ogi zaku bat igitzen susmatu nuen, eta gizonak zakua oparitu zidan.

– Oizü, zurentako!

Zakuaren barnera behatu nuen. Bildots bat bazegoen, eta bildots amoltsuaz gain, Sarrikotan hain estimatu nuen etxeko ardoz bete botila bat. Bildotsak trabatuko ninduen arren, ez baitzen baratzerik alokatzen nuen egoitzan, esker-milaka plegatu nintzaion, ardoa zela medio sustut:

– Ez düzü zerik gaixoa –ihardesten zuen Ameztoiek.

Mututasun hunkigarria autoen azantzek baizik ez zuten nahasten. Tipus-tapas traturraren ttottoan finkatzean, Ameztoiek hitzegin zidan:

– Ez ditazüt mentüraz oro salatü, bena lan hona egin düzü.

– Heltübada...

– Zinez.

Hits neukan golkoa. Izpiritua alan. Ordea, moturra tur-tur-tur piztu zen Zetorra bidean bultzatuz. Keetan desagertu zen Ameztoi akitua, bakardadez okitua. Nere eginkizuna horretan bururatzen zen, eta arin sentitzeko partez, pizu neukan gogoa. Bildotsa besapean –Jinkoaren bildotsa... urrikal Jauna!–, pentsamendukan, Peko Arrüaren 76. zenbakian zegoen nere bulegora bideratu nintzen.

«Urrikal zakizkigu» errepikatu nuen, bildotsa bulegoko jargiari estekatu nuelarik. Hazinda umila, lurrean hazkaokan ari zen aztaparrekin. Nonbait min nuen. Halarike, larunbat hartako *Egunkaria* hostokatu nuen, telebistako kronikietan asti gehixot galduz, eta iduriz jostari zabilan bildotsari, irakurri arau, orrialde zatiak emanez. Paperak muturraz xitxikatzen zituen, eta ixtant batez, Mauleko burgesen moldean, nere burua neskenegün arratsaldez Peko Arrüan paseiatzen imajinatu nuen, soka baten puntan Ameztoiren bildotsa neramala.

Agerinde surreaslistegia zela konsideratu nuen, eta kabalea anaiari eramaitea erabaki nuelarik, bortako xilintxak jo zuen. Aulkian plantatu nintzen:

– Aintzina!

Hitzak ahotik jazarri orduko, Jeff ikusi nuen bulegoan sartzen. Sekula baino ederrago zetorren Jeff, eta haren beso debekatuen eremuan gerizatzera joaiteko punpea ezeztatu nuen nigan. Erabateko ofiziozkoen moldean, bostekoa tinkatu eta arrunt gaiaren gaxura pirtzikatu genuen:

– Bon, Jeff, Mauleko Xardoi markako oskiak Gixune Tastuako Aturri ezponda-mihian deskargatzen ditizüe. Gero Amikuzeko oihaneko txabola batetan izenez kanbiatzen.

– Alabadere...

– Bai, eta kamionez karreatzen hebenko üsinalaino!

– Ez düt ahal sinesten.

– Ata...

– Ez nizün uste heltüko zinela?

– Hara...

Hitzaroa mandotu zen. Jeff so zegokidan. Sohakoaren geldoaz lotsatu nintzen, eta gelako armairu apalean zegoen whisky botila erditaratua argira ilki nuen.

– Zer eginen düzü.

– Herotsa! Herotsa! Denek orok jakin dezaen!

– Ttilika bat nahi düzüa?

– Bardin ba.

– Barnearen epeltzeko!

Godaletak antzutu ziren. Jeff aditu nuen:

– Goazen Arkadetarat aihariterat...

– Arren...

Paltoa jaunstean, Jeffek ideia ona zuela niolarik, bulegoko atea giltzatu nuen.

Peko Arrüan ginen. Gazodükaren hirian plantatzeko lankien gatik, karrikan ibiltzean, ziloker eta lohi-ixtiluer kasu eman behar genuen. Jeffek kondatu zidan, Maule gazestatzeko obretaz gain, Mitikilen ari zirela hodiaren pausatzen, eta saldoan Mitikileko nekazariek, hedexuriz inguraturik etortzen ziren Ansopose enpresako mekaniker oldartzen zarraitela. Mauleko huxer edo Etxahun-Barkoxeren kantoreko «sarjant» ezagun batek irakurtzen omen zituen, poliziek le-

kuak hutsarazi baino lehen protestazaleen bareiatzeko eleak. Estado zentralaren indar errepresiboek zailtasunak bazituzten mekanikak enpantxatzen zabiltzanen tapalakatzen. Gisa berean, zion Jeff ezin ixilduak, Larraine gaineko Burkegi meategietan Gaz-Pars-eko bi kide bazeuden meategiaren ilunean entzerratuak, beti ere helburu berdinarekin. Ordea, bihurtzaleek lanak zortzi egunez gehienez gibelarazten baldin bazituzten, bazirudien «industrial desease» gaitzak akabatzerik ez zuela, eta minbiziaren maneran hedatzeko asmatua izan zela, herrietako bizi-txerto guziak errez. Jeffek hatsa hartu zuen.

Nehoiz hautemana ez nuen ahaide batetan, gauaren zauri idekiari, ahots ahulez, Jeffek harilkatu zuen «Otea Lili Denean» kantorearen haria. Abestiak Xiberoaren eta Amikuzeren auhena biderkatzen zuen. Izpiritua oihanaren itzal-gune mehatxagarrien pentzeetan alan zabilkidalarik, Arkadetara heldu ginen azkenean, eta jadanik mahainean zeudenen artean gorde genituen gure bihotzen eresi mingaitzak.

– Zer hartüren düzü Amaia? –galdea bitxiki pausatu zidan Jeffek.

Menüan txipiroiak beren enkrean bazirela ohartu nintzelarik, ez nuen dudatu, airoski ihardetsi nion:

– Txipiroiak, prefosta!

Txipiroi hitzak, pastoral bezpera sargorritsu batetan, Harrielgian, jastatu arrainki «delizius»era eroan ninduen. Erretzeko beroa zen orduan, eta augeran, txipiroien tinta beltz boltsak ilkitzen arizan nintzen, bizkaitar berezilari zenbaiten gidaritzapean, errespetu frangorekin, otoitzean nola, txipiroi bakoitzari «urrikal zakizkigu» deiadarkatzeko keinkan.

Jeffen begi berdeen kurutzatzeak orainera itzularazi ninduen, debaldezko nostalgietan galtzeko betarik utzi gabe. Ekarri ziguten Errioxako ardoak haroa biguindu zuen.

Jeff mintzo zen, eta loriaturik hari beha nindagon. Zioen: gu eta gutarrak –gora!– TUC, CES, RMI eta gaineratikoek hazten gintuztela, hilabetero ANPEra igortzekoak ziren paperak betez, ASSEDIC eta URSSAFen menpeko ginela, bizkitartean, nagusien eta aberatsen jokoa, sistema sozialean, formakuntzan, enplegu-sortzetan diru gero gutiagoren sartzea zela, gobernuak nagusien karguen

pagatzea arintzen zuela, ele-zuriz maneatu plan sozialak bideratzen zituztela, sindikaten baimen xoilaz, eta gu pikarrai ginabiltzala, langabetuak latz eta landunak zanpatuak, beldurtuak, izkinetan gordetzera behartuak, orok partekatzekoa genuen emaitza amankonumaren % 90a, jendeen % 10ek bekaizki beretzen zutelako, estadoan, Europan edo munduan zehar, so-egizü gehitzen zuen Jeffek, Bidegain lantegiko 55 langile kanporatuko zituzten, lantegia sano zelarik, alta haurrak ez ziren oinutsik ibiltzen ahal, baina, Maulen josteko ordez, haur-oskiak Asian hanitxez merkeago eraikitzen ziren, eta politikariek? hautetsiek «zen pilixka ez eman nahiz, zer nahi hitzemaiten» zuhurritzaren arabera moldatzen ziren, balizko chips üsinak aintzinatuz. Aterabiderik ez zegoela aitortzear zegoen Jeff. Gizonaren ateka gaitzetik jalgitzeko ez nekien zer egin. Galde inoxenteaz ausartu nintzen:

– Bidegain SArentako, agian. herriko etxeak zerbait proposiko dizü?

– Zoinen ameslari ziren Amaia!

– Zerentako ez?

– Herriko etxeak betikoa oihüstatüko dizü: Bidegain SAn ari diren langileak ez direla güziak Maulekoak, eta üngürüko herriek ez ba düe lagüntü gei, Maulek berak ez düala deüs eginen...

Bai funtsean. Miletan arrazoin zuen ohizko arraultze-ta-xingar milikatzen ari zen Jeffek. Solas berdinak, estakuru gisa, entzunak izan ziren haurzaindegiaren, musika-eskolaren edo nolaz ez! ikastolaren auzietan. Irriño bat marraztu nuen, Jeffen harridura kitzikatuz.

– Noiz hetsiko düe Bidegain SA?

– Apirilaren 31an, eguerdi t'erdietan xüxen.

Ezpainak plegatzen narraikan, irresponsable nintzen bezainbat.

– Zertako erriz ari zira? –Jeffek eskatu zidan.

– Ba, ni ere, astelehenetik goiti, auher beit nizate.

– Baia? Ez nüzü estonatzen!

– Maddik salatü ditazüt, menajearen egiteko, lantokian, bekanika bat erosi züela, ez dütüzü beraz, ene jats-zale talentüen mengoan...

– Hara...

– Tanpis!

Salbatunea luzatu zen. Gauerdira abian ziren ordularietako orratz nagiak.

Arkadetarik atera ginen behingoz aserik. Jeff hasi zen berriz, «Otea Lili Denean» airearen xuxurlatzen, eta haizeak buhako arinaz, bultzada eman zion ahaideari. Nigarra begian neukan. Usatuzko bihotz-beratasuna ukatuz, lantegi zaharreko andere-kolegak zerrendatu nituen, astelehenean, errainetarik minez, amodioz arranpaz konkorturik, edo haurrez urgulutan –langabezian ez zituztelako behintzat... Gaixoak han Parisen exiliatuak!– lehertuko ziren, lurraren ustel usainaz jabetu ezinez. Kikizai estofatuak, begi-keinu konplizeak, hasperenak, oporretarako proiekto handiak –aurten Costa Doradara...– eguberriko opari gisa mikro-uhindun-labearen esperantzak, eta... eta... eta... ETA... beti sosa aipagai. Nazka nabaritu nuen.

Jeff nere aurrean zegoen tente:

– Amaia...

– Arra-jin nintzan herrira, nigarra nuen begian! –xuxurlatzen nuen.

– Amaia?

Jeffen ahorpegi durduzatua ahantzi nuen. Alabaina, Matalaz perspektiba –iturria, arrabotea, herriko etxea eta gaztelua...–, lantzerrak kateastatzen zuen mende urratu hauetan, segurra zen behin baino ez ginela biziko, aukera bakarra genuela, eta zertarako ez erran aldamenean zabilanari, nola edo hala, maitasarrea zor geniola. Auxenetan gerotik gerora ibiltzean galtzen genuen denbora. Axularren arabera pürü.

Gerotik gerora iragan artean, langabeziaren on-gaitzak jastatzekoak nituen. Ez nuen gauza askoren beharrik egia erran: adiskide zenbait, amodia noiz-behinka eta aditz mutilatuaren oihartzuna ezpainetan.

Lurra iraultzekoa zen oraino.

Axularren arabera pürü.

Herrialde baten ahuspez eta Euskal Herriko lur peza ixil urrunaren gorazarrez idaztea ez da erraz, non ez den amodio piliska bat orrialdez orrialde ixurten, balizko geroaren esperantzaren zurkaitz. Galtzen ari eta ber denboran berreskuratzen den mintzaira xoilaz, nolabait herriak moldatzen duen leinu edo familia ideki bati eske-

rrak bihurtzea zilegi bekit. Idaztea sekulan baino gehiago ihardokitzea da.

Liburu hau, lehen hostailetako eskaintza zabalaz gain, biharra euskaraz apaintzen lagunduko dutenei opariturik da; Donapauleko, Miarritzeko eta Mauleko ikastolako haurrei besteak beste.

Zertan dabil duda-mudaz bide ilunetan amahizkuntza, ama galduz geroztik? Nola edo noraino iraun dezake? Bakardadea aditzik gabe geldi-tu zaigulako, orrialde hauek omenaldi amoltsu gisa bihoaz.

HERRIALDE baten ahuspez eta Euskal Herriko lur peza ixil urrunaren gorasarrez idaztea ez da errez, non ez den amodio piliska bat orrialdez-orrialde ixurten, balizko geroaren esperantzaren zurkaitz. Galtzen ari eta ber denboran berreskuratzen den mintzaira xoilaz, nolabait herriak moldatzen duen leinu edo familia ideki bati eskerrak bihurtzea zilegi bekit. Idaztea sekulan baino gehiago ihardokitzea da.

LIBURU hau, lehen hostailetako eskaintza zabalaz gain, biharra euskaraz apaintzen lagunduko dutenei opariturik bezala, Donapaleuko, Miarritzeko edo Mauleko ikastolako haurrei besteak beste.

ZERTAN dabil duda-mudaz bide ilunetan ama-hizkuntza, ama galduz geroztik? Nola eta noraino iraun dezake? Bakardadea aditzik gabe gelditu zaigulako, orrialde hauek omenaldi amoltsu gisa bihoaz.